

## EIBARKO KANTUAK

### SARRERA

Esku artian dakazun liburuaren sortze prozesuan bi prozesu uztartu dittuguz, bata kantuen bilketa eta bestia kantuen armonizaziña. Kantuen bilketarako hiru abiapuntu nagusi erabilli doguz. Lehenengua Jose Luis Perez Sarasketak gidatutako taldiak bildu zittuan kantuak. Bigarrena abiapuntu bibliografikua izan da; ahoz jaso ezin izan doguna liburu eta aldizkarixetan batu dogu. Azpimarratzkuak dira Juan San Martin, Toribio Etxebarria, R. M. Azkue eta Aita Donostiaren lanak, "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" ikerketia eta "Revista Eibar"ren jasotako informaziña. Azken abiapuntua, eta garrantzitsuena, lekuko edo barriemoillien ahotik jasotako kantuak eta kontuak izan dira. Horretarako Panasonic RQ-L309 grabagailla eta BASF FE I zintak erabilli doguz. Barriemoille barrixen izenak barriemoilliek eurok emon deskuez gehixenetan, eta kaleko jende ugari elkarrizketatu badugu be, ez dogu nahi beste barriemoille topatu ahal izan basarri giruan. Bilketa 1999-11-08 eta 2000-05-05 bitartean gauzatu da. Aukera izan dogun guztietan eibarrerazko ortografia erabilli dogu, nahiz eta eibarreraz sortutako kantu gitxi egon; orduko modia gipuzkeraz idatzia zan, jasoagua zalakuan.

Kantuen armonizaziñorako abiapuntuak antzerakuak izan dira. J.L. Perez Sarasketaren taldiak, Enrike Monterok batez be, egindako lana jaso dogu, baitta liburuetako partiturak be. Azkenik bildutako grabaziñuetako kantuak armonizatzia ekin detsagu. Horretarako armonizaziño orokor eta oiñarrizkua erabilli da, melodixak ulerterrazago egittiarren. Doiñu esparrua nahiko zabala da, koplak, tanguak, habanerak, tradizio kantuak eta pasodobliak, bestiak beste, tartekatu diralarik.

Liburuaren bukaeran kantuen inguruko jakingarri eta kontuak bildu doguz, halan kantuen bitartez gure herriko pasadizo eta pertsonaixak ezagutzen lagunzeko asmoz.

Kantu batzaillia: Mikel Sangroniz

Kantu armonizatzailia: Mireia Otzerinjauregi.

## 1. ARRATEGO KANTUTEGIXA

1. Arrateko zelaiko (1)
2. Arrateko zelaiko (2)
3. O hau egunaren alegria
4. Mendian izateko zerua bezela
5. Zelai zabal-zabal
6. Ama birjiña Arrateku
7. Birjiña Arrateko
8. Horren jaiotza eder
9. Aldatza igaro ta
10. Harri artean lore
11. Aintza ta aintza
12. Pozez beterik
13. Agur ene ama
14. Guazen Arratera
15. Agur lagun maiteak

## 2. HERRIKO JAIXETAKO KANTUAK

### GABONETAKO KANTUAK:

16. Harzak, harzak
17. Gabon gabonete
18. Agillando
19. Astelehena, martitzena
20. Gabon gabian
21. Urtebarri
22. Hiru Errege datozi
23. Erregen
24. Erregiak datozi

SANTA AGEDA:

25. Santa Ageda Herrikoia
26. Santa Ageda
27. Ertzilen ustez falta diranak.

ARATOSTIAK:

28. Koko-moko
29. Eguen zuri

SAN JUAN JAIXETAKUA:

30. San Juan kantua

SAN ANDRES:

31. San Andresi gorazarrea

3. UMIEN KANTUAK:

SEHASHAKUAK:

32. Lobatxua lo ta lo
33. Dingilingi-maña
34. Dingilin-dangulun
35. Aska txikian
36. Hasi goiko kaletik

UMETXUAK ALAITZEKO:

37. Txalo-pin-txalo
38. Lehelengotxu hori
39. Atxia-motxia

OROIMENA TA KONTAKETA LANTZEKO:

40. Jolastu gaitezen danok
41. Paradisuko atean
42. Behin joan nitzan merkatura
43. Zenbat diran, hamar diran
44. Egun batian ikusi nuen
45. Ez da gauza erreza
46. Han urriñ etxe poxpola

**BESTELAKUAK:**

- 47. Txantxulario Kamiñok
- 48. Aittitta ta amama
- 49. Asto gaxua
- 50. Agarra ta pinchame
- 51. Txakur famatua
- 52. Hor goiko hariztitxu baten
- 53. Txarri txiki bat

**KATEKESI TA ESKOLAKUAK:**

- 54. Andre Maria
- 55. Goizeko seirak
- 56. Goazen, goazen mendira
- 57. Ya no comeremos pan
- 58. Qué bonito es el colegio
- 59. ¿Sabes mi querido amigo?
- 60. La fiesta de la flor
- 61. Sobre esta cima

**DON POLIREN KANTUAK:**

**GIMNASIAKUAK:**

- 62. Gaztetasunak
- 63. Haurtxo danok alkarturik
- 64. Pozez beterik

**TUBERKULOSUEN PABILLOIA ERAKITZEKO ESKE KANTUAK:**

- 65. Iaz bezela
- 66. Gaixoentzako eskatzen degu
- 67. Loratxuen edertasunak

#### 4. KIROL KANTUAK:

- 68. Txiribiri
- 69. Gallo
- 70. Biribilketa
- 71. Pantalla
- 72. Randas
- 73. Eibarren himnua
- 74. Goazen, goazen guztiok
- 75. Venid al pueblo de Eibar
- 76. Con el cráneo
- 77. Bat eta bi
- 78. Vamos al frontón
- 79. Bizkarrian fardela

#### 5. POLITIKA ETA GERRA KANTUAK:

- 80. Harek ziran garrak eta suak
- 81. Makiña bat kintxal burdiñ
- 82. Si vas al monte Oriamendi
- 83. Beruak, beruak
- 84. Hoy dia 1º de Mayo
- 85. Trabajador
- 86. A aquel que roba un pan
- 87. Esos burgueses
- 88. Millaz gaiñera bederatzirehun
- 89. Ha llegado el día
- 90. Trágala, trágala
- 91. Gerrako gure ibillerak
- 92. Se van los eibarreses
- 93. Glorioso Euskadi
- 94. Eusko gudariak
- 95. Himno de las juventudes socialistas
- 96. España patria querida
- 97. A luchar
- 98. Eibarko Cara al sol
- 99. El treinta de noviembre

- 100. Euskotarrak gara
- 101. Rataplan
- 102. Jeiki-jeiki
- 103. El Liberal

#### 6. ERROMERIXAKO KOPLAK:

- 104. Alzola goiti dago
- 105. Dieciseis años tenía
- 106. Erromeria1
- 107. Erromeria2

#### 7. PERTSONAIERI EGINDAKO KANTUAK ETA HIMNUAK:

- 108. Homenaje a Calbetón
- 109. Muguruzaren omenez
- 110. Jose Antonio Gisasola
- 111. Mendibururen omenaldia
- 112. El Che valiente
- 113. Himno a Eibar
- 114. Pil-pil
- 115. Kerizpeko himnua

#### 8. EIBARKO KALE KANTUAK:

- 116. Kontu barri bat
- 117. Arragueta kalian
- 118. Suite eibartarra
- 119. A mutil kopetillun
- 120. Esaten dute bada
- 121. Eibar tiene su entrada
- 122. Zerutxo
- 123. Hiru gizon ilustre
- 124. Plaentxiatarren iriarena
- 125. Bertso berriak automobil zaharrari
- 126. Petra ta Maria
- 127. Goinen tangua

128. Bart arratsian
129. Han veniro
130. Nere amak pentsatzen zuen
131. Tenemos en Mondragón
132. Intxaurra nuez
133. Eufi, eufi
134. En Eibar se ha formado
135. Maritraposha
136. Ez det esango
137. Ermeren burua
138. Elgeta maleta
139. Mateo Altzu
140. Hamalau oillo dauzkat
141. Maria Titilitaña
142. Oxabia
143. Goaziak Paitxo
144. Sei baso
145. Gaur forjariak
146. Ardurabakuen aeroplanua
147. Eibarko herria
148. Tallarrari zortzikua
149. Aunque ustedes nos ven
150. Afiladoriena

151. Plaentxiko konparsen kantua
152. Las chicas eibarresas
153. A la entrada de Güernika
154. Chinito, ¿qué vendes tú?
155. Ardautxo baltza
156. Mendiko umia naiz ta
157. Agur esanda banua ni
158. Goizetik tabernan
159. Zatozte bada
160. Arraindunena
161. Donostiako herri txikia
162. Tira, tira mutillak
163. Libertadia
164. Antonio y Txurralde
165. Ontzi txiki batian
166. Bizkaixan baztar baten
167. Ez dizut irikiko
168. Duan, duan
169. Gure amama
170. Cuando bailo contigo
171. Ederrena zerala
172. Aurresku
173. Txomin eta Bartolo
174. Juega por mi gallo
175. Ze politak diran
176. Kolore txuri-gorri
177. Hoy en día las mujeres
178. Ladrillo
179. Maitasun tratua Eibarko plazan

## 9. BERTSUAK

- 180. Bertso zaharrak Eibarko festeri
- 181. Eibar langille
- 182. Eibarren egin dute
- 183. Indalecio Sarasketa, "Eibarko Txikiya"
- 184. Aratusteko dantzariak
- 185. Eibarko mendiletaiña gogoangarria
- 186. Arraguetari
- 187. Eibarko mendigoizale gazteari.Ikasi
- 188. Langille ikaslaria
- 189. Kalamuatik bertso berriak
- 190. Eibar euskalduna
- 191. Gallastegi txapeldun
- 192. Gora bihotzak
- 193. Indaleki Ojangurení
- 194. Patxikori kantak

## 10. KANTUXKAK

## 1. ARRATEGO KANTUTEGIXA

1. Arrateko zelaiko (1)
2. Arrateko zelaiko (2)
3. Oi hau egunaren alegria
4. Mendian izateko zerua bezela
5. Zelai zabal-zabal
6. Ama birjiña Arrateku
7. Birjiña Arrateko
8. Horren jaiotza eder
9. Aldatza igaro ta
10. Harri artean lore
11. Aintza ta aintza
12. Pozez beterik
13. Agur ene ama
14. Guazen Arratera
15. Agur lagun maiteak

Arrateko Amaren kantutegixa Euskal Herriko aberatsenetakua da. Guk hemen kantu zaharrenak eta ezagunenak bildu doguz, baiña makiña bat gorazarre eta bertso kanpuan geratu dira.

Arrateko kantutegiaz gehixago jakitteko, ikus V.V.A.A.: Arrate, Centro Unesco de San Sebastián, 1998. Horretaz gain, Juan San Martin, Antzinako Eibar, Ego Ibarra, Eibar, 1993. Eta Izagirre,E.,Lizarralde, M. eta Narbaiza, A.: Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia, Eibarko Udala-Euskara Batzordea,2000.

## **1. ARRATEKO ZELAIKO (1)**

Arrateko zelaiko  
bai floridadea;  
handixek gora dago  
zerura bidea.

Aldatza igaro ta  
zelai landa baten  
Birjiña ta Semia  
atsegin hartutzen.

Lirio berdez jantzirik  
dago Arraten altaria;  
haintzen kantatzen dabe  
ederki Salbia.

Heguak balirade  
argizarizkuak,  
urtuko lituzkela  
eguzki beruak.

Bai eta hausi bere  
ipartxo senduak,  
bai eta hausi bere  
ipartxo senduak.

Zerura noa ni ta  
nork nahi du etorri?  
Orain etorri jataz  
hiru mandatari.

Atzo etorri jataz  
hiru mandatari,  
uso zuri eder bat  
aingeru polit bi.

-Uso zuri ederra  
zeruan ze berri?  
-Zeruan berri onak  
orain eta beti.

-Zer dakazu bada  
zeruko gauzarik?  
-Olibo adartxo bat  
Birjiñak emanik.

-Birjiñak emanik ta  
noizko izentaturik?  
-Erramu egunerako  
bai seiñalaturik.

-Erramu urrin da ta  
igar ez baledi,  
hori igartzen bada  
beste bat ekarri.

-Zeruan asko dagoz  
olibo adarrik,  
olibo adarrik eta  
lirio lorarik.

Lirio lorarik eta  
Santu ta Santarik;  
ez dala igartuko  
zeruko gauzarik.

Aita San Pedro dago  
zeruan giltzari.  
Ai!, Jaunak egin banindu  
giltzaren jabe ni.

Atiak ereteko  
aita neuriari,  
lehenengo aitari ta

hurrengo amari.

Handik eta aurrera  
mundu guztiari,  
handik eta aurrera  
munduko guztiari.

Testu jasotzaillia: Don Poli Larrañaga.  
Doiñua: Aita Donostiak eratutako bost doiñuak

## **2. ARRATEGO ZELAIKO (2)**

Arrateko zelaiko  
bai floridadea;  
handixek gora dago  
zerura bidea.

Nere Ama Birjiña  
kontzesiñokoa,  
arren, mobitu zazu  
neroren gogua...

Zeruko jardin eder  
loraren artian  
egon beharko degu  
egunen batian.

Noiz etorriko ote da  
egun eder hori?  
Bai, etorriko jaku  
orduren batian.

Testu jasotzaillia: Don Poli Larrañaga

### 3. OI HAU EGUNAREN ALEGRIA

Oi hau egunaren alegria  
sortu zana Eibarko lurrian  
Iraillaren zortzigarrenian,  
Birjiña arkitu zebanian  
pastore pobre batek mendian  
ta Arriartian, Arriartian,  
jarririkan,  
Arriartian, Arriartian,  
jetxirik zerutik  
beti izateko, beti izateko,  
gure artian, gure artian.

Hemen, hemen, hemen da arkitzen  
Birjiña txit eder bat Arriarte baten:  
-Señora zertan dago jesarririk hemen  
pekatari tristiak billa banengiye?.

Atozte Arratera jentia  
aldapan bada ere nekia  
adoratzen birjiña santia.  
Izanik bada hau gure jabia  
emango digu bere grazia  
bai alkantzatzeko, alkantzatzeko,  
zerutikan  
alkantzatzeko, alkantzatzeko  
bihar degun guztia,  
baldin bagatz, baldin bagatz,  
umildadiaz, umildadiaz.

Hemen, hemen, hemen da arkitzen....

Nekez heltzen bagera ere hona  
aldapa handi hoietan gora,  
hemen arkitzen degu Ama ona  
gure jabetzat etorri zana  
ezin gehiagoko zoriona  
da Jesusen ama, Jesusen ama.

Testuaren jasotzailla: Don Poli Larrañaga. Mendigoitxi Basarrixan topatua.  
1710eko koplak dira.

#### 4. MENDIAN IZATEKO ZERUA BEZELA

Mendian izateko zerua bezela  
Jesusek esan uben beria zuela,  
Amari esanikan arren zetorrela  
Arriarte batetik Eibar gordetzena.

Zorioneko Arriartia, zorioneko mendia,  
zorionian degu honera etortzia.

Apenas esan zion Birjiña Amari  
etorri behar zuela mundukuegatik,  
erantzun bide zion bihotza idikirik:  
-Guazen Seme maitia, mendira bertatik.

Zorioneko Arriartia, zorioneko mendia,  
zorionian degu honera etortzia.

Ea bada Señora Arriartekua  
eman bihar diguzu betiko gogua  
honera etortzeko..

.....  
magal zabal horretan bizi ohi gazala.

Zorioneko Arriartia, zorioneko mendia,

zorionian degu honera etortzia.

Testuaren jasotzaillia: Don Poli Larrañaga. Mendigoitxi basarrixan topatua.  
1784ko koplak dira.

## 5. ZELAI ZABAL-ZABAL

Zelai zabal-zabal ermita eder Eibarkoan  
nork kantatu alegere ezta faltatzen koruban  
    Ai mendi alegere  
    zorionekua,  
    Jesusek Amarekin  
    beretza egiña  
    zenian jarririan  
    harrien artian  
    agertu izan ziran  
    Eibarko lurrian.

Ematen baditugu  
neke-izerdiak,  
aldapa gogorretan  
ondo penatuak,  
horregatikan ere  
gora heldu ezkero  
konsolatzen gerade  
zelai zabalian.

Konfesatuko degu  
Señora guria  
ezin ukaturikan  
guziok egia,  
Adanen pekatuba  
mantxatu gabia,  
Amaren sabelian  
sortu ziniana.

Jaungoikuaren Ama  
zu izatekotzat  
eskojitu zinduzan  
Aita eternoak;

frutu bedeinkatuba  
zure sabelian  
Jesus gure maitia  
sortuba izan zan.

Mariñel fraka-luze  
Arrate-zaliak,  
hemen etorri dira  
ontziak zeresat,  
itxaso zabalian  
balegoz bezela  
ermitan paratzeko  
bere pozgarritzat.

Obligaturik bada  
guztiok batetan  
eskatu bihar degu  
bihotz guztitikan  
Amak alde batetik,  
libratu daiezala  
tormentu guztitik.

**Batek.** Zelai zabal-zabalian, ermita eder Eibarkoan.

**Guztiok.** Bai ta bai bai ta bai, bai baita bai.

**Batek** Nork kantatu alegere ez da faltatzen koruban.

**Guztiok.** Nork kantatu alegere, ez da faltatzen koruban.

**Batek.** Bai.

**Guztiok.** Bai ta bai.

**Batek.** Bai

**Guztiok.** Bai ta bai; ez da faltatzen koruban

Testu jasotzaillia: Don Poli Larrañaga. Mendigoitxi basarrixan topatua.1785eko kantua.

## **6. AMA BIRJIÑA ARRATEKUA**

Ama Birjiña Arratekua  
arkaitz arteko loria,  
aingeruakin hastera noa  
esaten Ave Maria.

Ama Birjiña Arratekua  
pekatarien Ama,  
zeruko lora ederrez  
jantzirik zaudena;  
graziak ematera  
nator ni Zugana.

Guztiz peligro haundixan  
bizi gerade hemen,  
guardatu gaizuz Ama,  
zerurako, arren,  
gero egon gaitezen  
alkarrekin hantxen.

Zure paraji hau  
prestatu zanian,  
lau pausuan aguro  
zeuk igo zenduan.

Don Polik Iragorriko Jorgeri entzuna.

Doiñua: Don Poli.

## **7. BIRJIÑA ARRATEKO**

Birjiña Arrateko  
Zeruko lorea,  
zuri ta enkarnada,  
graziaz betea.

Arrateko zelaiko  
bai floridadea!  
Hantxe kantetan dabe  
ederki Salbea.

Lirio loraz dago  
Arraten altarea.  
Handixek gora doa  
zerura bidea.

Zerura gura neuke  
zerura boladu  
aingeruak baleidakez  
heguak prestadu.

Testua: Aita Omaetxebarriak argitaratua.

#### 8. HORREN JAIOTZA EDER

Horren jaiotza eder  
mirariz betia,  
dator zelebratzera,  
Birjiña Maria,  
herri askotatikan  
jende txit noblia,  
aldapa haundi hoielan  
harturik nekia.

Ea bada, Birjiña,  
graziaz betia,  
ez beza arren faltatu  
berorren grazia,  
bada zoro bezala  
denpora guztia  
eman degu ofenditzen

.....

.....  
gure huts egitia  
gutziz handiago da  
miserikordia  
honezaz betia  
dudarikan ez degu  
hau alkantzatzia.

Norgana juango gera  
Birjiña amandria  
ofenditu ezkerro  
beroren Semia?  
Horregana ezpada  
bada jibia  
ta Zu pekatarian  
Ama txit maitia

Testua: Don Poli Larrañagak jasoa.

## **9. ALDATZA IGARO TA**

Aldatza igaro ta  
zelai landa baten,  
han dago Jesukristo  
mezia esaten.

San Pedro ta San Paulo  
mezia erasoten,  
hamaika milla aingeru  
koruan kantatzen.

Aita San Frantziskua  
organua joten,  
hamabi apostoluak  
mezia entzuten.

Arraten altarea  
erramuz jantzirik

lirio zuririk eta  
lirio gorririk.

Haintxe kantaten dabe  
Salbea ederki,  
neu bere haraxe noa  
ikasi ahal banegi.

Gabean Salbea ta  
goizean mezia;  
Birjiña Arrateko  
zeruko loria.

Salbeko kantua.

## 10. HARRI ARTEAN LORE

Harri artean lore agertu zerana,  
Gure harri bihotzak  
bihurtu zugana.

Negar dagizun bihotz  
ez usterik galdu,  
jaso begiok gora  
Arrate mendiruntz,  
hangon eguzki izpiak  
malkoak ikutuz,  
negarra lore txuri  
bihurtuko dizu.

Zuri begira daude  
zelai ta gaillurra  
Zuri eguzkirk sortzean  
dizuten agurra,  
Baiña ororen gaindik  
zugana dihoaz  
gure bihotz gaixoen  
maitasun oiñak.

Lore bat erne dakust  
zure aldarean  
margoz apaindutako  
lurrontzi batean,  
Jaunak gorputz hartzian  
Piztu zuen lorea  
Gorde lirain ta txuri  
zure magalean.

Zuri itxasoak ere  
urrundik murmurra,  
zuri, gabaz, illargiak  
arpegi xamurra.

Musika: Juan Bautista Gisasola

## **11. AINTZA TA AINTZA**

Aintza ta aintza  
ama maite maitia,  
Aintza ta aintza  
gure Zaindaria,  
Arrate goian  
harri artian  
azaldutako loria,  
Aintza ta aintza  
Ama maitia.

Guraso zaharren siñismenagaz  
koroi bat degu apaindu  
eibartar danok nahi degulako  
Erregin Bera aitortu  
hortxe betiko, laga nahi degu  
guk guztiok bihotz bana,  
orain da beti izan zaitezen  
gure zaindari ta Ama.

Berbak: Eugenio Urroz.

Doiñua: J.B. Gisasola

## 12. POZEZ BETERIK

Pozez beterik kristau zintzoak  
goazen danok Arratera  
han dadukagun zeruko Ama  
bihotzetik agurtzera.

Arrateko gañean  
izar bat bezala  
guri argi egiten  
dirudi zaudela,  
siñismenean sendo  
bizi gaitezela  
Jesusi erregutzen  
beti ari zera,  
beti ari zera.

Berbak: Jose Ventura (Errebaleko komentuko Bikarixua)

Doiñua: J.B. Gisasola

## 13. AGUR ENE AMA

Agur, Ene Ama,  
Arratetik zatozena!  
Gure herri dana  
Zuregana bihurtzera.

Zure Semean eskerrak  
Iritxi gagizuz;  
Danok zerura jun gaitezen  
Ama egizu.

Agur, agur Ama,  
Gure bihotza zarana!  
Gure herri dana  
Guk dakargu zuregana.

Zure Semean...

Arrateko Ama,  
Gure Amarik onena!  
Gure herri dana  
Hartzu eta zaindu Ama.

Zure semean...

Ama, har gaitzazu!  
Zure umeak gara-ta,  
Gure herri dana  
Zaindu eta gorde Ama.

Zue Semean...

Zure begi horrek  
Itzuli zazuz gugana!  
Gure herri dana  
Bihurtu, arren! zugana.

Zure Semean...

Berbak: Don Poli Larrañaga  
Doiňua: J.B. Gisasola  
R. Eibar, 1959ko abuz.-ira.9.or.

#### 14. GUAZEN ARRATERA

Guazen Arratera  
Amari lagundutzera  
Guazen bihotz guztitik  
Agur laztan bat emotera.

Zure semeak pozet  
Gera guztiok elkartzen,  
Eta gure bihotzak  
Dautsaguz oso eskintzen.

Eibartarrok dakartsugu  
Zuretako bihotz bana,  
Zurekin bizi gaitezen  
Zurekin betiro, Ama.

Baratz lili zuriak  
Maite dittuzu, ene Ama,  
Ta gogo gazte garbiak  
Zuretzat dira onenak.

Zure oiñetan erne,  
Zure kerizpean hazi,  
Izotzak galdu ez nadiñ  
Ama behin ere ez itxi.

Arrateko Ama laztana  
Etzaitez gurekin ahaztu,  
Jesus maitia ikusi daigun  
Zeruan danok egizu.

Egillia: Don Poli Larrañaga.  
R. Eibar, 1989ko abuz,-ira.2.or.

## 15. AGUR LAGUN MAITEAK

Agur, lagun maiteak  
Neska eta mutil,  
Ta hemen neri entzuten  
Zaudetenoi berdiñ.  
Arrateko Ama Birjiñ,  
Zeruko Erregiñ,  
Bertso berri batzuek  
Nahi nituzke egiñ.

Mendian loratxoak  
Zuri eta gorri.  
Nork jarri dizu, Ama  
Koroi eder hori?  
Krabelin bat, krabelin bi  
Arraten hamabi.  
Lorarik ederrena  
Zu duda gaberik.

Zeru zelai beltzean  
Izar bat da ageri,  
Zure buru inguruan  
Bada gehiagorik.

Izartxo bat, izartxo bi  
Arraten hamabi.  
Izarrik ederrena  
Guretzat Zu beti

Pago itzalpe batean  
Harrizko iturri.  
Nork eman dizu, Ama,  
Jantzi apaiñ hori?  
Iturri bat, iturri bi,  
Arraten hamabi.  
Ur garbi nahi duenak  
Eskatu Amari.

Belardi zabalean  
Bildotsak ugari.  
Aurreko zelai hartan  
Gehiagorik dabil.  
Bildostxo bat, bildostxo bi,  
Arraten hamabi.  
Bildotsik politena  
Zure seme hori.

Pago zabal azpian  
Artzai txistulari,  
Nork eman dizu Ama  
Danbolintxo hori?  
Artzaitxo bat, artzaitxo bi,  
Arraten hamabi,  
Txistulari artean  
Zu zara Erregiñ.

Arrateko bidean  
Azitaiñ aldetik  
Harrizko gurutze bat  
Dago antxiñetik.  
Han credo bat, han credo bi  
Nahi dunak hamabi.

Laguna topatzeko  
Ez da gauza hoberik.

Jende mordoa dator  
Bide zabaletik.  
Nork piztu dizu, Ama,  
Kandela apaiñ hori?  
Mordoxka bat, mordoxka bi,  
Arraten hamabi.  
Zu zera gure Ama  
Ta gu zure herri.

Agur, Ama maitea,  
Agur bihotzetik.  
Amaitutzera noa  
Oingo bertso honekin.  
Agur, Ama, agur t'erdi,  
Ez ahaztu gurekin.  
Bihotzaren erdian  
Zaitugu guk beti.

Egillia: Felix Markiegi, "Latsurregi".

## 2. HERRIKO JAIXETAKO KANTUAK

### GABONETAKO KANTUAK:

16. Harzak, harzak
17. Gabon gabonete
18. Agillando
19. Astelehena, martitzena
20. Gabon gabian
21. Urtebarri
22. Hiru Errege datozi
23. Erregen
24. Erregiak datozi

### SANTA AGEDA:

25. Santa Ageda Herrikoia
26. Santa Ageda
27. Ertzilen ustez falta diranak.

### ARATOSTIAK:

28. Koko-moko
29. Eguen zuri

### SAN JUAN JAIXETAKUA:

30. San Juan kantu

### SAN ANDRES:

31. San Andresi gorazarrea

Jaixetako kantu tradizional gehixenak gabon ingurukuak dira. Honek kantuok Eibarren evezik inguruko herrixetan be antzera kantatzen ziran.

Euskal Herriko toki askotan Olentzeroren inguruko antxiñako kantuak badagoz be, Eibarren ez dogu halakorik topatu.

Santa Ageda bezperan kantatzeko ohitura be oso zabalduta eguna, Agiñagako San Romanen batez be. Alkatiaren eta parrokuaren baimena bihar izaten zeben kantuan aritzeko.

Aratostietan koadrillek kantu barrixak sortzen zittuen urtero-urtero, baiña horrek kantuok gero kale giruan kantatzen ziranez urtietan zihar, Eibarko kale kantuuen atalian sartu doguz.

Beraz, atal honetan eguen zuri eguneko kantu tradizional bi sartu dittuguz.

## **16. HARZAK, HARZAK**

Harzak, harzak mutil pitxer erdi ardau  
guazen poliki poliki etxera  
Gabon gaba zelebratzera  
aitaren da amaren onduan  
ikusiko dek ama barrez da  
aita ere bai txit kontentuz.  
Baita nik ere zelango tragua  
lehelengo esanda Jesus...  
lehelengo esanda Jesus...  
Bixigu erriaren hazurra ondo txupatuko dogu.

Eragixok mutil, eragixok mutil  
aurreko danboliñ horri  
gaztaiñak erre artian,  
gaztañak erre artian  
tirrin-tarran, tirrin-tarran  
plin, plaun, plust!  
Pasau deigun Gabon gaba kontentuz...  
pasau deigun Gabon gaba kontentuz.

Barriemoillia: Juanito San Martin.

## **17. GABON GABONETE**

Gabon Gabonete  
erez errezete  
Jesus jaio da ta  
jo daigun krixkete.  
Kris-kris, kris-kris.

Barriemoillia: Juanito San Martin

## 18. AGILLANDO

Agillando, agillando,  
bizkaitarrak Durangon,  
zazpi gaztain da zortzi intxaur.  
Aingeruak gara,  
zerutik gatoz,  
\*boltzia badogu, baiña  
eskian gatoz.

\*Una limosnita  
Por amor de Dios.

Barriemoillia: Juanito San Martin

## **19. ASTELEHENNA, MARTITZENA**

Astelehena, martitzena,  
eguaztenian,  
zozuak kantatzen dau  
Manueltxonian.  
Ogixa jan ta hil,  
artua jan ta piztu,  
bibia Manuel txistu!

Barriemoilliak: Juanito San Martin eta Ernesto Gorosabel  
Manueltxo Jesus Haurrari esaten jakon.

## 20. GABON GABIAN

Gabon gabian ohittutzen dogu  
Guztiok afari ona,  
Bixigu, lebatz,makillau saltsan  
Bakotxak berak ahal duna,  
Gero txurrun-plin-plat  
Ardaua eta pattarra,  
\*Katuak hartu ta  
Zabu-zabuka.

\*Katuak= mozkorra

Barriemoilliak: Margarita Murgizu eta Maritxu Gantxegi.

## **21. URTEBARRI**

Urtebarri eguna  
ezta egun txarra:  
kortara jausi jaku  
gure zapai zaharra .

Urte Barria hastian kalez kale kantatzen zan.  
Gaur egunian be oso zabaldua.

Urtebarri, barri  
txarri belarri,  
daukanak ez daukanari  
zaria bete madari.

Baserriz baserri mutikuak eskian. Zaria saskia edo otzara da.  
Barriemoillia: Juanito San Martin

## **22. HIRU ERREGE DATOZ**

Hiru errege datozi  
Oroien artetik:  
Meltxor eta Kaxpar  
Bidian azkar-azkar.  
Baltasar Errege  
Han zan hura bere;  
Erregien Errege  
Bisittatzera.

\*Oriente aldetik izan leike.  
Eibarren gaur egun galdua. Manuel Lekuonari esker gorde da.  
Ikus Anuario de Eusko Folklore, 1930,144 orr.

## **23. ERREGEN**

Erregen, Erregen,  
Mari montaña,  
zazpi intxaur ta zortzi gaztaiña.  
Euren gaiñian lau sagar

Atsuak altzua zabal-zabal.

Barriemoilliak: Juanito San Martin eta Isabel Irulegi.

#### 24. ERREGIAK DATOZ

Erregiak datozi  
etxe honetara  
ikatza erostera  
txanpon batena.

Ate txokoan  
Oillar bi  
Batak bestia  
Dirudi.

Etxe hontako  
Etxeko andriak  
Ama Birjiña  
Dirudi.

Ama Birjiña!  
Ama Birjiña!  
Zu zera  
Zeruko erregiña!

Barriemoilliak: Margarita Murgizu eta Maritxu Gantxegi.

#### 25. SANTA AGEDA HERRIKOIA

Santa Ageda, Ageda  
Bihar da Santa Ageda,  
Bihar da Santa Ageda eta  
Gaur da bezpera gaua.

Bihar da Santa Ageda,  
Gaur tantaiarekin gera,  
Libertadia gurekin degu

Ibilitzeko bakian.

Santa Iageda, Iageda  
Bixar da Santa Iageda,  
Lotsa gerala etorri gera  
Jauna beroren aurrera.

Bedeinkatua izan dadilla  
Etxe hontako jendia  
Pobre ta umillak izan arren  
Badake borondatia.

Lekamendi ta Bolingo  
Erdi–erdixan Katalan,  
Etxe txikiak ei dira baiño  
Hamen badago zer eman.

Etxe hontako nagusi jaunak  
Urre gorriz du bizarra,  
Urre gorriz du bizarra eta  
Zidar labraduz espalda.

Boltsan daraukaz diru bi  
Batak bestia diruri.  
Etxe hontako dama gaztiak  
Krabelintxua diruri.

Etxe hontako etxeko andria  
Leku oneko alaba,  
Bidian esaten etorri gera  
Limosnagillia zerala.

Hor goixan dago hagia  
Lukainkaz bete-betia,  
Lukainkatxo bat emonagatik  
Ez da hustuko hagia.

Etxeko andra mondongo  
Hik ez don asko emongo,  
Hik emondako lukainkiakin  
Ez gaittun asko beteko.

Etxe hontako "Margaritia"  
Etxekoandre bikaiña,  
Berak bakarrik balio du ta  
Hamar "emakumek" aiña.

Kura-parroko mondongo  
hik ez dok asko emongo,  
hik emondako limosniakin  
ez juagu asko edango.

\* Bildutako koplak batu eta "popurri" bat egin dogu.

## 26. SANTA AGEDA

Gabon etxeko nagusi ta txiki  
zahar eta gazte batera  
Alkate Jaunan baimenaz gatoz  
Zueri agur eittera,  
Lehenauko zaharren antzera  
Bagatoz zeuen etxera  
Santa Agedaren gorazpen aintzak  
Euskeraz abestutera.

Eibarren dagoz gauza ederrak  
oso ederki egiñak:  
izkillu-olak, gizon haundiak  
mutil indartsu gordiñak;  
andra eder ta bikañak  
neskatxa politt apañak,  
udabarriko lili ta lora  
diran lakoxe berdiñak.

Hill arteraño Jaungoikozale  
garbi-garbia izan zan,  
orbandu gura ez ebalako  
bularrak ebai eutsezan;  
ziñopa eginda hil zan;  
orain dago zeruetan.  
Bere antzeko garbizaliak  
gu ere izan gaitezan.

Eibar euskaldun herri maittiau  
ospetsua da benetan,  
bertako seme jator zintzuak  
daukaguz goien munduan.  
Pelotarien artian  
Migel dogu gaillurrian:  
Pozez beterik ikusten dogu  
mutill hau gure herrian.

Zorioneko izango al da  
Etxe hau beti-betiko;  
bizi garen arte guzian  
dogu goguan eukiko,  
Maitagarria dalako  
ta orain belatu orduko,  
Agur! egiñik amaitzen goiaz  
Beste batera juateko.

Egillia: Kepa Enbeita "Urretxindorra".

## 27. ERTZILEN ARABERA FALTA DIRANAK:

Eibar euskaldun herri maite hau  
Ospetsua da benetan:  
Izkillu edo armagiñan gaur  
Goienengua Europan.  
Hau ez diñogu olgetan,  
Ezpada ziur benetan;  
Egia da ta eibartar danok

Benetan poztu gaitezan.

Goraldu daigun danok batera  
Eibarko alkate jauna,  
Berau dalako herri ta erbeste  
Askok be ontzat daukate.  
Bihotz oneko gizona,  
Zintzua eta zuzena,  
Opa deutsagu orain ta gero  
Bakiagaz osasuna.

Etxeko andre maitagarria  
Eta zeu zertan ari zara?  
Eskupeko hori luzatuko zu  
Baldin lehengua bazara.  
Plazentziagaz Bergara,  
Nagusi jauna zeu zara;  
Bidian esaten etorri gara,  
Gizon on bat zariela.

R. Eibar, 1996ko Sanjuanak, 6. orr.

#### 28. KOKO - MOKO

Koko-moko  
Zaria bete moko,  
Gibel-gibel  
Afaritarako,  
Dirua baneuka  
Patrikarako.

Barriemoillia: Rosario Alzerreka.

#### 29. EGUEN ZURI

Eguen Zuri eguna,  
Jaungoikuak berak egiña  
Eskola-mutillak ibilteko  
Limosna on baten billa.  
Hor goian, goian goldia  
Haren gaiñian belia  
Etxe hontako nagusi jauna  
Nekazari langillia.

Santu hau bittartez dala  
Ezin izango okerrik,  
Orain bagoaz hemendik eta  
Agur danori egijñik.

Emongo bozu emoizu,  
Bestela ezetz esaizu,  
Ate ondoko haizia hartzen  
Amak ez gaittu bialdu.

Barriemoillia: Juanito San Martin.

### 30. **SAN JUAN SOÑUA**

Egun zoragarri hau heldu da berriz.  
Pozan pozet bihotzak beterik.

Mendietako baserriean  
kaleko plaza danetan  
San Juan suak piztutzen dira  
Gau zoragarri honetan.

Hau da eguna zoragarria  
kontsolatzeko mundu guztia.

Ez da iñun gizonik  
San Juan dan baizen  
Oso goitar ta haundirik  
Arkitzen.

Hau da eguna zoragarria  
kontsolatzeko mundu guztia

Amagandik iñoiiz jaio da gizona  
ez dago zeruan halakorik.

Ama semeagandik  
zu jaio ziñan  
mirariz beterik donian.

Poztu gizonak, abestu herriak  
San Juanen egun miragarrian.

Igaz ere San Juan zan, eta  
aurten ere San Juan Bautista.

Mendietako baserrietan....

### **31. EIBARKO ZAINDARI ANDRES DONEARI ERESERKIA**

Ospatu zagun Andres Donea  
ospatu zagun benetan  
lagun deiola gure herriari  
premi eta beharretan.

Izan dadilla gure zaindari  
gizaldi ta gizaldietan,  
gero betiko bere ondoan  
izateko zeruetan.

Hiru urtean ibilli ondoren  
Jesusekin bat lanean  
Ebanjelioa zabaldutzea  
Eratu zaio akaian.  
Hantxe bizia Kristoren alde  
Ejearen aginpean  
kementsu ematen ikusten degu  
gurutze gogor batean.

Doiñua: Tomas Garbizu  
Berkak: Miguel Lasa

**3. UMIEN KANTUAK:**

**SEHASKAKUAK:**

- 32. Lobatxua lo ta lo
- 33. Dingilingi-maña
- 34. Dingilin-dangulun
- 35. Aska txikian
- 36. Hasi goiko kaletik

**UMETXUAK ALAITZEKO:**

- 37. Txalo-pin-txalo
- 38. Lehelengotxu hori
- 39. Atxia-motxia

**OROIMENA TA KONTAKETA LANTZEKO:**

- 40. Jolastu gaitezen danok
- 41. Paradisuko atean
- 42. Behin joan nitzan merkatura
- 43. Zenbat diran, hamar diran
- 44. Egun batian ikusi nuen
- 45. Ez da gauza erreza
- 46. Han urriñ etxe poxpola

**BESTELAKUAK:**

- 47. Txantxulario Kamiñok
- 48. Aittitta ta amama
- 49. Asto gaxua
- 50. Agarra ta pinchame
- 51. Txakur famatua
- 52. Hor goiko hariztitxu baten
- 53. Txarri txiki bat

**KATEKESI TA ESKOLAKUAK:**

- 54. Andre Maria
- 55. Goizeko seirak
- 56. Goazen, goazen mendira
- 57. Ya no comeremos pan

58. Qué bonito es el colegio
59. ¿Sabes mi querido amigo?
60. La fiesta de la flor
61. Sobre esta cima

DON POLIREN KANTUAK:

GIMNASIAKUAK:

62. Gaztetasunak
  63. Haurtxo danok alkarturik
  64. Pozez beterik
- TUBERKULOSUEN PABILLOIA ERAKITZEKO ESKE KANTUAK:
65. Iaz bezela
  66. Gaixoentzako eskatzen degu
  67. Loratxuen edertasunak

Ba al dago gauza ederragorik, sehaska kulunkatuz, umiari kantuan ari jakon ama edo amandriari entzutia baiño?

Begira sasoi batian zenbat kantu eder egitten zan gure herrixan; batzuk tradiziozkuak, bestiak katekesietan edo eskolan ikasittakuak. Gaixak danetarikuak: umetxuari lo eragiteko, jolastxuak egitteko, hitz jokuak, animalixak barra-barra, kristautasuna, lora eta arbolean egunak, eske kantuak...Orainguan be Don Poli aipatu bihar dogu, Arrateko Amaren alde lan haundixa egin bazeban be, ez zan txikixagua izan umien alde egindakua, eta gaiñera euskaraz. Gaixuen alde be jo ta ke ibilli zan. Kanpuan geratu dira bere antzerki eta operetako kantuak.

Kantuxkak atalian umien jolasetako kanta gehixago ageri dira.

### 32. LOBATXUA LO TA LO

Lobatxua lo ta lo  
orain zeuk eta nik gero  
zeuk gura dozun ordu batian  
biok egingo dogu lo.

### 33. DINGILIN-DINGILIN MAÑA

Dingilin-dingilin maña  
Bihar Santa Maña\*  
Etzi Domunu Santu  
Gure umia zuluan sartu.

Aitta dolerez,  
Ama negarrez,

Abadia kantuan  
Errialen pozez.

Salamankara baniñoiala  
Bidian nuen pentsatu  
Estudiante tunante baiño  
Hoba nebala ezkondu.

Ezkondu nitzan ba; ezkondu nitzan  
Bai niri ondo damutu...  
Praka beltzetan hari txurixa  
Etxat geroztik faltatu.

Santa Lua,Santa Lua  
Santa Lu ermitaňua!  
Gure umiari eragixozu  
Ordu-bi-terdiko lua.

\*Santamaña, Santa Marina, bere ermita Zaldibarrerako bidian dago.  
Barriemoilliak: Mariasun Angera eta Juanito San Martin.

#### 34. DINGILIN-DANGULUN

Dingilin-dangulun eragidazu  
Laster hasiko nazaizu,  
Laster hasi-ta ongi lagundu  
Mesede izango dezu.

Dingilin-dangulun eragiozu,  
Iñure Gollibarkua,  
Lotxua lo egizu eta  
Biok jango dogu ollua!

Dingilin-dangulun eragidazu  
laster lotarako nazu  
hara ta are lastertxuago  
lepuan banarabixu.

Batzailia: J.S. Martin, T. Etxebarria eta "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak."

#### 35. ASKA TXIKIAN

Aska txikian umia dago  
Ama emaiozu titia,  
Aitta mozkorra tabernan dago  
Pikaro jokularia.

Barriemoillia: Paz Gisasola

### 36. HASI GOIKO KALETIK

Hasi goiko kaletik beheko kaleraíño  
Ez dago ederragorik gure Unaitxo baiño.  
Unaitxo gure laztana, ez egin lorik basuan,  
Azeritxuak eruan ez zaitzan bildotsa zarialakuan.

Barriemoillia: Juanito San Martin.

### 37. ATXIA MOTXIA

Atxia motxia perolipan  
Nere semea errotan  
errotara nindoiala  
topau neban asto bat,  
kendu netsan buztan bat,  
ipiñi netsan beste bat:  
errota txikiak klin-klan.

Atxia motxia perolipan,  
Nere semea errekan;  
Errekara nindoiala  
Topau neban erbi bat,  
Kendu netsan begi bat,  
Ipiñi netsan berri bat:  
Erreka txikiak plist-plast.

Barriemoillia: Juanito San Martin

### 38. TXALO PIN TXALO

Txalo-pin txalo  
Txalotxo txalo  
Katutxua mispilla  
gaiñian dago  
Badago, bego,  
bego, badago,  
Zapatatxo barrieri  
begira dago.

Barriemoillia: Juanito San Martin

### 39. LEHELENGOTXU HORI

Lehelengotxu hori, punta bihatz hori,  
Beste guztien artian txikixa don hori.  
Laralalala-laranlaralalera,  
Laralalala-laranlaralala.

Bigarrentxu hori, punta bihatz hori,  
Beste guztien artian nagixa don hori.  
Laralalala.....

Hirugarentxu hori, punta bihatz hori,  
Beste guztien artian luzia don hori.  
Laralalala.....

Laugarrentxu hori, punta bihatz hori,  
Beste guztien artian bixkorra don hori.  
Laralalala.....

Bosgarrentxu hori, punta bihatz hori,  
Beste guztien artian lodixa don hori.  
Laralalala.....

Barriemoillia: Maritxu Gantxegi.

### 40. JOLASTU GAITEZEN DANOK

Jolastu gaitezen danok soka jokoan,  
Soka jokoan,soka jokoan  
Haurtxo euskaldunari dagokion eran  
Dagokion eran, eusko hutsean.  
Bat eta bi, hiru, lau eta bost  
Hamar gehiagokin dira hamabost.

Bikoak ugari egiñaz alai gabiltza,  
Alai gabiltza, alai gabiltza,  
Euskera entzunez beti jolas guztitan  
Jolas guztitan, une danetan.  
Bat eta bi, hiru, lau eta bost  
Hogeい gehiagokin dira hogeita bost.

Nik baiño biko gehiago eiten baituzu,  
Eiten baituzu,eiten baituzu,  
Marama apain polit bat izango dezu,  
Izango dezu, erosten badezu.  
Bat eta bi, hiru, lau eta bost  
Ehun gehiagokin dira ehun da bost.

Barriemoillia: Maritxu Gantxegi.

Doiñua:" Neska zaharrak joaten dira Madalenara". Gerraurreko katekesietan ikasittakua.

## 41. PARADISUKO ATEAN

Paradisuko atean  
Abere danak batean.  
Pozet zebiltzan beren izenak  
Adanengandik hartzean,  
Paradisuko atean,  
Abere danak batean.

-Ia orain kukurruku,  
Zuk izena nola dezu?  
-esango dizut berehalaxe,  
oillarra esan didazu.  
-Ondo dago kukurruku,  
zuk izena horla dezu.

-Nola da, berriz, zurea?  
Kurrin-kurrrinka nerea.  
-Esango diot berehalaxe  
Neria, jauna, urdea.  
-Ondo dago jaun urdea  
horrelaxe da zurea.

-Etorri hona kakari,  
nola esan dizut nik zuri?  
-Esango dizut berehalaxe,  
oilloa esan dit neri.  
-Ondo dago kakakari  
horlaxe esan dizut zuri.

-Ea zu lepo-gizena  
Nola da zure izena?  
-Esango diot berehalaxe,  
neria esan dit zezena.  
-Ondo da lepo-gizena,  
horla da zure izena.

-Esne ta adardun gurea  
nola dezu zuk zurea?  
-Esango diot berehalaxe,  
behia da, Jauna, nerea,  
-Esne ta adardun gurea,  
horla dezu zuk zurea.

-Belarriluze mukitzu  
Zuk izena nola dezu?  
-Ai neri jauna, ahaztu, ahaztu.  
Ahaztu egin zait, barkatu.  
-Ondo dago jaun mukitzu  
Astua zera gaurtik zu.

Paradisuko atean....

Barriemoilliak: Margarita Murgizu eta Maritxu Gantxegi.  
Aita Labordak katekesian irakatsia.

#### 42. BEHIN JOAN NINTZAN MERKATURA

Behin joan nitzan merkatura  
Erosi neban txori txiki bat,  
Txori txiki horrek txiruliruli  
Ai zer gaba pasa neban nik!

Behin joan nitzan merkatura  
Erosi neban txarri txiki bat  
Txarri txiki horrek kurrink-kurrink-kurrink,  
Txori txiki horrek txiruliruli,  
Ai zer gaba pasa neban nik!

Behin joan nitzan merkatura  
Erosi neban katu txiki bat.  
Katu txiki horrek miau-miau-miau,  
Txarri txiki horrek kurrink-kurrink-kurrink,  
Txori txiki horrek txiruliruli,  
Ai zer gaba pasa neban nik!

Behin joan nitzan merkatura  
Erosi neban txakur txiki bat,  
Txakur txiki horrek txau-txau-txau,  
Katu txiki horrek miau-miau-miau,  
Txarri txiki horrek kurrink-kurrink-kurrink  
Txori txiki horrek txiruliruli,  
Ai zer gaba pasa neban nik!

Barriemoilliak: Margarita Murgizu eta Dolores Tolosa.  
Katekesian ikasittakua.

#### 43. ZENBAT DIRAN HAMAR DIRAN

Zenbat diran hamar diran  
Zenbat diran ikusi,  
Oillua kakaritzen dago  
Oillarra hari ikasten,  
Txakurtxua josten eta  
Arratoitxua labretan,  
Txindurrixia barriketan,  
Kakalardua ametsetan,  
eperra nabotan,  
idixa dantzan,  
astua danbolin joten,  
honen erdi-erdian  
zorrixa barrez ittotzen.

Batzaillia: Aita Donostia. Maritxu Bergaretxeri jaso zetsan.

#### 44. EGUN BATIAN

Egun batian ikusi nuen  
Tximutxa gitarra jotzen,  
Haren onduan txoraturikan  
Arkakusua dantzatzen,  
Eltxua,berriz, dotore jantzitta  
Errepreskuak serbitzen,  
Haien onduan bi zorri haundi  
Barrez eztulka ittotzen.

Barriemoillia: Salvador Marzana.

#### 45. EZ DA GAUZA ERREZA

Ez da gauza erreza  
Kiri-kiri-ken, kiri-kiri-ken  
Ez da gauza erreza  
Ama gezurtatzen,

Kiri-kiri kendu,  
Dena jakiten du,  
Kiri-kiriki  
Zelan badakik?..  
Kiri-kiriko,ko-ko-ko  
Hatz txikiñak esaten dio,  
Kiri-kiriko, ko-ko-ko  
Dan-dan-dana esaten dio.

Eskola igesi  
Kiri-kirikaiz, kiri-kirikaiz,  
Eskola igesi,  
Hortik joaten banaiz,

Kiri-kiri kendu  
Dena jakiten du...

Eztia ontzitik  
Kiri-kiriket,kiri-kiriket  
Eztia ontzitik  
Hatzaz osten badet,

Kiri-kiri kendu  
Dena jakiten du.....

Kaiera igari  
Kiri-kiriket, kiri-kiriket  
Kaiera igari  
Ihes eiten badet,

Kiri-kiri kendu  
Dena jakiten du...

Otoitzak eiteke  
Kiri-kiriken, kiri-kiriken,  
Otoitzak eiteke  
Banaiz lotaratzen

Kiri-kiri kendu  
Dena jakiten du...

Mutillok burrukan  
Kiri-kirika, kiri-kirika,  
Mutillok burrukan  
Ibiltzen bagara,

Kiri-kiri kendu  
Dena jakiten du...

Barriemoillia: Maritxu Gantxegi.  
Don Felix Markiegirekin katekesian ikasittakua.

#### 46. HAN URRIÑ ETXE POXPOLA

Han urriñ etxe poxpola, ola, ola,  
Tximiñitik gora kea dariola, ola, ola,  
Gaintxoan arbola, zelai erdian  
Erreka pol-pola etxe atarian,  
Tralala, tara, tralala  
Dana txiki-txiki-txikia horra.

Jo atetxoko txiliña, ola, ola  
Sutonduan kuzkur lo-lotan mitxiña, ola, ola  
Sutan danboliña gaztaiñ erretzen,  
Lapikua gal-gal babak egosten  
Tralala.....

Badator etxeko andrea, ola, ola  
Begitxoak ñir-ñir, ahoan irria, ola, ola  
Zuri-zuri illea ta burzapia,  
Zuri-gorri umea jaio berria  
Tralala....

Magaltxoan estutzen du, ola, ola  
Urrumakatzen du, urrumakatzen du, ola, ola  
Gure txikitxo egizu lo-lo,  
Lo-lo txikitxo bat apapa gero  
Tralala.....

Barriemoilliak: Margarita Murgizu eta Maritxu Gantxegi.  
Aitta Labordak katekesian irakatsia.

## 47. TXANTXULARIO KAMIÑOK

Txantxulario Kamiñok  
Ez dauka dirurik,  
Hiru alaba dittu  
Ezkondu gurarik.  
Laugarrena semia,  
Kapote zaharrakin,  
Konejua dirudi  
Bere bizarrankin.

Barriemoilliak: Juanito San Martin eta Eugeni Ubera.

## 48. AITTITTA TA AMAMA

Aittitta ta amama  
Egurretan ziran  
aizkoria galdu ta  
hasarratu ziran.

Aittittak amamari  
Kopetatik tira!  
Amamak aittittari  
Praketatik tira!

Barriemoillia: Juanito San Martin.

## 49. ASTO GAXUA

Al ikullu ya no vuelve  
Mi buen astua, no vuelve no;  
Ya no brinca de poxa  
Cuando cabeza tocar alguno;  
Arrayua suerte txarra  
Con tripako miña poner hizo.

Bihotzeko asto gaxua  
Malkos tiraba cuando murió.

Y agora te hace dos años  
Juxtu-juxtuak ayer cumplió  
Que las tripako miñas  
Al pobre burro le agarró,  
Con su arrantza fuerte  
Una noche me despertó.

Bihotzeko...

Levantarme enseguida  
Y al ikullu marché yo

Con ojos de bixigu triste  
Como hablando mirar hizo,  
Echaba unos suspiriyas  
De muy adentro se le salió.

Bihotzeko...

Estirar la pata  
Como harrikoskorra se endureció  
Y yo con mucha pena  
Le dije: Asto gaxua adiós.  
Hacer un abujero grande  
Y tierra encima le puse yo.

Bihotzeko...

Barriemoilliak: M. Angera, J. Arrieta eta D. Tolosa.

#### 50. AGARRA TA PINCHAME

Agarra ta pinchame  
Tiene un conejo,  
Txikixa dala baiña  
Se pone tieso.  
Hasta los gatos  
Usan sombrero  
Y los ratones  
Chaqueta y pantalones.

Barriemoillia: Laura Gorrotxategi. Aittari ikasitakua.

#### 51. TXAKUR FAMATUA

Txakur famatua da  
Izena du Blanco  
Ez dauka mingaiñarik  
Artuak jateko.  
Egunian bi libra  
Emon balitzakoz  
Puskarikan ez zuen  
Jan barik utziko.

Artuakin bakarrik  
ez dala kontentu  
auzora juan eta  
oilluak jan ditu;

janaririk onenak  
ezagutzen ditu  
arrautzak beretzako  
billatzen baditu.

Bildots bat auzuān da  
Beste bi etxian,  
Hirurak jan zittuan  
Denbora gutxian;  
Gaiñera ardiari  
Segitu atzian,  
Gaizki egiten zuanik  
Berak etzekian.

San Prudentzio eguna  
Zelebratu zuan  
Bakillaua genduan  
Beratzen pozuan,  
Gu akordatu gabe  
Guztia jan zuan,  
Kazara juan gabe  
Peskan egin zuan.

Barriemoilliak: Joakin Gorrotxategi eta Eugeni Ubara

## 52. HOR GOIKO HARIZTITXU BATEN

Hor goiko hariztitxu baten,  
Kukuak umiak egin dittu aurten.  
Kukuak egin da amilotxak jan,  
Hori gure kukuaren zoritzarra zan.

Barriemoillia: Juanito San Martin

## 53. TXARRI TXIKI BAT EROSI NEBAN

Txarri txiki bat erosi neban  
Bizimoduan sartzeko;  
Hiru pezeta pagatu neban  
Jenero ona zalako.  
Ate zulotik irten zirautan,  
Ez det ikusi gehiago.

Aita Donostiak bildutako kantua. Juanito Gisasolak kantau zetsan 1919xan. Iraegi bere osabiarri ikasi zetsan.

#### 54. ANDRE MARIA ERREGIÑA

Andre Maria erregiña  
Kaiolan dago txoriña,  
Txiu-txiuka alaitzen ditu  
Bai ekaitzaren ortotsa  
Bai bihotzaren mingotsa,  
Andre Maria erregiña.

Berriemoillia: M. Murgizu

#### 55. GOIZEKO SEIRAK DIRA

Goizeko seirak dira  
Jaikitzeo ordua da  
Eguzkia badator  
Dana argi ta dana poz.  
Jaiki zaite goizago  
Lan erdia egiña dago,  
Ogezulo, ogezulo  
Beti beti zaude zu lo  
Ez dakik egunsentian  
Zein pozgarri dan argia?  
Hor nun dagon Bartolo  
Gau ta egun beti lo.  
Egon bai, dagola  
Da gu jan da gu aberats.

Barriemoillia: M. Gantxegi. Gerra aurreko katekesian ikasittakua.

#### 56. GOAZEN GOAZEN MENDIRA

Goazen, goazen mendira,  
Goazen hegaz mendi gaiñera,  
Hantxen gure gogoak  
Gorutz bihurtuko dira.  
Goazen, lagun laztana,  
Osasungarri da mendia ta  
Poza ta atsegienza lagun ditugula.

Bizkor-bizkor, ariñ-ariñ  
Aingeruak bezela,  
Igo deigun neke gabe  
Zelai gaiñetara.

Goazen, goazen mendira,  
Jun gaitezen gero Donokira\*.

\*Zerura

Barriemoillia. M. Gantxegi. Mercedes Kareagarekin ikasittakua.

#### 57. YA NO COMEREMOS PAN

Ya no comeremos pan  
En las colonias de Arrate  
Ya no comeremos pan  
Porque nos vamos a marchar.  
Después de estar alegres  
Venimos licenciados,  
A ver a nuestros padres  
Parientes y hermanos,  
Después de estar alegres  
Venimos al ver  
Que somos licenciados  
De Arrate.

Para mi hermano  
Le traigo una esquela,  
Para mi hermana  
Un pañuelo de seda,  
Para mis padres  
Les voy a regalar  
Txin-pum-fuego  
Un beso y un abrazo  
Para nunca separar,  
¡Jamas!

Barriemoilliak: J. Arrieta, M. Murgizu, D. Tolosa, Justina Orozko, Julia eta Luzia Larreategi.

#### 58. QUE BONITO ES EL COLEGIO

Qué bonito es el colegio  
Visto desde un aeroplano,  
Qué bonito es ver caer  
Una bomba sobre él  
Que lo deje todo plano.  
Y la madre María Asunta  
Siempre nos repite igual,  
Señoritas, señoritas  
Que las voy a castigar.

Barriemoillia: Aurora Albeniz.  
Aldatzekuen kantu.

#### 59. ¿SABES MI QUERIDO AMIGO?

¿Sabes mi querido amigo  
donde está la alegría?  
En el alto de Isasi,  
En la Escuela de Armería.

Nos enseñan a limar,  
Nos enseñan geometría,  
Y un manco de la legión  
Nos enseña la instrucción.

Barriemoillia: Jose Mari Kruzeta

#### 60. LA FIESTA DE LA FLOR

La flor que embellece a la planta  
Como la virtud al hombre,  
Delicados en las flores  
Y la pureza del alma.  
Mirar la rosa fragante y pura,  
Ver el jacinto de suave olor,  
Nos causa pena ver maltratadas  
Flores tan bellas que Dios creó.

Barriemoillia. Paz Gisasola  
Doña Petrak eta Doña Apoloniak eskolan irakatsitakua. 1915 inguruan.

#### 61. SOBRE ESTA CIMA

Sobre esta cima que solo era  
Por techo el cielo, por fondo el mar,  
A la amorosa madre natura  
Hacemos todos fecundo altar.  
Que de este tierno y frágil arbusto  
Que nuestras manos van a ofrecer  
Y de la sombra que será un día  
Bosque aromoso y fresco vergel.

Barriemoillia: Paz Gisasola.  
Fiesta del arbol egunian kantatutakua. Hau be 1915 ingurukua izango da.

#### 62. GAZTETASUNA

Gaztetasunak eta garbitasunak  
Dute laguna zoriontasuna.  
Zuzenak diralako geure buruko asmoak  
aurpegia barria, barruan berriz  
bihotz alaia ipintzen digu Jainkoak.  
Trainlara-lara

Don Poliren kantuen barriemoilliak: M. Murgizu, D. Tolosa, M. Gantxegi, Juanita Arrieta, Julia eta Luzia Larreategi, Pepita Mendikute, M.A. Zulaika, Teresa Mendiguren, Antonina Etxebarria, Marina Bazterra, Pilar Hernando, J. Kareaga eta R. Alzerreka.

### 63. HAURTXO DANOK ALKARTURIK

Haurtxo danok alkarturik  
Jolastutzera orain goaz, bai!.  
Zoriontasuna ta poztasuna  
Lagun degula.  
Txori politak bezain ederki  
Abestuaz, alaituaz.  
Zabaltzia nahi genduke  
Zeueri gure poztasuna,  
Bihotz guztiak beterik  
Pozez ta atsegiñez.  
-Nahi badezute, -guk behintzat bai,  
-jolas honetan, -horixe bai  
Alkarturik jolas daigun.  
Nahi badezute, -guk behintzat bai.  
-abestietan, -horixe bai  
alkarturik abes deigun.

### 64. POZEZ BETERIK

Pozez beterik kantatzen  
baita ere dantzatzen  
atsegiña zabaltzen  
nahi degu izan bizitzen.  
Ez bihotz gogorrik  
ez iñor gaiztorik  
ez degu nahi ez  
gorrotogarririk.

Abestu beldur gabe,  
Abestu bihotzetik  
Aurkitzen geralako  
Zeruko ama birjiñak  
Gorderik.

### 65. IAZ BEZELA

Iaz bezela aurten be  
Hemen gatoz gu eskian  
Idorberri estalpe bat  
Laster bukatu nahian.  
Eibarko jentian bihotza  
Beti izan da errukiorra,  
Haren ahalegiñen etxea  
Izango da maitekorra.

Emon ahal dezun guziok  
Gaixuentzat dalako,  
Emon esku zabalakin  
Premiña degulako.

## 66. GAIKOENTZAKO ESKATZEN DEGU

Gaixoentzako eskatzen degu  
Ezer eman nahi badezu,  
Esker zintzuak hartuko dezuz  
Baldin ematen badezu  
Gaixuentzako eske gatoz  
Itxaropen osoakin.....

Bakoitzak apur bat emonda,  
Danon artean bildu logera  
Ez degu uste lan honetan  
Akatsik egongo dana.

## 67. LORATXUEN EDERTASUNAK

Loratxuen edertasunak  
Apaintzen ditu toki guziak  
Da alaitasunez beterik  
Poztu gure bihotza.

Garbi ta lirain  
Dauden bitartian  
Maitasun ederrak dira,  
Baiña zimeldu ezkero  
Errukiaz begiratzen dira.

Loratxuen edertasunak....

Lora gazte, lora mardul  
Eta bikaiñak,  
Zimeldu nahi ditu gaitzak,  
Betiko hondatuaz.  
Horregatik, euron alde  
Gatoz errukian billa,  
Ezeizu ezer ukatu  
Emateko atsegia.

#### 4. KIROL KANTUAK:

- 68. Txiribiri
- 69. Gallo
- 70. Biribilketa
- 71. Pantalla
- 72. Randas
- 73. Eibarren himnua
- 74. Goazen, goazen guztiok
- 75. Venid al pueblo de Eibar
- 76. Con el cráneo
- 77. Bat eta bi
- 78. Vamos al frontón
- 79. Bizkarrian fardela

Eibarren gehixen egitten ziran kirolen kantuak bildu dittuguz. Hemen be fooballa da nagusi, antxiñako taldietatik hasi (Txiribiri, Gallo..), Txantxazelaiko koadrillekin jarraitu ( Randas, Pantalla..) eta azken urtiotako Bombonerakuen kantuekin amaitzeko.  
Bestelakuak be badira, esate baterako pelotarixena, txirrindularitzakua eta mendigoizaliena.

#### 68. TXIRIBIRI

Txiribiri por aquí,  
Txiribiri por allá,  
Partidos por aquí,  
Partidos por allá.

Txiribiri por aquí,  
Txiribiri por allá,  
Nadie le ha podido igualar,  
Porque son los campeones  
Del distrito de Bergara.

Txiribiri por aquí  
Txiribiri por allá,  
Nadie le ha podido igualar.

Barriemoillia: Luziana Larreategi. Txiribiri mende hasierako Eibarko talde apal bat zan.

#### 69. EIBARKO GALLO FOOTBALL TALDIA

De extremo derecha  
Juega San Martín,  
Cuando coge la pelota  
Es el niño de postín.

Casimiro Errasti  
Es nuestro capitán,  
Corre mucho y chuta mucho  
Y siempre mete un goal.

De delantero centro  
Juega Sarasketa,  
Cuando coge la pelota  
Pobre guardameta.

De interior izquierda  
Juega Gabilondo,  
Batzuetan gaizki baiña  
Beste batzuetan ondo.

De extremo izquierda  
juega Basarri,  
cuando coge la pelota  
ibiltzen dala gaizki.

Egillia eta barriemoillia: Juanita Arrieta.

#### 70. BIRIBILKETA

Txoriak hegetan dute  
Aiseatzeko zoramena,  
Eibarren ere badegu  
Bizi garenok pozaren itsumena;  
Gora gure alaitasuna  
Jario degula jolasian,  
Gora gure gaztetasuna  
Lanian bezala jolasian;  
Aurrera mutillak pakian jo alai  
Iñoren kalterik ez degu nahi!

Doiñua: Juan B. Gisasola  
Berbak: Fabian Loidi. Igeldoko apaiza.  
Eibarko football taldiari eskaiñia.

#### 71. PANTALLA

Ez dala oindiñik sortu  
Eibarko herrian  
Pantallako koadrilla  
Apurtuko dunikan.

Eiten degu musian  
Ta fooballian,  
Ez dago ze esanikan  
Atletismuan.

Iñor baldin badago  
Herrixan barruan  
Guri apurtutzia  
Uste duenikan.

Mantenemos el reto  
Zazpi egunian  
Jokatzeko hiru gauzak  
Datorren hillian.

Ez da harrokeria  
Orain dijuana  
Gure koadrillak dittu neskak  
Alfan bihargiñik aiña.

Os debéis de enterar  
Gure neskatillak  
Edozeiñentzat ez daude  
Pantallako mutillak.

Por de pronto queremos  
Dotia dutenak  
Eta gitxien jota  
Bost milla duro bat.

(Ahora digan las madres:)  
-Honek bai mutillak  
Fiñ eta alegríak,  
Ta jaiotzatik dira  
Eibarko semiak.

Lo merecen un premio  
Horren aitta ta amak  
Egittiarren  
halako semeak.

A gusto se enterarían  
Oingo ezkonbarriak  
Nola egitten diran  
Holako semiak.

Orain dabixazela  
Materixal txarrak  
Gu eskerrak gerra aurretik  
Gerala egiñak.

Bizi bedi Eibarko herria  
Zabal zazu aurrera bidia.

Egillia: Danel Zenarruzabeitia  
Barriemoilliak: Danel Zenarruzabeitia eta Iñaki Garaizabal  
Doiñua: Eibarko herria.

## 72. RANDAS

Los del Pantalla dicen  
Que a la copa hay que darle brillo  
La copa se la han llevado  
Los de color amarillo.

Corriendo y jugando  
Siempre ganando.

Corriendo y jugando  
Siempre ganarán,  
A nadie le tienen miedo  
Aunque venga el Huracán.

Corriendo.....

Son las once (de) la mañana  
Ha comenzado el partido  
Nuestros grandes delanteros  
Siete goles han metido.

Corriendo...

Egillia: Felipe Solagaistua.  
Barriemoillia: Ernesto Gorosabel.

## 73. EIBAR K.E.REN HIMNUA

Eibarko futbol taldeak  
Apala bezain trebreak  
Gutzioi garaipena eskaintzeko  
Borrokatuko du.

Gure herriko jendeak  
Betidanik du esaten  
Eibarrek ez duela sekula  
Atzera egiten.  
Gorria eta urdiña  
Dira guretzat  
Garaipenaren koloreak.  
Mutillen ahalegiña  
animatzeko  
dira eibartarron txaloak.

Pil-pil dago Ipurua  
Garaipena lortu arte  
Ez dugu etsiko.

Eibarko futbol taldeak....

Gure herriko jendeak....

Gorputz eta arima  
Talde ta zaletu  
Eibartar denok  
Aurrera goaz.

Atzean sendo  
Aurrean zorrotz  
hamaikakoa  
garaipenaren billa.

Ipuruan zaletuok  
Taldearekin bat eginda  
Bultzza dezagun  
Beti Eibar.

Eibarko futbol....

Gure herriko.....

Guk, bihotz emango dugu  
Eibar beti aurrera!!

Egillia: Miren Olabe

#### 74. GOAZEN, GOAZEN GUZTIOK

Goazen, goazen guztiok  
Goazen beti aurrera,  
Eibartarrak ez duela egitten  
Sekula atzera.

Goazen, goazen guztiok  
Goazen beti aurrera,  
Hau dela jokua, ostikoz jo ta  
Golak egitera.

Eibar, Eibar, aurrera!!!

Atzian zauden jokalaria  
Bota erdira,  
Erdilariak hartu ta gero  
Beste ertzera.  
Ez deizuela baloia galdu,  
Eraman aurrera,

Aurrelariak ostikoz jo ta  
Golak sartzera.

Eibar, Eibar, aurrera!!!

Egillia: Bernardo Alberro  
Barriemoillia: Jon "Potxo" Romarate.

## 75. VENID AL PUEBLO DE EIBAR

Venid al pueblo de Eibar,  
que el valle no tiene rival  
que tiene lindas chicas,  
y un clima casi tropical

Todo el que veranea,  
nunca más se quiere marchar,  
porque todo lo que le rodea  
le produce un gran bienestar.

Somos de Eibar, somos la hostia,  
¡Viva la madre que nos parió!.

Barriemoillia: Jon "Potxo" Romarate.

## 76. CON EL CRANEO

Con el cráneo  
de un recién nacido  
los eibarreses  
juegan un partido.

Eibar por aquí,jiii,  
Eibar por allá, aaaa.  
Eibar, Eibar, Ja-ja-ja-ja.

Con el agua  
De lavar los platos  
Los eibarreses  
Hacen el gatzato.

Eibar por.....

Barriemoillia: Jon "Potxo" Romarate.

## 77. BAT ETA BI

Bat eta bi  
GACiak irabazi  
Hiru ta lau  
Orbeak galdu dau.  
Orbeak egiñ eban  
Ahalegiñ guztia  
Baiña GACiak irabazi  
Haxe karrera.

Barriemoillia: Julia Arregi.

## 78. VAMOS AL FRONTON

Vamos al frontón,  
Vamos sin tardar,  
Que los pelotaris  
En la cancha están.  
Ya van a empezar  
Con el cara o cruz,  
Por ver si le toca  
Al rojo o azul.

Barriemoillia: J.R. Orozko

## 79. BIZKARRIAN FARDELA

Bizkarrian fardela ta eskuan makilla  
Aldatzan gora doaz mutil talde pilla,  
Tabernak utzi eta haiziaren billa,  
Ohittura eder hori zabaldu dadilla.

Zakurrak zaunka eitten du baserri batian,  
Aittona zaharra dago ataiko atian,  
Belaun gaiñian dauka semiaren semia,  
Hori bai benetako euskaldun jendia.

Barriemoillia: Juanito San Martin. Eulogio Etxeberria, "Kerido"ri ikasittakua.

## 5. POLITIKA ETA GERRA KANTUAK:

80. Harek ziran garrak eta suak
81. Makiña bat kintxal burdiñ
82. Si vas al monte Oriamendi
83. Beruak, beruak
84. Hoy dia 1º de Mayo
85. Trabajador
86. A aquel que roba un pan
87. Esos burgueses
88. Millaz gaiñera bederatzirehun
89. Ha llegado el día
90. Trágala, trágala
91. Gerrako gure ibillerak
92. Se van los eibarreses
93. Glorioso Euskadi
94. Eusko gudariak
95. Himno de las juventudes socialistas
96. España patria querida
97. A luchar
98. Eibarko Cara al sol
99. El treinta de noviembre

100. Euskotarrak gara
101. Rataplan
102. Jeiki-jeiki
103. El Liberal

Politika eta gerra kantuen artian jatorriz eibartarrak ez dira hiruzpalau baiño izango, baiña oso garrantzitsua begittandu jaku aspaldiko kantu honek berreskuratzia. Zaharrenak karlistadetakuak dira, gero errepublika garaikuak eta azkenik gerra zibilekuak datoz.

Eibar historikoki oso lotua egon da politikiakin, batez be Errepublikaren aldarrikanenaren ondoren. Honek kantuok batez be kalian umiek ikasi eta kantatzen zittuen, eta ez zeben jakitten alderdi batekuak ala bestekuak ziran. Esate baterako, geuri abertzaliek kantu deskuez sozialisten kanturik gehixenak, baitta anarkistenak be, eta sozialistek kantu deskuez umetan ikasitako falangisten edo karlisten kantuak. Alderdi guztietako kantuak sartzen saiatu gara.

Saill honetako aipagarrixena Pepe Bolunbururen Gerrako gure ibillerak da, zalantza barik.

Egile honek berak be Patxikori izeneko kantu egin zeban, baiña musikarik lortu ez dogunez, Bertsoak atalian sartu dogu.

Sozialisten inguruko kantuen gaiñian gehixago jakiñ ahal izateko, ikus Himnos dedicados a la clase obrera, cantados por los orfeones socialistas. Imprenta de Pedro Orue, Eibar. Ez dakigu data zehatza, 1912kua izan leike. Udal Artxibuan dago.

## 80. HAREK ZIRAN GARRAK ETA SUAK

Harek ziran garrak eta suak,  
harek ziran kaiñonazuak!  
Karlistetako jeneral falt sua,  
Mutillak utzita ihesi dijua.  
Tarrapatatapatatan  
Karlosen banderia,  
tarrapatatapatatan  
urak eraman dau.

Barriemoilliak: Juanito San Martin eta Enrike Bernedo.

## 81. MAKIÑA BAT KINTXAL BURDIN

Makiña bat kintxal burdin  
Bota diote Eibarri,  
Kaltia franko egin diote  
Herri politik horri.  
Ia zenbat bonba erori  
Begiratuaz bedorri,  
Karlista hoiien relijiua  
Merke ta ugari.

Barriemoillia: Alberto Larrañaga

#### 82. SI VAS AL MONTE ORIAMENDI

Si vas al monte Oriamendi  
No pisas las margaritas,  
Que están regadas con sangre  
De los mártires carlistas.

Qué guapa eres, qué bien te está  
La boina blanca y la colorada.

Barriemoillia: Justina Orozko  
Oriamendiko burrukia, 1837-03-15/16xan izan zan.

#### 83. BERUAK, BERUAK

Beruak, beruak, beruak  
Los carlistas en el monte.  
Akaben, akaben, akaben  
A los liberales van a matar.

Ya viene la guardia civil  
El ataque contra gorriak,  
Qué tiroteos: Pum! Pum!  
Qué cañonazos: Pum! Pum!  
Muera el gobierno: Pum! Pum!  
A cañonazos.  
Y los carlistas ya triunfarán,  
Y los carlistas ya vivirán.

Barriemoillia: Justina Orozko

#### 84. HOY DIA 1º DE MAYO

Hoy día primero de Mayo  
Abandonamos las labores  
Pues los trabajadores  
Guardan su fiesta  
Más popular.  
Vayamos tras la redención  
Por la senda de la unión,  
Y a nuestro esfuerzo titánico  
Se hundirá el burgues tiránico.  
En este dia de placer,  
Nuestro grito ha de ser:

Viva el primero de Mayo, ¡Viva!

Viva se oiga a doquier.

Los proletarios reunidos aquí,  
Nuestros anhelos mostramos así,  
Y pronto el día dichoso vendrá  
En que lo ansiado así, logrado será,  
Sí será, sí será.

Barriemoillia: Maritxu Gantxegi.

#### 85. TRABAJADOR

Trabajador  
Que afanoso te explota el burgués  
Con tu sudor  
Aumenta capital e interés\*,  
Mientras que tú  
Trabajando siempre sin cesar  
Tan sólo ves  
La miseria que existe en tu hogar.

No desoigas la voz socialista  
que te llama a pelear,  
el Partido Socialista Obrero  
con sus programas nos redimirá.

\*vive holgando y gritando al placer

Barriemoilliak: Maritxu Gantxegi eta Dolores Tolosa

#### 86. A AQUEL QUE ROBA UN PAN

A aquel que roba un pan  
Le llaman el gran ladrón,  
Y el que roba un capital  
Le llaman el gran señor.  
Le llaman ladrón  
De la sociedad.

No te recuerdas pichona  
Cuando estabas bajo el puente  
Me decías suspirando:  
-Tápame que viene gente.

Barriemoilliak: Ernesto Gorosabel eta Imanol Ortiz de Zarate

#### 87. ESOS BURGUESES

Esos burgueses, esos egoístas,  
Que solo ofenden a la humanidad,  
Serán barridos por los anarquistas  
Al noble grito de la libertad.

Rojo pendón, no más sufrir,  
La explotación ha de sucumbir,  
¡Levántate, pueblo ideal,  
al grito de la revolución social!

Barriemoillia: Jose Mari Kruzeta.  
Anarkisten kantu hau jostundegixan ikasi zeban Jose Mariren amak.

#### 88. MILLAZ GAIÑERA BEDERATZIREHUN

Millaz gaiñera bederatzirehun  
Hogei tamaikagarren urtian,  
Errepublika sortua degu  
Espaiñiako partian,  
Ez det nik uste izango danik  
Guztontzako kaltian.

Errege edo morroi beltz hori  
Egiña degu bialdu  
Berriz honantza agertzen bada  
Ez aterikan zabaldu.

Barriemoillia: Imanol Ortiz de Zarate

#### 89. HA LLEGADO EL DIA

Ha llegado el día  
La corona ya cayó,  
Dar vivas a Franco,\*  
El gran campeón,  
Que expuso su vida  
Y su corazón.

Damaso Berenguer,  
Tirano general,  
Huye, huye, huye,  
Sin vergüenza,

Farsante y traidor.  
Muerte de miles  
De pobres inocentes  
Que por ti cayeron  
En tierras de Annual.

-Márchate Alfonsito,  
Alfonsito márchate,  
Que los españoles  
Ya no te quieren ver,  
-Y eso es muy triste  
yo ya me marcharé  
Los hijos a cuestas,  
Maleta en la mano,  
El chico y el burro  
Que es Berenguer.

Barriemoillia: Imanol Ortiz de Zarate

#### 90. TRAGALA, TRAGALA

Trágala, trágala,  
Trágala, trágala,  
Tú carlistón,  
Tú que no quisiste  
La constitución.

En realidad  
no queremos rey,  
Solo un presidente  
Que gobierne bien.  
Abajo el clero  
Curas y frailes,  
Que mueran todos  
Los clericales,  
Abajo el clero  
Conspirador,  
Y libertad  
Al pueblo productor,  
Tú que quisiste  
La constitución.

Barriemoilliak: Dolores Tolosa, Justina Orozko, Salvador Marzana, Imanol Ortiz de Zarate  
eta Marina Bazterra.

## 91. GERRAKO GURE IBILLERAK

Oraintxe kontatuko dizuet  
gure gerrako historia:  
egin genduan bizimodu bat  
gutziz ikaragarria,  
denbora dana pasatu degu  
hegazkiñen igesian;  
purga beharrik ez degu izan  
gerra denbora guztian.

Guregatikan ez dute esango  
balientiak geranik,  
zaratatxo bat entzun orduko  
hasitzen giñan igesik;  
gu geran baiño azkarragorik  
oraindik ez da ikusi,  
Kiputxaneko Periko\* berri  
danon artian nagusi.

Eibar aldetik urten genduan  
antxitxiketan Deustura,  
Deustutik berriz estu ta larri  
joan giñan Cabezónera  
Cabezóndikan Borinesera  
Borinestikan Navara,  
Navatik berriz Candasera ta  
sartu ginduzten barrura.

Izugarrizko bizimodua,  
jarri digute oraintxe,  
ondo neurtuta daukagu ura,  
ogirikan ez sobrante,  
eskabetxeko sardiña latak,  
txorizo ta txokolate;  
berriro ere "kalabazia"  
haziko jaku bastante.

\*Kiputxaneko Periko kojua zan.

Egillia: Pepe Bolunburu.

## 92. SE VAN, SE VAN

Se van los eibarreses\*,  
Se van, se van, se van, se van  
Se van al campo  
Donde se pelea.  
Era mi morena  
la que me miraba.

Mirame, remirame  
Chin-chin de amor.  
Yo te remiro porque eres muy bella  
Y tienes que venirte conmigo a la guerra.

Contigo a la guerra no, no, no, no,  
No quiro ir  
No quiero ir contigo a la guerra  
Porque se come mal  
y se duerme en la tierra.

En la tierra niña no, no, no, no,  
No dormirás,  
Tu dormirás en un lecho de flores  
Con cuatro eibarreses  
Que te hablen de amores.

\*se van las eibarresas.

Barriemoilliak: Juanita Arrieta, Dolores Tolosa eta Julia Arregi.

## 93. GLORIOSO EUSKADI

Glorioso Euskadi emporium de heroísmo  
Pueblo viril de hazañas portador,  
Tus gestas del Sollube, Jata y Bizkargi,  
Artxanda, Irun, Lemona y Mondragón  
Llenaron por los ámbitos del mundo  
El gran valor de tu fiel corazón.  
Tu eres Euskadi, nobleza y sentimiento  
Patria querida, mi orgullo y mi ilusión.  
Si martir te conserva tu aversión al fascismo  
El socialismo vindicará tu honor.

Barriemoillia: Salvador Marzana.

## 94. EUSKO GUDARIAK

Eusko gudariak gera  
Euskadi askatzeko,  
Gerturik daukagu odola  
Bere aldez emateko.

Irrintzi bat entzunda  
Goiko tontorrian  
Goazen gudari danok  
Ikurriñan atzian.

Goazen aterik ate  
Baserririk baserri  
emanaz askatasuna  
laster degu  
laster degu geurekin.  
Goazen hara aldera,  
Goazen alkarrekin  
Euskadi askatzera  
Faszistaren bendetik.

Barriemoillia: Salvador Marzana

#### 95. HIMNO DE LAS JUVENTUDES SOCIALISTAS

Hijos del socialismo, somos la fuerza del porvenir,  
Contra el capitalismo sabremos vencer o morir.  
Luchamos por la buena causa, por la revolución social,  
Debemos combatir sin tregua, hasta que triunfe la igualdad.

Injusticias, privilegios que al hombre hacen sufrir,  
Ya se acaban, los vamos a suprimir,  
Que la lucha final que comienza  
Es el grito de la revolución  
Si es preciso que sangre vertamos,  
Será por nuestra emancipación.  
Juventudes socialistas, ¡Adelante!

Barriemoillia: Maritxu Gantxegi.

#### 96. ESPAÑA PATRIA QUERIDA

España patria querida,  
Tierra en donde yo nací,  
Te ofrezco alegre mi vida  
Y no pienso más que en ti.

Por la dignidad de España  
Y por el triunfo alcanzar,  
Venimos del campamento  
Con paso alegre y marcial.

Marchar, marchar, marchar.....  
Sembrando paz y amor.

Barriemoillia: Enrike Bernedo

## 97. A LUCHAR

A luchar o vencer  
O triunfar o morir,  
Por la España Imperial,  
Por la España Inmortal,  
Nada importa el morir  
Si es por nuestro ideal,  
Nuestra patria triunfará.

Las banderas que siempre van delante  
Y nos guían hasta el porvenir, ¡Franco!, ¡Franco!,  
Con fusiles de honor y de victoria,  
A España hemos de ver construir, ¡Franco!, ¡Franco!

Barriemoillia: Enrike Bernedo

## 98. EIBARKO CARA AL SOL

Cara al sol que me pongo morena  
Y el flecha no me va a querer,  
No me importa que el flecha no me quiera  
Si me quiere un eibarrés.  
El eibarrés me compra caramelos  
Y me lleva al cine cuando quiero.  
¡Gora Euskadi a vencer,  
fuera Franco, su hija y su mujer!\*

\* ¡Aupa escobas y a barrer,/ que yo me caso con un eibarres!

\* Gora Euskadi askatuta / Jaungoikua ta Lege Zaharra!

Barriemoilliak: Rosa Mari Arizmendi, Leire Narbaiza eta Libe Betolaza.

## 99. EL TREINTA DE NOVIEMBRE

El treinta de Noviembre en Euskadi  
Nuestra grandiosa ofensiva comenzó  
Y los bravos gudaris de Euzko Indarra  
Cantaban su himno de valor.  
Mientras que en el campo enemigo  
Llenos de crímenes y horror  
Huyen en plena desbandada  
Ante el empuje arrollador.

Canciones de victoria  
Se escuchan sin cesar  
Y los bravos gudaris  
Suelen exclamar:  
-Queipo de Llano  
prepara tu Caproni\*,  
Euskadi libre al fin podrá vencer  
Porque defiende las tres cosas más grandes,  
La justicia, la igualdad y la libertad.

iCamarada, camarada!, ya te llama  
el clarin proletario a pelear,  
y no dejes que tu cuerpo se decaiga  
por el bien de toda la humanidad,  
y es tu deber el engrosar  
las filas rojas que entran luchando por la libertad.

\*Caproni: hegazkin mota bat zan.  
Barriemoilliak: Salvador Marzana eta Enrike Bernedo.  
Euzko Indarra batalloikuen kantua zan.

#### 100. EUSKOTARRAK GARA BIHOTZ- BIHOTZETIK

Euskotarrak gara  
Bihotz-bihotzetik  
Aitortzen degula  
Geure ama Euskadi,  
Jaungoikua eta  
Lege Zaharra,  
Gora Euskadi,Gora Euskadi  
Bizi bedi beti.

Barriemoillia: Maritxu Gantxegi. Batzokixan Serafin Lakasak irakatsitakua.

#### 101. RATAPLAN

Rataplan,  
Gure mutil taldia, rataplan,  
Gudara dijoa,  
Berekiñ eskillua sorbaldan  
Darama.  
Horra turutan hotsa,  
Tara-taratarara-taratarara,  
Turutaren hotsean  
Gora-gora ikurriñ maitia,  
Rataplan,  
Gure mutil taldia,rataplan.....

Goazen azkar gure aberrian  
Etsaia zapaltzera,  
Mingarri da etsaiak hiltzea,  
Baiña aberri da aurrena,  
Ranpan-pan eta ranpanplan,  
Ranpan-pan eta ranpanplan.

Barriemoillia: Maritxu Gantxegi.  
Felix Markiegirekin katekesian ikasittakua.

#### 102. JEIKI, JEIKI

Jeiki, jeiki\* euskotarrak  
Laster dator eguna.

Sorkaldetik agiri da  
Argi gozo biguna  
Bere aurrian bildurtuta  
Igesi doa illuna.

Jeiki, jeiki euskotarrak  
Eta batu gaitezen!  
JEL-argia alde orotan  
Hasi zaigu zabaltzen,  
Ekin bai beti gau ta egun  
Bihotz danak berotzen.

\*jagi, jagi.  
Eibarren oso ezaguna.  
Jatorrizko kantua XV. mendekua da. Gerora jeltzaliak moldatu zeben.

### 103. EL LIBERAL

iEl Liberal, El Liberal!  
Leer la última hora  
Que trae el Liberal,  
Información mundial.

Soy, señores, la chavala  
Que ahora vendo El Liberal,  
Vendo al día muchos miles  
y gano siempre un buen jornal\*.  
Traigo noticias  
De todos los países,  
Y partes de la guerra  
Que causan sensación:  
Gobierno en crisis,  
El crimen de Granada,  
Los toros de esta tarde  
Y un robo en la estación.

iEl Liberal, El Liberal!  
Leer la última hora  
Que trae El Liberal,  
Información mundial.

Dice El Liberal ahora \*\*  
Que el conde no sabe qué hacer  
Que las cosas se complican  
Tanto que no podrá volver.  
Los unos dicen.  
Que no tengamos miedo  
España está tranquila  
Por eso sube el pan.  
Los otros dicen:  
-la guerra nos conviene-,  
pero al sonar un tiro

escapan como un can.  
El Liberal..

\*Porque trae muchas hojas  
Y va pidiendo buen jornal,

\*\*Son los acaparadores  
Los que explotan la nación,  
Y están chupando la sangre  
Del pobre trabajador.

Barriemoilliak: Enrike Bernedo, Libe Betolaza eta Julio Lapeira.

## 6.ERROMERIXAKO KOPLAK:

- 104. Alzola goiti dago
- 105. Dieciseis años tenía
- 106. Erromeria1
- 107. Erromeria2

Eibarko erromerixarik zaharrena eta ezagunena Arratekua da, halan da guztiz be antxiña Ixuan, Azittaiñen, Agiñan, Akondian, Salbatoren eta Goimendin be erromerixa egitten zan.

Arrate egunaren bezperan gaupasa egittekohi ohitturia gaurkua dala uste dabena oker dabil. 1657xan Kalahorrako apezpikuak eliza eta ermitetan gaupasa egittia debekatu zeban, baiña 1687xan eibartarrek baimena lortu zeben elizako atiak zabalik lagatzeko, neskak eta mutillak aparte egoteko baldintzapian. Ordutik aurrera debekuak eta baimenak alkarren ondotik datozen. Kontuan izan Arrateko jaixan ezezik(1563 arte abenduaren 8xan, Kontzeziño egunian, ospatzen zan) Gabon gabian be gaupasa egitten zala Arraten. Gaiñera XVII eta XIX. mende bitartean zortzi egunez ospatzen ziran Arrateko jaixak.

Erromerixako koplak Euskal Herri osuan zihar kantatzen ziran, eta trikitilarri edo filarmonika joliekin tokixan tokiko letrak moldatzen zittuen. Beraz, oso gatxa da esatia koplen jatorria zein dan, nahiz eta gehixenak Bizkaia aldetik etorri.

Atal honetan, lehenengo bi koplez gain, Eibarren batu doguzenekin bi popurri eginditugu, neurrixaren araberakuak. Antxiñako erromerixetan nahiko arrunta zan erdarazko koplaren bat tartekatzia. Gerra ostian joera hori indartu egin zan.

### **104. ALTZOLA GOITI DAGO**

Altzola goiti dago, bai Mendaro baiño,  
mutilla merkeago, bai neskatxa baiño,  
Mutilla nahi duenak beretzat erosí,  
Arrateko zelaian txanponean zortzi.  
Onak baldin badira, eztira garesti;  
txarrak baldin badira, probatu ta utzi.  
Lau, bost, sei, sardiña-makaillero;  
sei, zazpi, ez gabilta gaizki

Azkueren kantutegittik hartua.

## 105. DIECISEIS AÑOS TENÍA

Dieciseis años tenía  
Cuando la vista perdí,  
Gloriosa Santa Lucía  
Tenga compasión de mí.

Ay de mí, ay de mí  
Bostek maite nau ni,  
Lau alperrik ibilli  
Batek bihar nau ni.

Si supieras lo que has hecho  
Engañar a una doncella,  
No tienes perdón de Dios  
Si no te casas con ella.

Barriemoillia: Lorea Lasa. Bere amandriari ikasittakua.

## 106. ERROMERIXA (1)

Eperrak kantatzen dau Arrate gaiñian,  
Neskarik ederrenak Eibarko kalian.

Arrateko pikuak hiru txorten dittu  
Eibarko armeruak ugarrak jan dittu.

Eibarko neskatillak titi biribillak,  
Handik beheratxuago saiatu mutillak.

Eibarko armeruak txepetxan hankokin,  
Mallabin gora doiaz Bizkaiko neskekin.

Eibarko neskatillak pantorrilla motzak,  
Pixkat goratxuago gaztaña lokotzak.

Azak eta porruak lehengusuak dira,  
Eibarko armeruak zelosuak dira.

Eibarko neskatillak elizara sarri,  
Elizatik urten da mutilleri zirri.

Eibarko armeruak bigote zaharrekin,  
Isasin gora doiaz Bizkaiko neskekin.

Ederra zara baiña ez zara larrosa,  
Kolore gorri-zuri mundu engañosa.

Tiriki-tiki-tauki mailluaren hotsa,  
Noiz ezkonduko ete da gure neska motza?

Amak eman balestaz hamar hamaseiko,  
Ezkonduko nitzala udaberriirako.

Urruku-tuku-tuku ez neri ikutu,  
Aita ganbaran da ta sentiduko gaittu.

Aitta ganbaran eta ama sukaldian,  
Gure neska mutillak eskillarapian.

Bide labana dago goiko ganbarara,  
Galdaran sartu jata neska barragana.

Oraingo neskatillek zer dute merezi?  
Errekan jabondu ta lixiban egosi.

Gaztiak entzun dezu beste horrenbeste?  
Elgetako kuriak zappi neska bete.

Aita San Antonio Urkiolakua,  
Hamaika basarrittar engañautakua.

Arrateko pikuak hamar orri dittu,  
Eibarko neskazarrak ugarrak jangoittu.

Maria Manuela Buztingorriku,  
Hamaika buztan gogor bigundutakua.

Ventanas a la calle son peligrosas,  
Porque la madre tiene hijas hermosas.

Neuk ikusittakua neure begixekin,  
Astua kazuelan belarri bixekin.

Gora begiratu ta laiñoak agiri,  
Aurreko mutill horrek tontua dirudi.

Bederatzi andrazkok egin dabe juntia  
Zelan hobeto sartu txirtxillan puntia.

Gaztiekin esan zeben olioz untauta  
Atso zaharrek, berriz, gogor bultzatuta.

Bergaratik harutz joanda Antzuola partian  
Gaztañak jan nittuan baserri batian.

Esango nuke baiña esateko lotsa,  
Mekaguen la puñeta, hau da neska motza!

Kamisa zaharrak dauka aurrian zulua,  
Handik ikusten jako bere mozolua.

Hamar neska-mutillek egin dabe juntia,  
Zeiñek lehenago sartu pitilin puntia.

Gabian parrandan da goizian logura,  
Etzara oingo gaztiak osasunan gura.

Kuarto erdi eduki ez, lau kuarto gastatu  
Gizon andrazalia nekez aberastu.

## 107. ERROMERIXA (2)

Hau da pandero barrixa,  
Bilbotikan ekarrixa,  
Bost errial pagatu ta  
Erdia urregorrixa.

Lora bat ikusi neban  
Erreka baten erdixan,  
Haxe hartzera joan eta  
Uretara jausi nitzan.

Neskatillatxo zer dezu,  
Kolore zuria dezu  
Koloria gorritzeko  
Metal ura eran behar dezu.

Neure maite polit hori  
Kolore txarra daukezu,  
Kolore hori mudatzeko  
Nerekin lo eiñ behar dezu.

Begira nago begira  
Goiko kamiño berrira,  
Noiz etorriko ete dan  
Neure maitia herrira.

Eres chiquita y bonita,  
Eres como yo te quiero,  
Eres la mejor naranja  
Que tiene mi naranjero.

Txikitxua zera baiña  
Bazera gehiago haziko,  
Hazitzen ez bazera be  
Ez deutsudala utziko.

Todos dicen que soy fea,  
Que yo no me casaré,  
Ojitos azules tengo  
Algún tonto engañaré.

Zure amak esanda entzun det  
Ez zaudela neuretako,  
Eskerrak milla mesede  
Ezta neu be zeuretako.

Cochina mas que cochina,  
Cochina como tu madre,  
Con el agua de fregar  
Le has hecho sopas al padre.

Ederregia zera zu,  
Soluan biharrerako,  
Hartizu kaballerua  
Kalian pasiorako.

Errosatxuak bost orri,  
Klabeliñiak hamabi,  
Lagun ona topatzeko  
Beti-beti honera etorri.

Tanto que sabes coser,  
Tanto que sabes bordar,  
Me has hecho los pantalones  
Con la bragueta p'atrás.

Neure nobixuan ama  
Asto baten jabe dana,  
Haretxek ekarrikosku  
Etxian falta dan dana.

## 7. PERTSONAIERI EGINDAKO KANTUAK ETA HIMNUAK:

- 108. Calbetón
- 109. Muguruzaren omenez
- 110. Jose Antonio Gisasola
- 111. Mendibururen omenaldia
- 112. El Che valiente
- 113. Himno a Eibar
- 114. Pil-pil
- 115. Kerizpeko himnua

Atal honetako lehen lau kantuak esker kantuak dira. Hiru lehenak Eibarren alde egindako lana eskertzeko eta laugarrena euskararen alde egindakua. Mende hasierakuak izan arren, gaur egun be nagusi askok gogoratzen dittuez honek kantuok.

Bosgarren pertsonaia El Che da. Herriko toreatzaille onena ez bazan be, bere izaera eta jatortasunagatik egingo zotsen pasodoblia.

Azken hiru gorazarreak Eibarri, makaiatuaren kofradixari eta Kerizpe elkartiari eskañitakuak dira.

### 108. HOMENAJE A CALBETON

Saludemos la noble figura  
Del eterno y preclaro varón  
Batamosle palmas a porfía  
Al insigne don Fermín Calbetón.  
Vítores suenan este día  
Día de júbilo y esplendor  
El pueblo entero aclama  
A su caro hijo y protector.

Gratitud eterna merece  
El amor filial ofrecemos  
Al hombre que a Eibar protege  
En su vital industria armera.  
¡Viva! ¡Viva! Sea el grito  
Lanzado por nuestro corazón,  
Y en prueba de amor infinito  
Gritemos, ¡Viva, Viva Don Fermín Calbetón!

Berbak: Nizeto Muguruza

Doiñua: Ildefonso Irusta

#### 109. MUGURUZAREN OMENEZ

Muguruza jauna  
Osagille ona,  
Langille ta umien  
Osasunan zaiña.  
Gizon guztientzako  
Eredu men-mena  
Zure izena  
Herriantzako omena  
Geroztikuen be  
Oroimena.  
Hartu ezazu  
Opalpen zintzo hau  
Zeru goitik,  
Nizeto laztana;  
Muguruza jauna  
Osagille ona.

Berbak: Don Poli

Doiñua: Aita Donostia.

Barriemoille: Margarita Murgizu.

Euzkadi, 1920-10-19xan argitaratua.

#### 110. JOSE ANTONIO GISASOLARI EGINDAKO ERESERKIA

Jose Antonio jauna,  
Eibarko seme txit bikaiña,  
Bere herrian alde  
Laguntzeko beti gertu dana,  
Azkenengo eskolak  
Egin zittuana,  
Bere jaio-auzoa apaindu duana.  
Eibarrek goratzen du  
Gaur bere izena  
Pozkiro esanaz:  
Aginako eskolak jaso dittu  
Jose Antonio Gisasolak.

Berbak: Don Poli

Doiñua: J.B. Gisasola

## 111. MENDIBURUREN OMENALDIA

Ikus zazu zerutik  
Zure Euskal Herria  
Nola datorren gaur zuregana  
Pozturik guzia.  
Ama euskera pizturikan  
Zuk zerutik lagunduaz  
Zuri esker emateko  
Dago gaur esanaz:  
Oh! Euskaldunak,  
Esker Jaunari  
Eta laztan bat  
Gure hizkuntzari.  
Agur egiñaz  
Mendiburu maixuari  
Oiartzuarri.

Egillia: Don Poli

## 112. EL CHE VALIENTE

La plaza llena de gente  
Que le aplaude y le ovaciona  
Por su garbo y majeza  
Al CHE valiente!

Sale el toro, y con la capa  
Demostrando buena escuela  
Prepara su gran faena  
Sin miedo ni cobardía,  
Con estilo y con salero  
Va, y se arrima el gran torero.

...Mientras ella reza y ruega  
a la Amatxo de Arrate,  
que no le mate!

Muleta con valor OLE!  
Templando muy suave al toro,  
Se abalanza el matador OLE!  
Viendo caer al morlaco.  
VUELTAS, OREJAS Y RABO.

Egillia: Aspiazu maisua.

### **113. HIMNO A EIBAR**

En euskaro rincón escondido  
hay un pueblo olvidado tal vez  
donde impera por ley el trabajo  
y es orgullo sin ser altivez.

No detengas tu paso iadelante!  
postergado quizá por error  
con tu santo trabajo mantienes  
que en la lucha te sobra valor

Sus blasones son feudos castillos  
son sus industrias que existen doquier  
es el lema de un pueblo  
que los pueblos debieran tener.

Esto es Eibar. Esto es Eibar.

Sus preclaros hijos  
enaltecen su plácido hogar,  
y en amor que a su suelo demuestran  
Eibar viva iviva! les hace exclamar.

Berbak: Barragan (Armerixako irakaslia)  
Doiñua: Miguel Oñate

### **114. PIL PIL**

Zeinen janari goxoa  
den bakaillau prejitua,  
patatekin nahastua  
edo piper gorritua,  
pil-pilean berdingabe  
nahiz tomatez hornitua;  
arrain on asko da baina  
zurea da meritua.

Ezagutzen zaitzutte  
mundu zabalean,  
itsasoak hazia  
bere magalean;  
gure eskuetara  
heltzen zarenean,  
arrain denetan maitatuena  
zara beti sukaldean.

Eibarko kofradia  
bakaillauan defentsan,  
zu nolakua zaren  
munduak jakin dezan;  
gu gara kofrade,  
zutaz harro gaude,  
jakietan zu zara  
gure errege.

Egillia: Juan Mari Narbaiza

#### 115. KERIZPEKO HIMNUA

Antxunbian txunbian  
Fari-faribe,  
Antxunbian faribe

Eliu pun pun.

Makakafru txinpun  
Txibiri-biri majau  
Txibiri-biri txibiri-biri majau  
ostras  
txibiri-biri.

Majau jamela maskui  
Makakafru makakafru makakafru  
Angui angui anguibiri-biri  
Anguibiri-biri-majau jau jau jau.

Benediti ti ti ti harrapazaitu  
Gora Abitxinia  
Adis-Abeba  
Benichelo soldata la guerra  
A combatire  
Por la Liberti ti ti ti

Harrapazaitu.

Kerizpe Eibarko soziedaderik zaharrenetakua da.

## 8. EIBARKO KALE KANTUAK:

116. Kontu barri bat
117. Arragueta kalian
118. Suite eibartarra
119. A mutil kopetillun
120. Esaten dute bada
121. Eibar tiene su entrada
122. Zerutxo
123. Hiru gizon ilustre
124. Plaentxiatarren iriarena
125. Bertso berriak automobil zaharrari
126. Petra ta Maria
127. Goinen tangua
128. Bart arratsian
129. Han veniro
130. Nere amak pentsatzen zuen
131. Tenemos en Mondragón
132. Intxaurra nuez
133. Eufi, eufi
134. En Eibar se ha formado
135. Maritranposa
136. Ez det esango
137. Ermeren burua
138. Elgeta maleta
139. Mateo Altzu
140. Hamalau oillo dauzkat
141. Maria Titilitaña
142. Oxabia
143. Goaziak Paitxo
144. Sei baso
145. Gaur forjariak
146. Ardurabakuen aeroplanua
147. Eibarko herria
148. Tallarrari zortzikua
149. Aunque ustedes nos ven
150. Afiladoriena
151. Plaentxiko konpansen kantua

152. Las chicas eibarresas
153. A la entrada de Güernika
154. Chinito, ¿Qué vendes tú?
155. Ardautxo baltza
156. Mendiko umia naiz ta
157. Agur esanda banua ni
158. Goizetik tabernan
159. Zatozte bada
160. Arraindunena
161. Donostiako herri txikia
162. Tira, tira mutillak
163. Libertadia
164. Antonio y Txurrualde
165. Ontzi txiki batian
166. Bizkaixan baztar baten
167. Ez dizut irikiko
168. Duan, duan
169. Gure amama
170. Cuando bailo contigo
171. Ederrena zerala
172. Aurresku
173. Txomin eta Bartolo
174. Juega por mi gallo
175. Ze politak diran
176. Kolore txuri-gorri
177. Hoy en día las mujeres
178. Ladrillo
179. Maitasun tratua Eibarko plazan

Atal honetan bildu dittugu Eibarren kale giruan kantau izan diran kantuak. Ziur asko ez dira gehixen kantau izan diranak, Eibarren 1.900etik aurrera Ameriketatik pelotarixek ekarriktako tango, habanera, bolero eta rantxerak asko kantau izan diralako. Horretaz gaiñ Espaiñiako modako kantuak (gehixen bat irratiz eta pelikulen bidez zabalduak) eta Euskal Herriko tradizio kantu ezagunak, jotak eta bilbainadak be asko kantau izan dira. Herritar askok horren kantuen hutsunia somatuko dabe, baiña eziñezkua zan danak lan honetan sartzia.

Gu Eibarrekin lotura estuena dakenak biltzen saiatu gara, bertakuak diralako, herrixa aipatzen dalako edo pertsonaixa ezagunek kantatzen zebelako.

Era guztietako kantuak dagoz, parregarrixak, iraingarrixak, eskaerak, mozkorrenak, maitasunezkuak (gitxi), adarra jotzekuak, inguruko eta kostaldeko herrietakuak... Egixa esan honek kantuok ez dira jende guztixaren gustokuak, baldar eta mozkorren kantuak diralakuan edo, baiña honek dira gure herixa eta jendia zelakuak izan diran onduen erakusten deskuenak.

Atal honetan, zalantza barik, Anbrosio Atxa "Itxaso" nabarmendu bihar dogu, berak sortu zittalako Eibarko kanturik jator eta ezagunenak. Era berian Trio Lazpita be gogoratu nahi dogu, eurori esker gorde izan diralako Itxaso eta beste askoren kantuak.

Azpimarratzekuak dira, era berian, Antxon Narbaizak Tolosan topau zittuan kopla zaharrak, (Kontu barri bat).

Aratostietako konpansen kantuak be atal honetan sartu doguz, gerora urtietan kale giruan kantau izan diralako. Kaldereruak ez dittugu sartu, zorionez berreskuratuta dagozelako. Kantu gehixenak euskarazkuak badira be, Eibarko euskaraz oso gitxi dagoz, orduko bertsolari ezagunenak eta eredua giputzak ziralako. Euskara ta erdara nahasten dabent kantuak be badagoz.

Eibarren aspalditik egon da kalez kale, tabernetan eta kuadrillako bazkari-afarixetan kantatzeko ohitura, azken urtiotan galduz doiana.

Beraz, animo eta ia herriko antxiñako kantuak eta kaleko giro jatorra berreskuratzen dittugun.

## **116. KONTU BARRI BAT**

Kontu barri bat suzedidu da Errebaleko kalean,  
Errebaleko kalean eta andra gazteen artean  
Zeloak gora, zeloak behera ,zeloan euren artean,  
Ugartek orain aterako dau saltsea bere gainean  
Bikarioa dogoa legez alegre eta librea,  
andra guztiok beteren beste ha darabile maitea.  
Amodioa zoro da beti amoraduen artean,  
Ugartek orain probatzen ditu zeloak zertzuk direan.  
Barikua soila da legez harik zapatu goizeko,  
ordubietan presente dago Bikarioaren aurrean.  
Zeloegatik enojaduta haserre zite zanean,  
bere boltsearen eskatu jako publiko kale batean.  
Haek halanik iragoarren Ugarte beti kalean,  
Magdalentxori bentanarako bidea galdu artean.  
Falta eztitu adiskideak Ugartek bere aldean,  
Ibarrekoak egin ditue bakeak haen artean

San Kristobalgo señaladuta merienda formatu  
San Kristobalez akordatuta Mirabailesen juntadu.  
Aldatzetikan Bikarioa ta Matxariean Ugarte,  
Ibarrekoak aldean ditu bere laguntzat han bere  
Etxean ondo giaduarren hara orduko hotzitu,  
berotu baga merienda jan ezin leike ziertu  
Sua da legez gauza beharra aldean dabe ifini,  
hango abarrak argi dakie herri guzti ageri  
Mirabailesko Palazioak hobato dakiz kontuak,  
ostera bere egingo dituz bakotxak bere kantuak.

Testuaren batzaille ta moldatzaillia: Antxon Narbaiza  
Doiñua: J.I. Lopez de Luzuriaga  
Koplaria: Migel Bazterretxea, 1685ean, Untzaga plazan.

## 117. ARRAGUETA KALIAN

Arragueta kalian  
Merienda haundixa  
bost atsoren artian  
sei azunbre ixa,  
Jarri ziradenian  
Mozkortuta ixa  
Alkarri erakusten, maitia  
Tutulu mendixa.

Batak beltza zuala  
Bestiak txurixa  
Jarrittako tokian  
Egin zuten pixa.  
Handitxik formatu zan  
Eibarko ibaixa  
Atzeruzka jausitta, maitia  
Itto ziran ixa.

Kolorez gorritturik  
Begixa argixa  
Orduan egin zuten

Apostu alaixa.  
Danak ataiko atian  
Illaran jarritta  
Nork urriñago egin, maittia  
Zutiñikan pixa.

Illaran jarrikan  
Egiñ ahalaz pixa  
Ikusgarrizkua zan  
Haren itturixa.  
Kattalin da Manuela,  
Petra ta Marixa  
Kanpeoi geldittu zan, maittia  
Patxika txikixa.

Ataiko ate batetik  
Beste alderaiño  
Gehiago egongo dira  
Zazpi metro baiño.  
Patxikatxo gaixua  
Txikixa da baiño  
Pixa egin zizkigun, maittia  
Beste etxeraiño.

Egixa baldin bada  
Haura istorixa,  
Ederki utzi zuten, maittia  
Eibarko herrixia.

Badirudi azken koplia gerora gehittutakua dala.  
Egillia: Anbrosio Atxa, "Itxaso".

## 118. SUITE EIBARTARRA

AI ANTON  
Ai Anton, Antontxo zara zu  
kuartillo t'erdigaitik ohia saldu dozu  
Ama datorrenian,

aitta datorrenian,  
etxetik kanpora bialduko zaittu.

#### BIHAR DA URTEBETE

Bihar da urtebete ezkondu nintzala  
egun bat gutxiago damutu zaidala,  
ai! hau zorigaiztoko ezkondu biharra  
bost aldiz etorri zait begira negarra.

#### ALPERRIK

Alperrik izango dira  
etxian hasarre  
ez nabe mudatuko  
hiltzen ez banabe,  
Hil eginda gero be  
arkitzen banabe,  
lehengo hitzetan firme  
billatuko nabe.

Egillia: J.B. Gisasola.

#### 119. A MUTIL!

A mutil kopetillun, begiak logure,  
baietz uste dok baiña ez nok hire gure.

Oraingo mutil zaharrak zer dute merezi?  
errekan beratuta, lixiban egosi.

Oraingo mutil zaharrak dute fantasie!  
soiñian gerrikoa bestek erosie.

Juanito Gisasolak musikatutako kantu honek guztixak herrikoiak ziran.

## 120. ESATEN DUTE BADA

Esaten dute bada  
Ezkondu, ezkondu  
Ez zait neuri sekula  
Gogorik berotu  
Ai, zer zorioneko  
Ezkondu beharra  
Bost aldiz etorri zait  
Begira negarra.

Bihar da urtebete  
Ezkondu nintzala  
Egun bat gutxiago  
Damutu zaidala,  
Nere bodako eguna  
Pasatu ezkerro  
Egun onikan zer dan  
Ez dakit harrezkerro.

Goizian jaiki eta  
Moxua garbitzen  
Iturriko urikan  
Ez det nik gastatzen,  
Begietatik behera  
Datorren negarra  
Muxua garbitzeko  
Nahikua da bera.

Nere senarrak ez du  
Beste beste egintzarik  
Tabernara juan eta  
Mozkortu besterik,  
Etxera etortzeko  
Ai nere bildurra  
Noiz hausiko ote didan  
Bizkarrian egurra.

Ezkondu nintzian  
Bost gona nituan  
Bi gona hausi eta  
Bi saldu nituan,  
Soñian daukarana  
Daukat guztiz zaharra  
Berriak egiteko  
Bizimodu txarra.

Haur bat sabelian ta  
Beste bat besuan  
Gizona tabernan da  
Ogia auzuan,  
Begietatik behera  
Negarra musuan  
Kontsuelorik ez da  
Neretzat munduan.

Ai zer zorioneko  
Ezkondu beharra  
Geroztik etzait falta  
Lana ta negarra,  
Possible baldin balitz  
Impossible dana  
Pozik utziko nuke  
Nik nere senarra.

## 121. EIBAR TIENE SU ENTRADA

Eibar tiene su entrada a dos palmos de la carretera  
Elgoibar por San Sebastian y Ermua por Bilbao.

Es una villa industrial, comercial y mercantil  
tiene vía con su túnel y mucha Guardia Civil.

Venid, venid y verán, que la ciudad de Eibar, es un pequeño, es un pequeño pueblo  
industrial!

Tiene Banda Municipal y también tanbolintxeros  
el carrito para la basura, "Oxabia" de barrendero

En el centro de la población tiene plaza del Mercado  
y la popular "Maria Ondarru" para vender el pescado.

Venid, venid....

La Calle Elgeta-kale, camino para el cementerio  
donde se construyen casas de dos pisos y medio.

La Calle Barrenkale, otro punto principal,  
donde no puede la gente pasarse sin resbalar.

Venid, venid.....

La Calle Bilbao la Vieja, otro punto muy comentado,  
donde el Gobierno alemán ha puesto su consulado.

La Calle Ardanza-kale, otro punto muy servicial,  
para todas las personas que se quieren suicidar

La Calle Muzategi, otro punto señorial,  
donde vive "Taldonio" con su familia real.

Venid, venid....

Barriemoillia: Juanito Lazpita.

## 122. ZERUTXO

Eibarren da zerutxo bat  
Eibarren da zerutxo bat  
Nere oso atsegigarri  
Eta batez be maitagarri.  
Eibarren da zerutxo bat  
Eibarren da zerutxo bat,

Hainbat eibartarren  
Dantza leku alaia  
Eta neska-mutilen  
Maitasun iturria.

Untzagako plazia  
Gure gazte-leku berezia  
Ez nuke nahi zugandik aldendu  
Nere pozen irudia zera.  
Untzagako plazia  
Gure gazte-leku berezia  
Beti zaitut goguan.  
Zu lakovik beste bat  
Ezin lakovik beste bat  
Ezin diteke ba izan  
Gure munduan.

Eibarren da zerutxo bat....

Goazen ba, goazen  
Gure bihotzak  
Alaitutzera.

Goazen Untzagara  
Danok jolastera  
Soñu ederren  
Eragiñagaz  
Dantzatutzera  
Ta Eibarko herriaren  
Bizi-poza erakustera.

Berbak: Pako Larrañaga, "Pakol".  
Doiñua: Agustin Zuluaga.

## **123. HIRU GIZON ILUSTRE**

Hiru gizon ilustre itturri bidetik  
Mozkor-mozkor eginda Elgetakaletik,  
Aulestik heltzen zion Loperi lepotik  
Ez muzturrez aurrera erortziagatik.

La esposa decía Iriagaitikan:  
-No le puedo sacarle Tocayonetikan.  
Porque le gusta mucho napar beltzetikan  
No le gustará tanto Urkusuko urikan.

Urkusuko itturixak baleki berbetan  
Zerbaitt esango leuke astelehen goizetan.

Egillia: Anbrosio Atxa, "Itxaso"

## **124. PLAENTXIATARREN IRIARENA**

Sekula ere ez da sartu izan  
plaentxiatarrik zeruan,  
nunbaitt ez zuten meriturikan  
irabazitzen munduan,  
Kristauarentzat Jaungoikuaren  
Justizia da munduan;  
kondenaturik arkitzen dira  
horiak danok infernuan.

Behin bat San Pedro bultzaturikan  
zeruetara sartu zan  
da berehala prisa guztian  
jende tartian gorde zan;  
San Pedro berriz billa zebillen  
nunbaitt azaltzen ote zan,  
ahalegin franko egiñagaitik  
iñundik agertzen ote zan.

Orduan Pedro Jaunarengana  
larri juan zan berehala,  
eta esan zion plaentxiatar bat  
zeruetan sartu zala  
infernurako destinaturik  
anima hori zeguala,  
jente artean ezkutatu ta  
ezin billatu zuela.

Jaunak Pedrori modu honetan  
eman zion errespuesta:  
-Plaentxiatarra izan ezkero  
billatzia da erreza:  
"Iriarena" danboliñakin  
jotzen hastia da bata,  
pozik saltoka ekingo dio  
zeruan dalakuan festa.

"Iriarena" danboliñakin  
jotzen ziranian hasi  
plaentxiatarra danen artian  
saltoka zuten ikusi,  
San Pedro berriz haren ondorik  
egin baiño lehen ihesi  
harrapatuta zeruetatik  
Infernura zuten jaitsi.

Berehalaxe han sartu zuten  
bere lagunen onduan  
plaentxiatarra kontu kontatzen  
danen tartian gertu zan,  
Demoniuak ikusirikan  
pozturik galdezu zuan,  
ia benetan ote ziraden  
Karnabalak Infernuan.

Toki hartako berotasunez  
ziharo egarritturik  
galdetzen zuen:- ez al dok hemen  
iñun sagardo tokirik?  
berriro neri tokatzen bazait  
zeruetara sartzerik,  
“Iriarena” jotzeagaitik  
ez juat egingo saltorik!

.....  
Hau entzutian, plentxiatarra,  
San Pedrogana juan zuan,  
Eta esan jotxan:- Parkatu jauna  
Damuturik naiz gaurkuan;  
Umore oneko dantza zalia  
Beti izan nintzan munduan,  
Hargatik ezin geldirik egon  
“ Irikuaren” soiñuan.

Irriparrez da arpegi alaiz  
Diño San Pedrok orduan:  
-Sosega zaitez, parkatzen dizut,  
Exeri lehengo lekuan;  
Zu bezelako gizon alaiak  
Behar dittugu zeruan.  
Plentxiatarra, gelditu zaitez  
Betiko neure onduan.

Barriemoilliak: Pedro Arrizabalaga, “Xoxua”, Juanito Lazpita eta Juan San Martin.

#### 125. BERTSO BERRIAK AUTOMOBIL ZAHARRARI

Bertso berri batzuek  
jartzera naiz hasi,  
errukixa hartuta  
automobil bati;  
herrenka ta zatika  
kalian da agiri,  
okelia partitzen  
karnizerueri.

Sarritan ikusten da  
kale baztarrian,  
iñora juan ezinda

itzura txarrian.

Okela zahar da gazte  
katxarro zaharrian,  
ez da giro egoten  
bere aldamenian.

Derrigor izan bihar  
gizon jakintsuak,  
okelak partitzeko  
Eibar guztikuak;  
Automobil horrek  
dittu merituak,  
gure lagun Ermere  
palaziokuak.

Erremolkian dabil  
aspaldi honetan,  
lotsaria emanaz  
bazter guztixetan.  
Herriko alkate jauna,  
hartizu benetan!  
hori kendutziakin  
danon bistatikan.

Automobil hori da,  
ian asko eiñdakua;  
bere burua berriz,  
ondo pagatua.  
Erretiro on batekin  
emon deskantsua....  
irabazitta dauka  
auto gizajuak.

Horra, sei bertso berri  
katxarrro zaharrari,  
dabilrelako beti  
danon penagarri.  
Gogoz eskatzen diot

alkate jaunari,  
zaharra erretirau-ta  
barixa ekarri.

Egillia: Joxe Izeta

#### 126. PETRA TA MARIA

Nunbait kantatutzeko  
sei bertso berriak,  
honek asmatu dittu  
nere memoriak.  
Mesede egin deixala  
autoridadeak  
ta bizkor kentziakin  
goiko bi etxiak.  
Petra ta Maria  
bi andra badira,  
beren familia  
ezta asko hobia,  
Eibarren gazte dana  
hondatzen doia.

Lehelengo Marianian  
gero Petranian  
Haintzen ibiltzen gara  
gaurik gehienian.  
Goizian seiretako  
hasi bihar lanian  
gu ez gara egoten  
umore onian;  
ugazaba aurrian  
ez genio ederrian,  
gu estadu txarrian  
tornuaren aurrian  
zutiñik egon ezinda  
jausi biharrian.

Eibarko alkatiak  
agindu eitxen badu  
guztiak eiñ deigun  
berari erregu,  
mesedez egin deixala  
bi etxiak kendu  
nik bakarrik ez diñot  
askok esaten du:  
gizonak argaldu,  
buru asko ahuldu,  
gaitz txarra zabaldu,  
osasuna galdu,  
ta galdu barik daukanak  
kuidado asko hartu.

Bilbon baztartuta  
gero Eibarrera,  
Horixe izaten da  
nesken karrera.  
Han pezeta batian  
hemen bost hartzera,  
garbi diralakuan  
gu ibiltzen gera;  
noiznahi joaten dira  
noiznahi gertatzen dira,  
on danak etara  
txar danak etxera,  
harek barik pasatzia  
askoz hobe da.

Bilbora joaten dira  
jaiero dozenak  
batzuetan mutillak  
bestian gizonak,  
Bengoak errezipitzen dittu  
handikan gehienak.  
Harek ematen dio  
komeni zaiona,

kentzen du erana  
baitxa ere lana,  
badakigu ona dana  
txarrik eztaukana,  
da zertan gelditzen da  
ezer eztaukana.

Horrek kentzen ezpaditxue  
ez dago gauza onik,  
nik ez dakat behintzat  
esperientzia onik:  
bat baiño gehiago  
hor ikusten dut nik  
medikuz mediku  
osatu eziñik,  
egon ezin miñik  
egun bat bez onik,  
sufridu eziñik  
eziñ egin lanik,  
iñok be ez du esango  
hau gizurra danik.

Egillia: Anbrosio Atxa, "Itxaso".

#### 127. GOINEN TANGUA

La quise y yo la quise, tal vez yo la quería  
Y le adoraba tanto que se comió un botín,  
Me voy al cementerio hacer un piquiliqui  
Me sale un muerto vivo con medio calcetín.

Era una noche de día, me quité los calzoncillos  
Me quedé mas chiquitito por medio del Matineli,  
Y le quedaba amor propio que tanto que la quería,  
Cinco por ocho cuarenta, nos fuimos ande Asalguia.

Por eso compañeros me quedo yo en la farra  
Me voy al cementerio hacer un piquiliqui,

Me sale un muerto vivo jugando a la pelota  
Detras doña Carlota pregunta por "Goin".

Doiñua: Noche de Reyes tangua  
Berkak: Emilio Goin Goin  
Barriemoillia: Juanito Lazpita

#### 128. BART ARRATSIAN

Bart arratsian tabernatikan  
Berandu xamar juanda  
Neure andria hasarre zeguan  
Neuri atzia emanda.  
Konprenituko dezute, noski  
Hainbesteraiñok ez zala,  
Bakar-bakarrik lo egin nuen,  
Beste ohera juanda!

Goizeko laurak ingurua zan  
Oso tenploso nenguan,  
Neure andriak galdetu zidan  
Aber orduan nahi nuan.  
Errespuesta eman nion nik,  
Tokatzen zaidan moduan:  
-Nere pittuak behia jo du ta,  
Lehen esan bihar zenduan!

Barriemoillia: Roberto Bilbao.  
Oso bertso ezagunak Eibarren, ixa nagusi guztiek ezagutzen dittuez, gizonek batez be.

#### 129. HAN VENIRO

Han veniro, han veniro  
Bilbotik andra bi  
Entre los dos han bebiro  
Azunbre bi-txerdi.  
Buena erracion es eso  
Henbra birentzako;  
Vaya un par de puercos  
Txarrikortarako.

... ez ei zeguan ondo ikusitta andrazkuek edatia.

### 130. NERE AMAK PENTSATZEN ZUEN

Nere amak pentsatzen zuen  
Alaba dontzella zeukala,  
Dringilin-dranguluan egiñagaitik  
Jaunak barka nazala.

Drink eman da drank hartu  
Ez ziran gaizki portatu,  
Haiek porruak jorratu  
Ta nik dirua kobrazu.

Dringilin-dranguluan egiñagaitik  
Zulua bere lekuan,  
Gorputzari gustua emanez  
Diruak egin nittuan.

Drink eman da drank hartu...

Barriemoilliak: Mariasun Angera eta Jose Sarasua. Gonzalo Sarasuari ikasittakua.

### 131. TENEMOS EN MONDRAGON

Tenemos en Mondragón  
Una gran cerrajería  
Y llegando a Placencia  
Cañones de artillería,  
También tenemos en Eibar  
Una escuela de Armería  
Y llegando a Durango  
Todas Hijas de María.

Barriemoillia: Jose Kareaga.

### 132. INTXAURRA NUEZ

Intxaurra nuez  
Eibarren Martzelo juez,  
Mi querida Inozentzia,\*  
Maltzatik haruntz Plazentzia.

Intxaurra nuez  
Eibarren Martzelo juez  
Nahi dabenak siñistu eta  
Nahi ez dabenak ez.

Tela, tela, tela,  
emongotzutela  
makilla txiki batekin  
burutikan behera.

\*Ai señorita Inozentzia  
Maltza baiño harutzago Plazentzia

Barriemoilliak: Juan Mari Narbaiza, Joakin Gorrotxategi eta Alberto Larrañaga.

### 133. EUFI, EUFI

Eufi, eufi,  
Los eibarreses, los eibarreses,  
Eufi, eufi,  
Los eibarreses estamos aquí.

Tenemos un defecto,  
Que no nos gusta, que no nos gusta,  
Tenemos un defecto,  
que no nos gusta el txakoli,  
pero las mujeres sí.

Barriemoillia: Ziriako Ortiz de Zarate.

### 134. EN EIBAR SE HA FORMADO

En Eibar se ha formado  
Una nueva sociedad,  
Que por rótulo le han puesto  
Txapela gorri batela.  
En Eibar no se puede,  
No se ve más que postín,  
Que con los trabajadores  
A bailar no quieren ir.  
Esas son las chicas postineras  
Que cuando bailan dicen así:  
-Nosotras no bailamos con obreros,  
pero con los de gabardina sí.

Postinera, postinera,  
No te des tanto postín,  
Que los chicos de mi pueblo  
No se han hecho para ti.

Barriemoillia: Libe Betolaza. Berari izebak irakatsi zetsan.

### 135. MARITRANPOSA MENDIGOITTIKO

Maritranposa Mendigoittiko  
Badozu milla grazia,  
Mutil gaztiok engaiñatutzen  
Gaztetatikan hasia.

Egun batian erromerian  
San Pedron giñan alkartu  
Oiñak ariñak, gorputz liraiña  
Ez giñan asko nekatu.

Izena det nik Juan Bautista,  
Ofizioz armerua,  
Eibarko Arraten jaiua eta  
Iraegi apellidua.

Urregorritan zabaldu zala  
Beraren esperantzia,  
Baiña neskazarran eskillaretan  
Utzi behar du bizia.

Barriemoilliak: Jose Kareaga, Juanito San Martin eta J. M. Unzeta barrenetxea.

### 136. EZ DET ESANGO

Ez det esango, badet esango,  
Ez naiz ixilik egongo:  
Nere herriko neska gaztiak  
Ez dira monja sartuko.

Haiek, hoiek; haiek, hoiek,  
Arraguetako neskoiek!

Juan San Martin, Eztenkadak, Kulixka sorta. 88.orr.

### 137. ERMEREN BURUA

Ermeren burua ta garaunak  
Ez dare kondizuan,  
Harrokeriaz esaten dabil:  
-Bizi naiz Palaziuan.  
Palaziuan bizi da baiña  
Bestiak dibersiuan,  
Hoba leuke billete zulatzen  
Balebill estaziuan.

Egillia: Joxe Gallastegi, "Gallo".

### 138. ELGETA MALETA

Aquí viene Elgeta  
Con el carrito,  
En todas las tabernas  
Bebo un txikito.  
El que tiene un recadito  
Que me traiga a mí.  
Txikitán bat eta perruan bi,  
Errealian dozenerdi.

Yo duermo en mi cuadra  
de Bidebarrieta,  
aunque se ria la gente  
a mí no me importa.  
Elgeta maleta  
Toca la corneta,  
El que tenga una maleta  
Que me traiga a mí.

Txikitán...

Barriemoillia: Angeles Oiartzabal.  
Eibarren oso kantu ezaguna.

### 139. MATEO ALTZU

Mateo Altzu etorri da eta  
Gaizki esaten hasi da,  
Ez dakit nola izan liteken  
Pertsona horren klasia;  
Iñuzentzia ote dan edo,  
Harturik nago trazia,  
Talento asko ez dauka baiña  
Galanta kalabazia.

Alderen baten hasi balitza  
Tamaiña horretako nabua,  
Bereinkatua izango zan ba  
Haura hazi zan zolua,  
Horri atzetik begiratuta  
Iruditzen zait globua,  
Berorrek ez dau pentsatzen baiña,  
Mateok dauka burua!!

Mateo Altzu etorri jaku  
Edozer gauza esaten  
Baiña neuk ere esan behar diot  
Zerbait halakoren baten,  
Nere lagunak, begira horri  
Samatik gora zer duan

Horren burua ezin eruan  
Leike karretilla batean.

Aspaldi hontan Mateo dabil  
Orruaz eta ojuka,  
Bertso-lanian eingo leukela  
Kontrariorik baleuka,  
Danok dakigu listua dana  
Hori zertarako uka?  
Neu be listua izango nintzan  
Horren burua baneuka!!

Egillia: Joxe Gallastegi, "Gallo".  
Barriemoillia: Juanito San Martin.

#### 140. HAMALAU OILLO DAUZKAT

Hamalau oillo dauzkat  
Txabola batian,  
Mutillak, jan behar naute  
Hara juatian,  
Izorrauko ez banabe  
Halako batian  
Aittakin joan biharko naiz  
Ezkondu artian.

Barriemoillia: J.M. Narbaiza. Nikolas Altzuk kantatzen zeban.

#### 141. MARIA TITILITAÑA

Maria Titilitaña, sal al balcón  
Porque si tú no sales no sale el sol,  
Maria Titilitaña vuelve a salir,  
Porque si tú no sales yo he de morir.

Titilitaña, taña, taña  
Tú eres la reina,  
Tú eres la reina,  
Titilitaña, titilitaña  
Tú eres la reina  
De Frontoi Zahar.

Eibarren oso kantu ezaguna.  
Maria Titilitaña Eibarko pertsonaia ezaguna izan zan.

## 142. OXABIA

-Oxabia primero  
Nun dek andria?  
-Ganbaran sartuta  
Kutxa zaharrian.  
-Zer ematen diok  
Jan da edanian?  
-Potzuko ura ta  
Porrusaldia.

Barriemoilliak: Joakin Gorrotxategi eta Julia Arregi

## 143. GOAZIAK PAITXO

Goaziak Paitxo  
Goaziak haruntz  
Urte bi baño lehenao  
etorriko gaittuk.

Brasilen ta Argentinan  
Biziko gaittuk ondo,  
Baña beti dispuesto  
Eibarrera etortzeko.

Ai Maritxu, Ai Maritxu  
Urte bi baño lehenago ezkonduko gaitxun!  
Pero el inglés dijo:- fru-fru,  
Harrapatu a mi no me la vas a dar tú.

Una noche en París a las tres de la nuit,  
Me encontraba borracho perdí  
En la gendarmerí.  
La guerra se finí, a America partí  
Y se quedó mademoisel  
Con el enfant petit.

Barriemoilliak: Juanito Lazpita, Lorea Lasa eta Jose Sarasua

## 144. SEI BASO

Sei baso atara ta  
Sei traguau hustu,  
Beste sei erateko  
Iñor bihar eztu,  
Erango leuke baiñá  
Pagatzia ahaztu,  
Holan tabernaria  
Eziñ aberastu.

Barriemoillia: Juanito San Martin

## 145. GAUR FORJARIAK

Gaur forjariak lana utzita  
Gatoz guztiok kalera,  
labeak oso itzaldurikan  
jaikera bat egitera,  
maillu, burdin ta gaiñerakoak  
botarikan bazterrera;  
ez degu nahi guk berriko sartu  
lehengo tokira lanera.

Haundi eta txikiak  
Alkarrekin nahaste,  
Izardia zupatzen  
Eduki gaituzte;  
Besteren mende beti,  
Domeka ta aste,  
Nagusiak diruak  
Gugatik dituzte.

Oso goizetik lanian hasi  
sua eta hauts tartian,  
dinbi ta danba gelditu gabe  
gutziz illundu artian;  
sosegu eta deskantsu gabe  
geure buruen kaltian,  
horregatikan lanak utzita  
gatoz guztiok batian.

Ez badigute guri  
Jornalik haunditzen,  
Nahiko lan gu ostera  
Lanera bihurtzen;  
Arrazoiakin dogu  
Gehiago eskatzen,  
Iñorgatik ez gara  
Gu ikaratutzen.

Hiru babarrun jatiagatik  
Horrenbeste neke, pena  
Erdi ahuldua aurkitutzen da  
Forjariaren barrena;  
Gure kontura egiñ ohi dute  
Nagusiak nahi dutena,  
Langilliaren bizkar gizendu  
Dute beren boltsa dena.

Gora bai jostaeta,  
gora forjariak!  
langille trebe zintzo  
da maillulariak.  
Lurpera ta lurpera  
beti nagusiak!  
ez dituzte egingo  
berak nahi guziak.

Hoien sakelak bete eziñik  
Hamaika izerdi tanto,  
Kopetetikan isuri zaigu  
Gu tontuak giñalako;  
Baiñan orain guk arrazoi ona  
Ezagutzen dogulako  
Merezi aña eskatzen dogu  
Hemendikan aurrerako.

Ez badute entzuten  
Arrazoia ongi,  
Ematen ezbaigute  
Behar aña guri;  
Su emango diogu  
Geure Fabrikari  
Eta nagusiaren  
Etxe guztiari.

Egillia: Pepe Artola.

## **146. ARDURABAKUEN AEROPLANUA**

Kanta berri batzuek  
dittugu atara,  
aitzen emoten gatoz  
herri honetara;  
Aeroplanuan juateko  
asmuetan gara,  
bihar urtetzen degu  
Ameriketara.

Guk ez degu izango  
Gauza hoberikan,  
Bihar ondo armozau  
Goizian-goizetikan;  
Ez degu eramango  
Barrutik hotzikan,  
Bildur gabe joateko  
Lañu gañetikan.

Hamairu lagun gera,  
Guztiok argiak,  
Ez gaittu bildurtuko  
Hotzak eta euriak.  
Bizirikan etortzen  
Bagera erdiak,  
Kontatuko dittuguz  
Guk hango berriak.

Bihar urtetzen degu  
Guziok aidian,  
Ikusiko gaittuzu  
Agurka bidian;  
Ondo urtetzen besku,  
Daukagun idian,  
Ez gera etorriko  
Beste urte bian.

Anjel Markano jauna  
Degu pilotua,  
Gazte-gaztetatikan  
Estudiatura;  
Harek hartzen duanian  
Martxa diretua  
Laster izango gera  
Amerikatuak.

Benito Rejil jauna,  
Gizona justua,  
oserbaziorako  
dago nonbratua,  
Austin Etxeberria  
Mekanikakua,  
Serafin Esnaola  
Koziñarakua.

Nueva Yorkera guaz  
Lehelengo runbuan,  
Handik Brasileraño  
Berriz hurrenguan;  
gero, Polo Nortera,  
hirugarrenguan.  
Bazterra billaukogu,  
Badago munduan.

Polo Norten ei daude  
hain paraje baltzak,  
harako egin dittuguz  
aproposko galtzak;  
Eskuetan harturik  
galtzairuzko lantzak;  
ez gaittezan han galdu  
hotzak edo hartzak.

Izotzez eiñda ei dago  
Hango mendi dana,

Hara gora igotzen  
Izangou lana;  
edukitzen badegu  
Edana ta jana,  
Esperantza badegu  
Llegauko gerana.

Igotzen badegu hango  
Mendi tontorrera,  
Begiratukou handik  
Zer daon bestaldera;  
Biderikan ikusten  
Badegu aurrera,  
Laster llegauko gera  
Mundu bantzarrera.

Aparatugiñan eiñ dogu  
urte bixan lana,  
hortan gastatu dogu  
geure diru dana;  
oin berriz biderako  
bihar dogu jana,  
horregatik eskatzen dogu  
errialtxo bana.

Horra, berri-berriak  
Guk hamabi bertso,  
Esanaz nola diran  
Gure paradiso.  
Jainkoari eskatzen diogu  
Osasuna oso,  
Berriz hona etortzeko  
Danok animoso.

Egillia: Anbrosio Atxa, "Itxaso.  
R.Eibar, 1962ko Sanjuianak, 33.or. J.S.M.  
1930eko aratostietan kantautako bertsuak.

#### 147. VALS: EIBARKO HERRIA

Eibarko herria  
gutziz da noblia,  
han egiten dan lana da  
oso ona, enda\* berriz ugaria.

Egiten da pistola  
eskopeta ariña,  
fundizioko bihar  
grabauan ere, gauza fiña.

Eibarko semiak  
Ein zazue ahalegiña,  
ikusi deixen umek  
gurasuak egiña.

Eibar zer dezuten  
da gauza jakiña,  
Gipuzkoa barruko  
herririk haundiña.

Egiten da bizikleta,  
josteko makiña,  
laister egingo degu  
automobilla.\*

Bizi bedi  
Eibarko herria  
zabal zazu  
aurrera bidia.

Neskatillak ere  
oso ikusgarriak  
pozik egoten gerade  
ikusten euren gerri enda aurpegiak.

Begiak argiak,  
musu alegriak,  
etxian ere dira  
oso langille enda garbiak.

Pentsatzen badu iñok  
darela hobiak  
ikusi dirazela  
gure lau probintziak.

Berak esango du  
badittu begiak,  
ederrenak dirala  
gure neskatillak.

Hizketan goxo enda  
kantuan hobiak,  
dirudixe brillante  
estutxen gordiak.

Munduari  
argi egin  
zeuen begi  
ederrokin.

Berbak: Anbrosio Atxa, "Itxaso".  
Doiñua: Andres Garate, "Beltxi".  
Urtiekin, industri aurrerapenak zirala ta automobilla gutxitxo zalakuan batzuk kantatzen  
zeben:  
\*ere hegazkiña edo \*bonba atomikua  
\* Enda= eta

## **148. TAILLARRARI ZORTZIKUA**

Tallar honetan lagun ugari  
hasi gerade lanian,  
zer egiten dan ikusitzera  
etorri nahi dezunian.

Gerri makurtuta nekatzen  
egoten gerade astian,  
jaia heltzeko desiatzen  
pasatutzeo umorian.

Etxian ondo ikusi nahirik  
enda faltatu ez dein jana,  
horregatikan egitten dogu  
izardiz beterik lana.

Aste pasauta guk etxian  
emoten degu pozgarria,  
esanaz:- amatxo maitia  
hauxe da nik irabazia.

Berbak: Anbrosio Atxa, "Itxaso".

Doiñua: Andres Garate, "Beltxi".

## **149. AUNQUE USTEDES NOS VEN**

Aunque ustedes nos ven  
Con estos trajes tan indecentes,  
Todos somos hijos de buenas casas  
Y de pudientes.  
Por eso a nadie echamos  
La culpa de nuestro mal,  
Es que le tenemos mucho  
Cariño al arte musical.

Nosotros por la música  
Somos capaz de andar  
Desde aquí a la Manchuria  
Trailalai sin descansar.  
Hacemos competencia  
Al mismo tren express

Carretera adelante  
Sin cansarnos los pies.

Damos unos conciertos  
De grandes ejecuciones  
Y para que ustedes vean  
Les vamos a tocar  
En este mismo instante  
Música celestial.

Barriemoillia: Lorea Lasa.  
Patxiko Etxaniz eta bere koadrillia kantau zeben. Mende hasierako aratustiak.

#### 150. AFILADORIENA

Niñas eibarresas,  
Niñas salir al balcón!  
Veréis qué bien trabaja  
El joven afilador.  
La niña decía con gran ilusión:  
-Qué triste es la vida del afilador!  
Afiar, ssssssshhhhhhh, ssssssshhhhhhh!  
Afiar, que sea cuchillo,  
Que sea navaja, que sea otra cosa cualesquiera  
Aunque sea de valor.

Barriemoillia: Justina Orozko eta Salvador Marzana.

#### 151. PLAENTXIAKO KONPARSEN KANTUA

De Francia venimos,  
Hasta aquí hemos llegado  
Dos aviadores en un aeroplano.  
Si el tiempo no impide,  
Tendrán ocasión  
De ver esta tarde  
Pruebas de aviación.

Barriemoilliak: J.R. Orozko eta D. Tolosa. Eibarren oso kantu ezaguna.  
Antxiñako aratostietan kanpoko konparsak be etortzen ziran herrixa alaitzera.

#### 152. LAS CHICAS EIBARRESAS

Las chicas eibarresas  
Lloran y tienen razón,  
Porque ninguna se casa  
De presumidas que son.

Los chicos eibarreses  
Tipos aburridos son,  
Cuando llega el domingo  
No quieren que salga el sol

Para vestir sus gabardinas  
Con cinturón de charol.

Barriemoilliak: Angeles Oiartzabal, Dolores Tolosa eta Margarita Murgizu.

#### 153. A LA ENTRADA DE GÜERNIKA

A la entrada de Güernika,  
A la entrada de Güernika  
hay una piedra muy grande...  
el que tropieza y cae, el que tropieza y cae  
es señal de que no lo ha visto.

Rica Basaura, Basaura mia  
tanto tiempo que no has barrido la cociña  
barre, barre, barre sin cesar,  
iay! Dandublio, iay! Dandublio  
iay! Dandublio, fuma in chu.

El convento era muy grande,  
El convento era muy grande  
Frailliak txiki-txikixak  
Allí adentro había, allí adentro había  
Más de mil amak izateko.

Rica Basaura, Basaura mía.....

Egillia: Marino Solaguren.  
Barriemoillia: Juanito Lazpita.

#### 154. CHINITO, ¿QUE VENDES TU?

-Chinito, ¿qué vendes tú?,  
Que yo te quiero comprar,  
Pero dime lo que tú vendes  
Para oírtte pregonar.  
- ¿Otra vez?. Vendo collales,  
Blasaletes p'a las señolas,  
Cansonsillos amalillos  
Pala señoles potlosos;  
No me llame mamalacho  
Polque si no me malcho.

Egillia: Emilio Goin  
Barriemoilliak: Anjel Urdanpilleta eta Juanito Lazpita.

#### 155. ARDAUTXO BALTZA

Ardautxo baltza zer daukak hik,  
Larregi edanak ez gauzonik,  
Gizonak ipintzen badakik hik  
Zutiñik ibilli eziñik.

Barriemoillia: Juanito San Martin. Aittari ikasittakua.

## 156. MENDIKO UMIA NAIZ TA

Mendiko umia naiz ta  
Mendia det maite,  
Ez nintzakela biziko  
Menditik aparte.  
Eta gaur kalian  
Bizi banaiz ere  
Ez naiz bizi mendira  
Begiratu gabe.

Gure baserriko gauzak  
Nahi dituenak jakin  
Ez dauka beste gauzarik  
Etortia gurekin.  
Hantxen ikusiko dezu  
Begiratu batekin  
Pareta haundiak eginda  
Urdaiazpikuakin.

Trianlala-lalalabarabaran....

Bost anai izan gera  
Bi arrebarekin  
Aspaldian ez gera  
Egon alkarrekin,  
Frantzisko ta Manuel  
Bixente ta Juakin  
Joxepa ta Maria  
Errromualdorekin.

Barriemoillia: Roberto Bilbao.  
Eibarren oso kantu ezaguna.

## 157. AGUR ESANDA BANUA NI

Agur esanda banua ni  
Zuk nahi badezu etorri  
Amoriozko begi ederrak  
Erakustera alkarri.  
Gaur hamarretan soltera nintzan  
Hamabietan senartu  
Ordubi santu goizekuetan  
Gelditu nintzan alargun.  
Ai, zelako setimentua,  
Ai, zer pena bihotzian,  
Ordubi santu goizekuetan  
Alargun gelditutzian.

Barriemoillia: Mariasun Angera. Paulo Matxinek Kontxa Zabaletari irakatsi zetsan eta honek Mariasuni.

## 158. GOIZETIK TABERNAN

Goizian sartu tabernara eta  
Ateratzen naiz azkena;  
Egun guztian zurrutian ta  
Etzait betetzen barrena.

Ai, hau edari zoragarria,  
Neri gustatzen zaidana!  
Maria Jesus, bihotzekua,  
Bete hamaseigarrena.

Hiru ta hiru sei dira eta  
Beste seirekin hamabi,  
Neskazar baiño hobe genduke  
Ardua merke balebil.

Barriemoille: Ziriako Ortiz de Zarate.

## 159. ZATOZTE BADA

Biba Manuel Beitia  
Ta beraren koadrilla.

Txikia izan arren  
Izan leikek abilla  
Ez ziok ikututzen  
Arraunakin killa.

Zatozte bada, zatozte bada  
Ikusi dezagun bandera  
Bilbo horretatik ekarri degu  
Erregalua ederra.

Han ziran Santurtze  
Abanto-Zierbana  
Baiña biktoriosuak  
Ondarruakuak.

Barriemoillak: Jose Sarasua, Mariasun Angera, Alberto Larrañaga eta Imanol Ortiz de Zarate.  
Eibarren oso kantu ezaguna.

#### 160. ARRAINDUNENA

Alkate jaunan baimenarekin  
Bakian gera atera,  
Kalerik kale kantuan gatoz  
Karnabal zelebratzera.  
Urten guztiok balkoietara  
Arraindunak ikustera.  
Gauza ontxo bat emon leikio  
Limosneria bazera.

Karmen kantuan, Joxepa dantzan,  
Nikolasaren barria,  
Ondo pozikan entzuten gaude  
Beste koadrilla guztiak,  
Sebastiana be zortzikuetan,  
Anitaren komeriak,  
Ez dakit zeiñek pasauko luken  
Karnabal-erdi hobia.

Asko duenak jamoi eder bat  
Edo korda bat txorixo,  
Solomo zati lodi-lodi bat  
Asko estimau leikio,  
Beste guztiak txakur txiki bat,  
Hori bere ez da prezixo,  
Zeuen senarrei tabernarako  
Lehenago eman leikio.

Barriemoilliak: Miren Areitiaurtena eta Maria Bengoetxea, "Txindurri".

#### 161. DONOSTIAKO HERRI TXIKIA

Donostiako herri txikia  
Baiña plaza zabala  
Hantxen dadukaz alargun batek  
Ederrak hiru alabak.

Ondo esanda eskatu nion  
Gaztiena behar nebala,

Errespuesta eman ziraden  
Mutil pobria nitzala.

-Ni mutil pobria banaiz be ere  
Zu panaderan alaba  
Ogi berotan jango zeunkela  
\*Naparrua ta Araba,  
Ardo goxotan gutxitxo zeunke  
Ondarruako kanala,  
Ebroko urakin ezin garbitu  
Zure atorra maskala!

Batzaillia: T. Etxebarria  
Barriemoilliak: Imanol eta Ziriako Ortiz de Zarate.  
\*Zeure ta neure jornala.

#### **162. TIRA, TIRA MUTILLAK**

Tira, tira mutillak  
Formalidadia,  
Debara joan behar degu  
Txaneltxo batian.

Afaldu neban bapo-bapo,  
Goazen bai plazara  
Hantzen egingo degu,  
Zer? Dantzán?  
Gogotik ahal bada.

Barriemoillia: Joakin Gorrotxategi.

#### **163. LIBERTADIA**

Libertadia eskatzen diogu  
gure herriko alkate jaunari,  
eta jendia alegratzeko  
apropos gu gerade hona etorri.

Gure herri maitia, alegratu jentia  
bixiguak ez du eman aurtengo urtian  
antxoak emango du etortzen danian  
irabaziko degu aurtengo urtian.

Mutil gaztiak egonagatik  
Ondarruako neska gaztiak  
Ez diralako ondo pintatzen  
Ez da erraza danak ezagutzen.

Gure....

Udabarrian txoriak  
Alegre etortzen diranian  
Gu ere alegre gatoz  
Triste egonagaitik neguan.

Gure herri maitia.....  
Barriemoilliak: Juanito Lazpita eta Jose Mari Hernandez, "Tigria".  
Eibarren oso kantu ezaguna.

#### 164. ANTONIO Y TXURRUALDE

Antonio y Txurrualde, hijo de Motriko,  
Habiendo naufragado en el Báltico,  
Hablaba siete idiomas, buen diplomático,  
Astuto y financiero como político,  
Hombre simpático, algo fanático,  
Como buen náutico, llegó al Cantábrico  
Atravesando a nado el Atlántico.

Egillia: Mendaro Txirristaka.  
Barriemoillia: Rosalio Lejardi.

#### 165. ONTZI TXIKI BATIAN

Ontzi txiki batian  
Honbeste lagun,  
Ez dakit zer biaje  
Atera behar degun.  
Horizonte aldian  
Sartu giñanian  
Haizerik ez genduen  
Zortzi egunian.

Jendia aspertuta  
Geldik egonian  
Euzki erre azpian  
Kubierta gañian,  
Legorrez aspertuta  
itsasuetara  
hirurogei lagun goiaz  
Montevideora.

Ni naiz kapitan pilotu  
Zu zaraz kapitan pilotu  
Da gañera neuri danok obeditu  
Obeditu.

Ni naiz kapitan zil beltza  
Zu zaraz kapitan zil beltza  
Eta gaiñera indartsua  
Indartsua.

Heltzen badiot norbaiti,  
Bonbillo bat eta bonbillo bi!  
Heltzen badiot kasketik,  
Bonbillo bat eta bonbillo bi,  
Eragiok Santi arraunari!!

Barriemoillia: Roberto Bilbao.

#### 166. BIZKAIXAN BAZTAR BATEN

Bizkaixan baztar baten  
Anboto partian  
Bi gizon bizi ziran  
Baserri batian.

Bi gizon horiek ziran  
Peru eta Anton  
Euren bizi guztian  
Biziak Anboton.

Peruk esaten zion:  
-Etaraiak pipia  
Kuartillo térdirekin  
Beteigun tripia

Izorratu dedilla  
Atso tronpetia.

Barriemoillia: Jose Ramon Orozko.

#### 167. EZ DIZUT IRIKIKO

Ez dizut irikiko  
Gau illunian aterik,  
Barrenguak ez daki  
Kanpokuaaren berririk,  
Zatoz eguna argitzen danian  
Egongo gara alkarrekin.

Lau, lautara  
giñan hasi,  
Gehien zanak  
irabazi  
galtzailliok hobe degu  
hobeto ikasi.

Barriemoilliak: Jose Sarasua eta Mariasun Angera.  
Eibarren oso kantu ezaguna.

#### 168. DUAN, DUAN, DUAN

Duan, duan, duan  
Panparreria bagenduan.

Bart arratsian beranduan  
Nekez etxera jo genduan,  
Bixamonian sutonduan  
Panparreria bagenduan.

Duan...

Esan nion nik andreatzi:  
-Jaiki zaitez edo jaiki hari  
Alperrik izango da gaberdixa  
Ipiñi biharko don afarixa.

Duan.....

Barriemoilliak: Juanito San Martin eta Juanito Lazpita.  
Eibarren oso kantu ezaguna.

#### 169. GURE AMAMA

Gure amama, gure amama  
Gure amama ganbaran dago  
Kartetarako jokuan,  
Berriro ere, berriro ere

Berriro ere ibilliko dira  
artaxoriak soluan.

Segi, segi  
Geure bizimoduari,  
Ez egin kasorik  
Atsuen esaneri.

Ia,ia,ia,ia,  
Neskazaharraren fantasia,  
Hartzen badiñat illintzia  
Erreko diñat eperdia.

Barriemoilliak: Juanito San Martin eta Maria Bengoetxea, "Txindurri".  
Illintzia sutan egoten zan egurra zan, erdaraz tizón esaten jakona.

#### 170. CUANDO BAILO CONTIGO

-Cuando bailo contigo  
Jai arratsaldian,  
No pienso yo otra cosa  
Etxera joatian.  
Aquella si que es guapa  
Guztien tartian,  
Me casaré contigo  
Hurrengo urtian.

-No eches tú las erredes  
Ni katiatzeko  
No tengo muchas ganas  
enamoratzeko  
sois engañosos todos  
egia esateko,  
ya tengo yo motivos  
eskamentatzeko.

El lunes en la fábrica  
Komentaria:  
-¿qué te parece Encarna  
nere nobiua?  
Aquel si que es guapo  
Mutila salaua,  
Doctor de medicina  
Du ofiziua.

Egillia: Mendaro Txirristaka.  
Barriemoillia: Ziriako Ortiz de Zarate.

## 171. EDERRENA ZERALA

Ederrena zerala  
Diñozu, diñozu  
Baiña ez zera ederra  
Erropia baiño.

Ez dirala zuriak  
Iñorenak baiño  
Ederrena zerala  
Diñozu, diñozu.  
Ai, nere txoragarria  
Nere arimaren gaitzgarria,  
Gaizto engañagarria  
Nundik zera etorria.

Etortzen jatzunian  
Erropen jibia  
Triste geldituko da  
Bihotza zuria.  
Ederrena zerala  
Pentsatzen badezu  
Espillu traidoriak  
Engaiñatzen zaittu.

Ai, nere txoragarria....

Barriemoilliak: Faustina Baskaran, "Badetesia" eta Roberto Bilbao.

## 172. AURRESKU

Aurresku fue  
La danza que  
bailó el euskaldun  
para celebrar  
las nobles  
y sencillas  
romerías del país.  
Ante la iglesia  
En que  
Su anciana madre oró.  
Aquella iglesia

Aquellos tiempos  
Tan felices

Sin coquetos  
Ni chulapos ni puñales  
Ni piano de manubrio  
Ni nada inmoral.  
Sin codearse de  
Cuadros criminales  
Que siempre van provistos  
Del mísero puñal,  
Así bailó el euskaldun  
De raza bien  
Mostrando así  
Su agilidad  
Al son del txistu  
Y el tamboril.

Barriemoillia: Faustina Baskaran, "Badetesia".

#### 173. TXOMIN ETA BARTOLO

Nik ikusi nittuan  
San Juan gabian  
Txomin eta Bartolo  
Tabernako atian.

Hormia zalakuan  
Batak bestiari  
Txisa eite zion zart-zart  
Praketan alkarri.

Barriemoilliak: Juan Mari Narbaiza, Eugeni Ubera, Imanol Ortiz de Zarate, Dolores Tolosa et Margarita Murgizu.

#### 174. JUEGA POR MI GALLO

Juega por mi gallo  
Si quieres ganar  
Mi gallo Canelo  
Se fue p'a la valla  
Picó, mató  
Le chingó mi gallo al blanco.

Barriemoillia: Imanol Ortiz de zarate.

#### 175. ZE POLITAK DIRAN

Ze politak diran  
Larrosak zelaietan,  
Ze politak diran,  
Txarrixak kaioletan.

Ze politak diran  
gure herriko neskatxak,  
hartzen dabenian,  
esaten dute:  
-Tutilis-mukilis-maukilie.

Kurrin-kurrin, kataplin-plin-plin  
Esmeri-meri guai, torristi-flai  
Rekapazite, torristi flai,  
Rekapazite-torrai.

Barriemoilliak: Julia Arregi eta Laura Gorrotxategi.

#### 176. KOLORE TXURI-GORRI

Kolore txuri-gorri begiak urdiñak  
Eskuko bost bietzak ez dittun berdiñak.  
Gorputzian badittun gaztetako griñak,  
Lanak emango diñaz hire krabeliñak.

Bañan, halaxen ere importa ez etxian,  
Laztana ematen nion heldu bakoitzian.

Barriemoillia: Juanito San Martin. Aittari ikasittakua.

#### 177. HOY EN DIA LAS MUJERES

Hoy en día las mujeres  
No saben qué hacer  
Con la moda femenina  
se echan a perder  
entran a la barbería  
con satisfacción:  
-Córtame el pelo Lorenzo  
al estilo garçon.

Ellas no miran al qué decir  
Como todos debemos mirar,  
Que la mujer tenga que hacer  
Ese papel que haga reir.

Barriemoillia: Angeles Oiartzabal.

#### 178. LADRILLO

Ladrillo está en la cárcel  
Al barrio le extraña,  
Sus dulces serenatas  
Ya no se oyen más,  
Los niños preguntan  
Por su amigo querido  
Que algunas moneditas

Les echaba al pasar.

Los jueves y domingos  
Se ve a una viejita  
Llevando el paquetito  
Al que preso está,  
De vuelta a la viejita  
Los niños preguntan:  
-¿Ladrillo cuando vuelve?  
- Sólo Dios sabrá.

Allá en la penitenciaría  
Ladrillo llora sus penas,  
Sufriendo injusta condena,  
Aquel que mató en buena ley.

Los jueces le han castigado  
Sin comprender que Ladrillo,  
Siempre noble y sencillo,  
Trabajador como un buey

Barriemoillia: Lorea Lasa.  
Ladrillo hau Eibarko alguazil bat ei zan.

#### 179. MAITE TRATUA EIBARKO PLAZAN

Baba saltzen ari nintzala  
Eibarko Plaza Barrian,  
Neska gazte bat galdezka neukan:  
-Babiori zenbatian?  
-Hamazazpian saltzen dot baiña  
zuretzat hamabostian.  
Hamabostian nahi ez badozu  
Laztantxo baten trukian.

-Aizazu gizon ganorabako  
gaiñera lotsik gabia,  
babian truke zuk nahi zenduke  
neure laztana hartzia?  
Neure laztana aginduta daukat  
Bai eta neure honrria,  
Nik zeu baiño nahixago dot  
Jose Maria maitia.

-Neska politta, entzun egizu  
diñotsudan arrazoia,  
lau etxe ba(d)itut eta dirutan  
gutxienez bai milloia.  
Pentsatzen bozu neskatxa ederra  
Nerekin esposatzia,  
Lehenengotikan izango zara  
Gauza guztien jibia.

-Nik ez dot bihar zure etxerik  
ez eta ere milloirik,  
nik ez dot gura mundu honetan  
maitetasuna besterik.  
Ez eizu hartu gauza horregaz  
Batere buruhausterik,  
Ni ez nijua ukatutzera  
Behiñ emondako berbarik.

Egillia: Guillermo Bengoetxea, "Txindurri".

## 9. BERTSUAK

180. Bertso zaharrak Eibarko festeri
181. Eibar langille
182. Eibarren egin dute
183. Indalezio Sarasketa, "Eibarko Txikiya"
184. Aratusteko dantzariak
185. Eibarko mendiletaña gogoangarria
186. Arraguetari
187. Eibarko mendigoizale gazteari.Ikasi
188. Langille ikaslaria
189. Kalamuatik bertso berriak
190. Eibar euskalduna
191. Gallastegi txapeldun
192. Gora bihotzak
193. Indaleki Ojanguren
194. Patxikori kantak

Eibar ez da sekula izan oso herri bertsozalia, baiña tarteka-marteka agertu izan dira bertsolarixak. Hemen sartu doguz herriko ohitturak, pertsonaia ezagunak eta gertaera historiko eta bitxiak geure ustez onduen jasotzen dabezenak. Kanpuan mordua geratu dira, Eibar aldizkarixan Don Pedro Zelaiak eta Segundo Iturrealde idatzitakoak, Toribio Etxebarriaren Ibiltarixanak liburukuak, Juan Mari Narbaizarenak, Ego Ibarra kargitaratutako "Orbe" bertsolarixanak, aldizkari eta egunkari zaharretan topatutako asko... Dana dala, ia bildu doguzenak zeuen gustokuak diran.

### 180. BERTSO ZAHARRAK EIBARKO FESTERI

Bertso berriak jartzera nua  
Albait modu onian,  
Esanaz bada nolako festak  
Dauden Eibarko herrian.  
Dulsaiña eta musika ederrak  
Egunaz eta gabian,  
Zahar eta gazte poztu gaitezen  
Poztasunik onenian.

Korridak, berriz, omen daukaguz  
Iñun ezinda hobiak,  
Sevillan diran famatuenak  
Datoz toriadoriak;  
Zeznak, berriz, Salamancatik  
Izugarrizko haundiak,  
Kementsu dira haien aurrera  
Dijuazen pikadoriak.

Etortzen diraden kanpokuak  
Festetan alaitutzera,  
Neska lirañekin eukiko dute  
Elkar ezagutzeko aukera.  
Hemen daguan edertasuna,  
Beste herritan ote da?  
Zoraturikan joango dirade  
Jaiak pasata etxera...

San Juan gabian suzko erroberak  
Ikusiko dira aidian,  
Untzagako leku guztietan  
Eibartarrak alaitasunian.  
Ayuntamentu plaza horretan,  
Argi ederren artian,  
Aitona zaharrak piztuko dira  
Gaztetasun amesian.

Banda ederrak etorriko dira  
Alkar esamiñatzera,  
Enpeñaturik alde bakoitzar  
Premio ona hartzen.  
Aurreskulari ajillak ere  
Herrian espera dira,  
Festak asmatzen komisioko  
Gizonak portatu dira.

Eibartar danok urte guztian  
Daramagu, bai!, goguan  
Gure herriko zaindari dan  
Kristoren Igarle San Juan.  
Hargatik gatoz txoriak beziñ  
Alaitsu bere aurrera,  
Oingo ta betiko zoriona  
Denontzat eskatzen.

#### 181. EIBAR LANGILLE

Menditarde baten  
Dakusta nik herri bat,  
Erlategi antzez  
Bete-betia.  
Lanetik sortua,  
Lanez, bizi dana  
Egoren ertzean  
Eibar uria.

Txoko guztietan  
Ez dakust besterik,  
Langillea baño  
Azkar, trebea,

Bere lan txukunen  
Ospe ta entzutez,  
Harritu dabena  
Ludi guztia.

Izango dira bai,  
Beste herri batzuk  
Txukun, aberatsak  
Ospez beterik,  
Baña bere lanez  
Haiñ ospetsu danik,  
Ez dago lurbiran  
Eibar lakorik.

Eibartarrak beti  
Ezagutu dabe  
Lan eitia dala  
Jaunan legea,  
Erbeste honetan  
Gizon guztientzat  
Ezarrita dauken  
Zorion Bidea.

Gizartearentzat  
Onbide artean,  
onetarikoa  
lan eitia da.  
Anaitasunean  
Lan egin ezkero  
Bakezko bizitza  
Bera dakar ba.

Lana bizitza da,  
Lana maitasuna.  
Lana zoriona,  
Lana da poza;  
Hau kendu ezkero,  
Zer itxaron leike  
Eibarko herriak?  
Zer? Heriotza!

Jaunan legepeneak  
Askatasun-arauz  
Bardintasunean  
Bizi ezkero,  
Eibartar guztiak  
Anaitasunean  
Lana euko dabe  
Orain ta gero.

Goratu daigun ba,  
Eibarko herria,  
Ekin gogoz danok  
Eibarren alde,  
Izan daiten beti  
Goiko laguntzagaz  
Oraiñ artean lez  
EIBAR LANGILLE.

Egillia: Gabriel Manterola

#### 182. EIBARREN EGIN DUTE

Eibarren egin dute  
Afari haundia  
Sei lagunen artian  
Jan dute erbia,  
Jarri ziradenian  
Mozkortuta ia  
Alkarri esan nahirik  
Zein zuten nobia,  
Eta iñork ez zuen  
Hauxen da egia.

Zeintzuk ziraden hoiek  
Nahi dezute jakin  
Horra ba sei mutilzar  
Euron izenekin,  
Agirre eta Caro  
Mendikuterekin  
Agarre anai bi ta  
Gantxegi eurekin  
Isillik utez baña  
Danok degu jakin.

Egingo nuke apostu  
Aditu dedanez  
Ez dirala antojatu  
Hoiek erbi janez  
Gose haundia eta  
Ogirikan ere ez,  
Patataz bete ziran  
Erbiaren ordez,  
Hurrenguan hobeto  
pentsatu ba aurrez.

Erbi hori omen zan  
Lanan premixua  
Milla bat errial zan  
Haren balixua  
Narrua kendu eta  
Bi libra pixua,

Okela gutxi eta  
Bapez olixua,  
Ezpañak txupatzeko  
bai alibixua.

Batzuek eranian  
Bestiak lanian  
Mutilzar hoiek fama  
Badute danian,  
Nobixa billa dabiz  
Juan dan aspaldian,  
Pobrerik ez dute nahi  
Diru ondorian,  
Ezetz ezkondu hoiek  
Beste bost urtian.

Horra sei bertso berri  
Mutilzar hoieri  
Motibo horrentzako  
Ez dira gehiegi,  
Desio txarrik, berriz,  
Ez diot iñori,  
Errezatu dezagun  
Ama Birjiñari  
Andregai bat billatu  
Deizezun hoieri.

Egillia: Pedro Arrizabalaga, "Xoxua".

### 183. INDALECIO SARASKETA "EIBAKO TXIKIYA" FAMA HAUNDIKO PELOTARI BAT

Fama haundiko pelotari bat  
Kantuz nahi nuke argitu,  
Zeiñek ez duben lau modutara  
Kontrariyorik arkitu;  
Hori pelotan ikusi eta  
Zein ez liteke harritu!  
Ematen zaizkan fama guziyak  
Oraindik dina ez ditu.

Alkandora ta galtza txuriyak  
Buruban boina gorriya,  
Hala plazara sartzen danian  
Gutziz da gustagarriya;  
Buruz abilla, hankaz azkarra,  
Zorrotza, berriz, begiya,  
Hau da blekari danen maisuba  
Hau da Eibarko txikiya.

Bere lekuban jarri ta gero  
Hasten danian jokatzen,  
Gorputz egoki askatu hura  
Zeiñi etzayo gustatzen;  
Aurrian zorrotz ebaki ero  
Hamar kuadruan luzatzen,  
Askorikanen estutu gabe  
Diruriyela jostatzen.

Gorputz liraiña, beso libria  
Eta jeniyoz biziya,  
Zatitutzen du harrapatutzen  
Duben pelota guziya;  
Nahiz izan bera haundi motel  
Ero nahiz izan txikiya,  
Eta kontuban ez dagonari  
Sartuko diyo ziriya.

Ez da azaldu pelotarako  
Oraindik horlakorikan,  
Lau aldetara honen modura  
Jokatzen jarri danikan;  
Pelota nun dan billatuko du  
Zorrozki juagatikan,  
Hau da lan hontan diferentzia  
Beste guztiyengandikan.

Bere eskuan bildurgarriyak  
Dira guantia ta pala.  
Ez da beste bat iñon ikusi  
Pelota zatitzen hala;  
Hain bizi eta zorrotz juaten da  
Nola fusilako bala  
Ezagutuba daukate denak  
Maisuba blekan hau dala.

Xestoz jokatzen hasten danian  
Jartzen geranak begira  
Pozez malkua saltatzen zaigu  
Ustegabian begira;  
Hain da biziya eta ederra  
Haren gorputzen mugira  
Asko baliyo dutenak beti  
Honla gustatzen baitira.

Gazte-gaztetik plazaratu zan  
Euskal-Herriyan aurrena,  
Famaren hotsak eraman zuben  
Handik Madrida hurrena;  
Ameriketan ere izan zan  
Itsas zabala barrena,  
Baliyosua beti izanik

Estimaziyo harrena.

Ez da honlako pelotaririk  
Ez da oraindik ikusi,  
Gaurko blekari eder guziyak  
Berekin dute ikasi;  
Baiña hala ere kontra egiten  
Kontu haundiyequin hasi,  
Berak bezela ondoren famak  
Nahi badira irabazi.

Bertso sorta hau Urnietaiko 1886ko Lore Jokuetan aurkeztu zan. Ez dakigu zein dan egillia.

#### 184. ARATUSTETAKO DANTZARENTZAT

Alegriya dan baño  
Gauza ederragorik  
Ezta munduan zidar  
Ezurre gorririk,  
Hargaitik gabiltz dantzan  
Gelditu gaberik,  
Eibar guztia irten  
Kontentuz beterik.

Ez ba egon balkoian  
Bakarrik begira  
Dantzariyak be janda  
Bizi izaten dira:  
Bota ba zerbait, bota  
Dantzak nahi badira,  
Bagoiaz gu bestela  
Hurrengo ataira.

Andra horretxek dakar  
Zerbait papelian,  
Zer dan ikusi arte  
Geldittu gaittian;  
Urrezartxo bi dira  
Billete batian,  
Milla esker, andra, ta  
Hurrengo artian.

Egillia: Ezekiel Etxebarria. Ikus "Eibarko mendiletaña gogoangarria".

## 185. EIBARKO MENDILETAÑA GOGOANGARRIA

Asentzio bezpera-bezperan  
Ikusi ohi da Eibarren  
Ez dala gelditzen, ez Isasi  
Ez Arragueta barren  
Legatzik erosi gabe iñor  
Zerbait karu izan arren,  
Nahiz ta izan dedilla sekula  
Etorri izan dan txarren.

Gau honetan darabilten poza  
Ez da erreza esaten;  
Legatz prijitua biltzen badu  
Hark periodiko baten,  
Hau ari da miñ eta zezeñak  
Zestoan poliki jartzen  
Ta bestea, berriz, botellatik  
Botara ardoa sartzen.

Jotzen dute goizean kanpaina  
Letañarako lauretan,  
Eta sua balitza bezela  
Jaikitzen dira etxeetan:  
Handik laster ikusiko dira  
Kontzejuko ateetan  
Ignacio txikia ta Droget  
Txit amodioz hizketan.

On Josek dio: Sancti Michael,  
Herriak: Ora pro nobis,  
Ta dijoaz denak kargaturik  
Legatzez, ardo ta ogiz:  
Txerria etxean hil duanak  
Dauzkan txorizoak, berriz,  
Ohi dira ezin litzazkianak  
Ikusi hoberik begiz.

Mendiletaña dijoanian  
Ibargaiñgoa pasatzen  
On Jose ta Alberdi dijoaz  
Eterne Deus...kantatzen.  
Jendea dabill estu ta larri,  
Batari ardoak irten,  
Honi maleta askatu, hari  
Porrotxo sokak eten.

Askok darama arnasa hoska  
Maletaren bat buruan,  
Baña estu ta larri dabillena  
Goruntz puntuan-puntuan,  
Simon ziriñoaren premiñan

Ta iya-iya ituan,  
Da Droget artzain ona, duala  
Zesto handi bat lepuan.

Santa Kurutzen ikusten da bat  
Porroiari munka gliñ-gliñ:  
Mutill: dio lagunak albotik,  
Akordatu hadi nerekin:  
Al...da...pa hoiek, erantzuten du,  
Igo ezkero haiñ ariñ,  
Murgil luzetxoa egiñ arren  
Baziagok bai zer egiñ.

Akondiako ermitatxoan  
Esaten dira bi meza,  
Ta konpliturik bakotxak bere  
Baiera edo promesa,  
Nola han baraurik egotea  
Izaten ez dan erreza  
Dijoaz ikustera legatza  
Dagon gazi ala geza.

Nola bakotxak duan egiña  
Txit ongi apetitua  
Papeletik ateratzen dute  
Aurren legatz prijitura;  
Kentzen diote gero botari  
Azkar puntako pitua  
Ta hemen jotzen dute lehenengo  
Narruzko txilibitua.

Beste guziak hemen ohi dute  
Janarekin barau-hausi:  
Drogetek ez du nahi kontzejuan  
Armozatu gabe utzi,  
Aldapetan erori ez dediñ  
Lepoko zesto ta guzi,  
Honegatik irten ohi da beti  
Armozuetan nagusi.

Arriartera dijoazela  
On Joserekin prisaka  
Darabilte Droget gizajua  
Hortik bultza, handik saka,  
Ez diolako iñori uzten  
Nahi beste luzatzen hanka,  
Daramala txit nekez lepuan  
Testamendu zaharreko arka.

Ez da aditzen Arriarteko  
Kanpaiak baño besterik  
Zeintzuek uzten duten jendea

Txito kontentuz beterik:  
Egiaz, haiñ leku erbestean  
Ez da izango torrerik  
Dituanik Arriartekuak  
Baño kanpai hoberik.

Meza entzutera agitz danak  
Dijoaz Arriartera:  
Heltzean Apaiza altaratik  
Sakristiako atera,  
Dijoaz bizkor izugarrizko  
Arbola haien artera;  
Txerri-miñ, txorizo ta zezeñak  
Lagun artean jatera.

Aizpirik sartzen duan bezela  
Bazter zuloan pelota  
Txorizuakin egiten dute  
Txosna sotamano jota,  
Gero jotzen dute agarradan  
Ezker-eskumakin bota  
Zeñek erabiliko lukean  
Zazpi harriko errota.

San Martineri motel ta triste  
Ari da kampaia klan-klan,  
Esango balu bezela penaz  
Hoiekin baziagok lan:  
Arriarten sarturik mundu bat  
Ardo eta okelatan,  
Datoaz oraiñ San Martinera  
Lo egitera mezatan.

San Martingo ermita zaharrean  
Meza danean altaran,  
Nola organista bat ez ere  
Organoa ere falta dan,  
Kantatzen dute meza ederki  
Lo-zurrustadekin gradan  
Buruarekin konpasa hartuaz  
Gora ta behera patxadan.

Haragizko pelotak berriro  
Aterarik papelean  
Hasitzen dira pelotariak  
Mano a mano pelean:  
Hark jotzen du miña sotamano,  
Honek narrua bolean,  
Ta dijoaz pelota guziak  
Frontoi ostera airean.

Ikusten da txakur difuntoa  
Saihets biak alkar iota,  
Mingañak, berriz, daude arian  
Apur-apur bat itota:  
Baña orduantxe ta nahiago  
Eskuak ere jasota  
Daude kontu zaharrak kontatu ta  
Erronka handiak bota.

Dijoaz gero Azitainera  
Letañan txito kantari;  
Baña nola dituzten oñetan  
Takoi handiak jarri  
Kendurik arras berak zeuzkanak  
Pika beltzezko botari,  
Ezin dituzte iñola oñak  
Lurrean berdin ezarri.

Sartzen diranean kaleetan  
Letañako kantuekin  
Hitzari gehitzen diote ese bat  
Egiñikoa oñekin:  
Salomon jakintsuak ere ezin  
Dezake bestea jakin,  
Ote dan frantzes ala ingeles  
Ruso, turko ala latin.

Porroez ta pertretxoz beterik  
Gero Eleiza jartzen da  
Balitzake bezela Eleiza  
Alemanen baten denda:  
Berek dirudite soldaduak  
Ugal guziak etenda,  
Jaunari eskerrak ematen  
Guda batetik irtenda.

Drogetek jan ditu lau armozu  
Beste guziek hiruna  
Goiz baterako ez det uste hau  
Dala atake biguna:  
Dijoaz gero benturaz lotan  
Igarotzera eguna:  
Berdin dijua txit arindurik  
Droget zerraldo eduna.

Lau ta erdietan jotzen dute  
Erteerako txiliña,  
Hamabietan amaitzen dute  
Eleizako zeregiña:  
Aitortzen det egin behar dala  
Biaje zerbait urriña,  
Baña ez da denboraren faltaz

Izaten gaizki egiña.

Eleizak ditu letaña hoiek  
Txito antxiñatik jarri  
Jaristeko zeruko laguntza  
badaude herriak larri:  
berok ongi eginda, pestaña  
kendu izan bada sarri,  
gaizki eginda ez da kenduko  
ta bai benturaz ekarri.

Badakigu guziok Eleizak,  
Izanik ama biguna  
Moduzko jan-edana letañan  
Galazotzen ez diguna:  
Baña nola ez duten letañek  
Lehen zuten santutasuna,  
Egiñ behar degu ekartzera  
Berriz beren osasuna.

Berai osasuna ekartzeko  
Hara hemen errezceta:  
Aurrez bijoaz daramatenak  
Lagun askoren maleta:  
Jan edanean bebilz arintxo  
Ta ez larregi beteta:  
Letañan, berriz, ez bezate egiñ  
Ohi dan beste berriketa.

Bada letañan gabiltzenean  
Nahiz mendi altuan izan,  
Behar gera ibilli han moduz  
Zein da herriko eleizan:  
Jarrai dezagun Jauna onratzen,  
Ez bere kontra langintzan,  
Izurri gaitotik libratu ta  
Zerura eraman gaitzan.

Egillia: Ezekiel Etxebarria.

## 186. ARRAGUETARI

Bertso bat edo bi  
Jartzera nua ni  
Arragueta zuri  
Kale jator horri  
Eibarren ez baita zu  
Bezelakorik.

Ez zera haundia  
Eztare txikia  
Ondo ebakia

Da zeure neurria  
Arikitxa ta Urku-  
Suko zubiak.

Zure neskatillak  
Zein baiño zein fiñak  
Aukera eziñak  
Hain dira sorgiñak,  
Eibarko mutillentzat  
Jaunak egiñak.

Zure etxekoandreak  
Leial ta maratzak,  
Bakite ateratzen  
Gizonen arantzak,  
Arraguetako etxiak  
Lore baratzak.

Gizonbihargiñak  
Langille abillak,  
Baitare artistak,  
Nahiz kontrabandistak,  
Arraguetan danetik  
Daukagu pixkat.

Abade, torero  
Sartzen da noizero  
Baitare bankero  
Iñork nahi ezkero,  
Amerikan be badi-  
Tugu barkero.

Gure umoria  
Nahitarez hobia  
Kalterik gabia  
Beti da garbia,  
Bihotz illun guztien  
Alaigarria.

Triste garanian  
Arragueta aldian  
Edo ezinian  
Hemen laiñopian,  
Izar bat agertzen da  
Arrate gañian.

Arraguetan jaio  
Eta bertan hazi  
Eusko odolez naiz  
Bizi eta hezi  
Beti maiteko zaitut  
Kale ta aberri.

Euskera degunez  
Beti gure hizketa  
Euskeraz egiten da  
Hemen berriketa,  
Hortan beti nagusi  
Da Arragueta.

J. Bergaretxe. Rev. Eibar, ek.-uzt. 1971, 34. Zk., 7. Or.

187. EIBARKO MENDIGOIZALE GAZTEARI  
IKASI

Lehengo egun on baten mendi tontorrean  
Erbi billa nebillen neke gogorrean  
Baserri zuritxo bat eguan urrian  
Ke boladak botatzen intxaurren azpian.  
Zelan gosia neban nere sabelian  
Laster aurkitu nitzan haren atartian  
Otso txakur haundi bat eguan atian  
Lo gogorrak egiten iraren artian.  
Hasi ziran burrukan nire gorputzian  
Sabela ta bihotza hasarre haundian  
Sabelak agintzeban: didar egiteko  
Bihotzak barriz, ezetz; handik aldeiteko  
Horretan ebiltzela hantxe argitu zan  
Asto bat arrantzaka berekauten dantzan  
Burua makurtuta osteko hankak goian  
Alde guztiok joten txakurra esnatu zan.

Itzela dok mutillak han arkitu zana!  
Hestuntza eten eta txakurra neugana  
Bihotza taunkadaka, sabela biguna  
Belaunak ikaraka, ha zan gosari ona!  
Baiña tximista legez gogoratu jatan  
Don Tankredo egitia lau hanken gaiñian  
Halan ostea emonda burua be behian  
Geldi gelditu nitzan txakurren aurrian  
Behinguan ixildu ta txakur zitalori  
Etorri zan neugana poliki-poliki,  
Eta usain egiten nere ostiari  
Hamar bat miñutuan egon nitzan larri.  
Azkenezko biharra zatarra egin zuan  
Txixa nere fraketa iztarren onduan  
Eta txapela hartuta aguan barruan  
Amorratua legez sartu zan soluan  
Ni barriz joan nitzan lau hanken gaiñian  
Astua aurretik zala bide zati onian  
Eta gaiñera igon da añaeike batian  
Laster estaldu nitzan zugatzen artian.

J. Bergaretxe, Zargaste, Euzkadi, 1914, 411 zk.

## 188. LANGILLE IKASLARIA

Izkillu-olan, apal-apalki  
Gizon bizartsu artian  
Mutikotxuak ikasten dabiltz  
Irakaslian mendian.

Oidar gogorrez danak agintzen  
-Txotxo, eik hau ta bestia!  
ikaslariok isil-isilik  
igaro dabe astia.

Baiño igandia heldu jake ta  
Berakin euren txandia,  
Txirringutzezko tramankuluan  
Jarrita hartzeko bidia.

-Ep, ep, ep, ep!  
Kendu hortik danok!  
Entzuten dogu orrua  
Txilin ta adar istillu baten  
Hor dator mutil taldia.  
Aintxitxiketan gizonak barriz,  
Aske itxi dabe bidia  
Ta igoten dira horma gaiñera  
Ez zikintziarren prakia.

Zenbat bider neuk esan ete dot  
Gizon-mutilai begira  
-astegunian uzaba nausi  
baiña igandian morroia

Jon Bergaretxe, Zargaste. Euzkadi, 1919-10-13. (Euzko Langillia izparringitik hartua)

## 189. KALAMUATIK BERTSO BERRIAK

Bertso berriak jartzen goaz,  
Atsegina dunak aditu,  
Gure barrenak beteak daudez  
Ezin gehioan kabitu.  
Ohartzapenak jarri orduko  
Bihotza zaigu mugitu,  
Nahiago geunke bezela  
Zuzen kontauko bagenu.

Zoritzarrean fundatutako  
"faxista" ankerren gerra  
Francok nahi luke bereganatu  
Geure aberri ederra.  
Baiña Euzkadik badu oraindik  
Txindia eta indarra,  
Lehen zan bezela ikusi nahi ba(da)

Izango degu beharra.

"Faxista" batek geuri esana  
Donostiako kafian  
Franco agintzen ikusikogu  
Laister Madridko kortian  
Ahalegiñen paltarik ez dute  
Honera sartu nahiean,  
Ez dute hoiek aurrera egingo  
Gu bizi geran artian.

Hegazkintzarrak bonbaz beterik  
Hodei mokorren artian  
Millaka mina itsasoan ta  
Sumarinuak urpian  
Hoiek gertutzen ibilli dira  
Joan daneko aspaldian  
Moro ta aleman, italiarrak  
Faxista hoiekin tartian.

Abenduaren hogeitaseian  
Lehendabiziko bisita  
Goitikan behera abitu ziran  
Euron mendiak utzita  
"San Andres"koak tinko egonik  
bazetozala ikusita  
hoiek ez zuten asko usteko  
zu ala geonik jarrita.

Guziak ziran hirurehun bat  
Bi erronkan ornituak  
Gu zapaltzeko itxaropenez  
Harrotuz euron buruak,  
"San Andres"koak etzegozan lo  
baizik ondo armatuakoso laister makurtu zirian  
faxisten buru harruak.

Hirurogeita hamabost hillak  
Ehun ta gehio zauritu  
Euron buruak horla ikusirik  
Ezin aurrera jarraitu  
Batzuk batetik, bestek bestetik  
Atzerantz ziran abitu  
Horlako zurra eramaterik  
Etzuten asko pentsatu.

Lehenik hoiek pentsatzen zuten  
Hilko giñala guztiak  
Baiño oraindik gure koadrillan  
Bagera gizon biziak  
Indar haundiko armak dauzkaguz  
Soiñean ondo jantziak

Gure menpe geldituko dira  
Rekete anker guztiak.

Hona hemen bederatzi bertso  
Ez deu nahi gehio jarraitu  
Denborapasan txabol batian  
Kuadrillan atera ditu.  
Ezer gaizkirik jarri badegu  
Oraingoaitik barkatu  
Guda honetan hiltzen ez danak  
Zer kontau izango ditu.

Andoni. Eguna, 1937, 53zk.4.orr.

#### 190. EIBAR EUSKELDUNA

Bihotz mindua daukat  
Gertatu bat gaitik,  
Eta mintzatzuz nator  
Gauza hauxegatik.  
Arrateko eguna  
Euskeldun oraindik;  
Erdeldunak nahiz ta ari  
Indarrez nahasturik,  
Gorde daigun euskeldun  
Tinko eta garbi.

Gure herria dago  
errukigarria  
ia galdurik bere  
ohitura garbia.  
Berak sarri badu ere  
Zauri mingarria,  
Hartu daigun indarra  
Ta ez aruaz larria  
Euskeldun izan dedin  
Gure Euskel-Herria.

Esan ditut bi bertso,  
Hara hirugarrena,  
Erakutsiz eibartar  
Baten min barrena.  
Arrateko Amatxo...  
Zu gure laguna!  
Entzun eiguzu, arren,  
Gure dei ozena.  
Zaindu daiguzun beti  
Eibar euskelduna!.

Maitale.Euzko gogoa, 1956, 5-6zk.11.or.

## 191. GALLASTEGI TXAPELDUN

Gazte lerden bat Eibar aldetik  
Zetorren indar haundiko,  
Danak apurtuz gora igo zan  
Gutziz bulartsu ta tinko.  
Berrogeita lau urte Atanok,  
Bestea berriz sasoiko,  
Hainbeste argi egindakoa  
Ez al zan behin itzaliko?  
Jende guztiak esan zuana:  
-Jaungoikoa dek betiko.

Azaro hillak hogeita zortzi  
Egun bere zituela,  
Bergaran hantxe jokatu ziran  
Esanda zegoen bezela.  
Pelotazale asko zeuden han  
Negarra zeriotela,  
Ikusirikan jator da umil  
Atanok uzten zuela,  
Hogoitaka urtez bere mendean  
Eduki zuan txapela.

Gallastegiren trebetasuna  
Han ikusi zan ederki,  
Gehiago zala azaldu zuan,  
Zalantzik ezin eduki;  
Sei tantorekin zaharra utzita,  
Egin zitun hogeita bi,  
Hainbat urteko auzi garratza  
Horra jator erabaki,  
Gaztetasuna goraka dator:  
Egin dezaio gun toki!

Arrazoi haundiz ondo bete du  
Gazteak bere ametsa,  
Gaiztoa baita erabiltzen  
Urteen pixu traketsa;  
Hoiek zapaltzen gaituzte danok  
Hauxen da komeri beltza,  
Atanok hola dio Migeli:  
-heldu da zure jabetza,  
esku onetan uzten det eta  
tori nere erregetza.

Poztu gaur Eibar, poztu Azkoiti,  
On baita gogoraztea,  
Biori nola gerta zaizuten  
Seme on hoiek haztea.  
Bertso gozotan zoriontzen ditut  
Bata bezela bestea,

Urte askotan nahiko nuke nik  
Osasuntsu ikustea,  
Lehen izan degun txapeldun zaharra  
Ta orain daukagun gaztea.

1948. urtian Basarrik egindako bertsuak. Eibar, 78ko ek.-uzt.

## 192. GORA BIHOTZAK

Justizia egia  
hemen zan artian,  
Jaungoikuaren legian  
bizi giñan bakian.

Lanikan egin gabe  
bizi izatia  
da alferrak langilliari  
jarrittako legia.

Berriz munduari eman  
behar zaio bueltia  
nahi ez badegu bizi  
lapurren bendian.

“Lanik egitten ez duanak  
batere ez jatia”,  
Rusian ere langilliak  
jarri dute legia.

Gora Euskadi eta  
gora mundu guztian,  
bere izardiakin  
bizi dan jentia.

Behera alper guztia  
hemen da danian  
mundu guztia langille  
bihurtu artian.

Guztiok lana eginda  
guztiok gozatzia  
beste autu dana da  
gezurra ta drogia.

Bere izardiakin  
ongi bizi izatia  
da gizonarendako  
Jaungoikoan legia.

### 193. INDALEKI OJANGURENI

Erle zintzua lorerik lore  
Aspertu gabe lanian,  
Zertxobait billa egingo balu  
Jateko negu aldian,  
Zu berriz beti tontorrik tontor  
Mendi punta artian,  
Lohikerieri alde eginda  
Osasunaren bidian.

Txantxangorria goizian goiz  
Hasi ohi da abeslari,  
Eguna argitzen hasi dala-ta  
Adierazten danori,  
Puska-puska bat nahi badeutzazu  
Zeuben osasunari,  
Laister ohetik jaiki hadi ta  
Mendi batera joan hadi.

Aspalditxoko urte danetan  
Ehun mendi egin dittuzu,  
Lau urtetan laurehun beti  
Azpian jatzuz geratu,  
Jaungoikuari bihotz-bihotzez  
Egingo diot eskatu  
Osasun on bat emon daitzula  
Aurrera daizun jarraitu.

Lehen Eguarbitzan izan giñan da  
Aurten Urkon gera batu,  
Zazpi laguntxo giñaden baño  
Danok benetan gogotsu,  
Aspertu gabe aurrera horrela  
Jarrai egitten badozu  
Aitzgorri-mendin danok batuta  
Oihu eder bat egin gogu\*

Gutxi giñaden lagunak baiño  
Barru-barrutik anaitsu,  
Zedorrek hantxe izandakuak  
Goguan izango dittuzu,  
Bandresek lehenen hitz egiñ eban  
Edortak gero jarraitu,  
Espinosa be oso ederto  
Altzetarena nork, azaldu?  
Aputxiano isillik eguna  
Txindurri gera zan mutu.

Maite dezagun bihar dan legez  
Jaungoikuaren legia,  
Bera dalako neronen ustez  
Bestiak baño hobia,  
Berak dirausku ez eukitzeko  
Besten gauzen enbidia  
Iñori kalte bat egin gabe  
Garbi bakoitzak beria.

\* egingo dogu  
Egilia: Guillermo Bengoetxea, "Txindurri"

#### 194. PATXIKORI KANTAK

Kontatutzera noa  
Patxikuren gaitzak,  
Nola jarri dizkigun  
Bizimodu latzak.  
Hartu zittuenean  
Espaiñiako giltzak,  
Gizon, andra ta ume  
Gosiak gabiltzak.

Eurak ondotxo baiña  
Beste denok gaizki,  
Gauzak txarto egiten  
Dirade nagusi;  
Kentzen dute danetik,  
Eman, berriz, gutxi;  
Halako jentuzarik  
Ez det nik ikusi.

Lapur estraperlista  
Lotsa gabekua,  
Nahi duena egiteko  
Badute lekua;  
Polizia ta guarda  
Jarririk nahikua,  
Kartzelara sartzeko  
Gure modukua.

Gauza honek noizbaiten  
Itzuliko dira,  
Ez gerade egongo  
Orduan begira:  
Pekatua dala eta  
Gorde gure ira,  
Egin dituen gauzakin  
Garbatuko dira.

Egillia: Pepe Bolunburu.

## 10. KANTUXKAK:

Atal honetan kantu laburrak, kantu zatixak eta umien jolasak sartuko dira batez be. Zoritzarrez antxiñako Eibarko kanta batzuk ezin izan dittugu topatu. Horietan zaharrena Akondiako Kanta da. Ibargüen Cachopin eta Lope García Salazarren kroniketatik dogu honen barri. 1.390ian Akondian Oñaztar eta Ganboaren aurkako gudua izan zan, eta gerora guda honen oroigarri "Acundia, lejarr (...) ga lejabaga" kantatzen zan. Zatitxo hori baiño ez dakigu.

Hurrengo kantak askoz barrixaguak dira.

Bata T. Etxebarriaren lexikoian ageri da. Hurrengo aipamena Karlos Elgezuri egindako elkarrizketa batian topatu dogu:

"Kandido Muñoz botikarixua bikaiña zan. Irunesiakin ezkontzeko, zelan ha baiño askoz gaztiagua zan, bizarrea hazten laga eban. Kandido umoretsuak danera egitten eban, edozer gauzatarako erremedixua baitzeukan. Kantu bat be sortu zan Eibarren, hau esaten ebana: "Barrenkalian dago botikarixua, harek emango dizu erremedixua".

Rev. Eibar, 1987ko azaroa. Karlos Elgezua oroitutzen... Pedro Zelaia. 9.orr.

"Aurreko mendeko eibartarrek Kandido Muñozen botikan ikusi zeben lehenengoz argi elektrikua." M.A. Zulaika

"Aulesti Txikik kantatzen zeban kantu hau". T. E.

Gerra ostian Urkusuan zabaldu zeban botikia. Ez dogu kantaren doiñua lortu:

Barrenkalian dago  
Botikarixua,  
Iñok baldin bihar badau  
Erremedixua;  
Dingulun-dangulun medikuak  
Kolerak harturik  
Etxetik urten orduko  
Pipia pizturik.

Bestiana zera dakigu: 1913ko San Juan jaixetan Abiaziño Probak antolau ziran. Bost proba egin zittuan Marius Tercé frantses abiadoriak, ekaiñaren 24 ta 29xan ta uztailaren 6xan, azken hau jendiak eskatuta. Abiadoriak 2.500 pta. kobrazu zittuan. "Aireportu" inprobisaua zezen plazaren gaiñeko lurretan izan zan, gaur egun badago inguru horretan "Hega-zelai" izeneko basarrika, orduku gogoratzu.  
Eibarko Udal Artxibua, 1913.

Bizpahiru urte lehenago Durangon egin nahi izan zeben halako erakustaldixa, baiña Iturriozek kontatzen deskunez haura desastre hutsa izan zan. Jendetza izugarrixa bildu zan, baiña hegazkiñak ez ziran aireratu. Jendiak, hasarre, abioiak txiki-txiki egin eta nork bere zatitxua etxera eruan zeban.

Juan Iñazio Odriozola, "Aizarna" bertsolarixa Tutulu basarrixan bizi zan; beraz, bere zelaixan ibilli zan arioplanua, ta haura gertaeria be kontau zeban bertsotan, baiña ez dittugu topau.

Bertso hauen barri Ziriako Ortiz de Zaratek emon zeskun. Berak Beña basarriko Mariaren amari entzun zetsan.

Gure zelaian lehenengo aldiz  
Bajatu da Eibarren arioplanua....

Arrateko Amak elizia Arraten egin nahi zeban; eibartarrek, berriz, Azitaiñen. Gauero-gauero egunez egindako lanak Azitaindik desagertu ta Arraten agertzen ziran. Bi zelatari jartzia erabaki zeben, Zelai eta Pagoaga basarrietako gazte bana, eta Ama Birjiña gurdiairekin agertu zanian hau entzun zeben:

Aida, txuri ta belio;  
zelataka dagoanari  
begiak urten bekio;  
berriz makurka dagoana,  
oker gelditu beio.

Ta halan gelditu ei ziran: bata begibakar ta bestia bizkar-okerra.

Rev. Eibar, 1973 ab-ira, arrateko edestia, 18.orr.

Gabonetan, ohitturazko kantuez gain, umiek hau be kantatzen zeben:  
Gaur ohera,  
Bixar kalera.  
Turrón de Alicante  
Qué rico será.

**Urtian ziharreko beste jai batzuek be euron kantuak izaten zittuen, esate baterako abenduaren 28xan:**

**Iñusente, iñusente  
Porrusente  
Txakurrak buztana tente!**

### **Kandelario egunez:**

**Kandelario-Lario**

**Atxari ura dario**

**Sagarrak ta madari**

**Eutsi Peru abarrari.**

**“Eibarko antxiñako jolas eta kantuak”**

**“Animen egunian ohittura zaharra Eibarren jan da edan tabernan egittia, mozkortu arte. Baitta kaleko neska-mutillak, alkarregaz, basarrixetan gaztaiña erriak jatia be.” T. Etxebarria. Bixamuneko ajia galanta izaten ei zan:**

**Gaur animen**

**Bihar korputzen.**

### **Eta garizuma garaian:**

Garizuma zazpi asteko  
barau gogorrak parte;  
zuri, halantxe izateko...  
datorren urtera arte!

Sanjuanetan su gaiñetik salto egiñaz konjuro moduko hau oihukatzen zan:

San Juan, San Juan  
Arrautza bi kolkuán  
Beste bi altzuán  
Lapurrik eta sorgiñak  
Erre, erre!  
Artuak eta garixak,  
Gorde, gorde!

Antxiñako Eibarrek ez zekan gaurkuarekin zerikusi haundirik, baiña kategorixa haundiko kaliak eguzten:

En Eibar hay tres calles,  
que no las hay en Madrid,  
Txirio-kale, Pipar-kale  
y el barrio de Muzategi.

Hiru kaliok oso aldapatsuak ziran. Piparkale esaten jakon gaurko Ifarkaleri. Hauekin izenokin nahaste haundi xamarra dago, baiña ziur asko antxiñako izena Pikarkale izango zan (kale aldapatsua), Toribio Etxebarriak diñon moduan.

Antxiñako aratostietan herri osuak parte hartzen zeban, baiña norbait nabarmendu bihar izanez gero Goin ta SantiagoTelleria azpimarratuko gendukez. Goin lehenago aipatu dogu. Telleria hau behin Gedeón jantzitta joan zan ta orduz gerotzik gatxizena gelditu jakon. Hau kantatzen zotsen:

Gedeón, Gedeón, Gedeón,  
Ha hecho una casa nueva  
Con ventana y balcón.

Zirkulopeko konparsak bazekan korkobau barregarrixoa:

Como el cheposo es tan bailarin  
A todo el mundo le hace reir,  
Y a ustedes les complacerá  
Con un baile raro que pronto verán.

Sanjuanetan mota guztietako pertsonaiak etortzen ziran herrira, hauen artian titiriteruak eta malabaristak:

Nicomedes y Manolo  
Son hermanos muy queridos,  
Pero Nicomedes es  
Un borracho y un perdido.

Para las barras Nicomedes  
Para el globo es Manuel,  
Para el trapecio es el rubio  
Que no hay otro como él.

Mucho me gusta José  
Cuando pasa en el alambre  
Pero más me gusta él  
Cuando da vueltas al aire.

Piruli saltzailliak be kanta-kantari ibiltzen ziran, umiak inguratu nahixan:

El piruli, a perra chica el piruli,  
De piña, coco, menta, limón y anís,  
Que quita el catarro y mata la lombriz  
El piruli!

Rev. Eibar, 83ko ek.-uzt. Gure Sanjuanak. J. Bergaretxe

Eibarren beti izan dira pertsonaia ezagunak. Hauetako bat "Punteret" zan, izenez Andres Urionabarrenetxea. Akabatzallia zan, lan zikin samarra, baña bera beti dotoe. "Komoda gañekua" be esaten zetsen, hain zan dotoria. Urkizun bizi ziran, ta andriak bertan zekan illeapaindegixa. Bere pasadizuak Don Pedro Zelaia jaso zittuan Umore giruan liburuan.

Punteretek pasodoble hau kantatzen zeban:

Ay, Punteret, dicen que eres listo  
Pero no eres listo,  
Ay, Punteret es languidez  
El casarse a la vejez.

Lastur gitarristia izen bereko tabernakua zan. Oso popularra. Orduko Eibarren libra (pixurako), kana(neurrirako) eta erriala (dirutarako) erabiltzen ziran, bestiak beste. Frantzian "sistema métrico decimal" dalakua asmau zebenetik, nahaste borraste galantak sortu ziran. Rev. Eibar, 1965ko otsailla, 12.orr. Antxiñako.

Prantzia hortan para dute  
Istillu berria,  
Kilo ta milimetro  
Deabrukeria.

Ez dek sartuko  
Horlako deabrukeririk  
Neure buruan,  
Libra bat eta libra bi  
Esango jixat nik,  
Antxiñako moduan.

Orduko eibartarrak umoretsuak ziran, baiña plaentxitarrak be ez ziran makalak. Ikusi bestela zer erantzun zetsan plaentxitarrak eibartarrari:

-Plaentxitarrek esaten dotse  
Errekiari ibaia,  
-Eibarrek pozik hartuko leuke  
Plazentziko errekkia.

Eztenkadak, J.San Martin.

Kontuan izan bihar da plaentxitarrek Egori Ibaizabal esaten zetsela. Eskerrak bertatik ez dan Ebrua pasatzen!

"Eibartarrek Plaentxitarrei esaten gentsan "Hautx-herrikuak", ez zekixelako "hautz" esaten. Plaetxitarrek eibartarreri "Xapu-herrikuak" esaten zeskuen." T. Etxebarria, op. cit., 197.orr.

Hori dala ta Ramiro Larrañaga historiagille plaentxitarrak bere herrian eibartarreri aspaldi kantatzen zetsen koplatxo hau kantau zeskun: (Orduko txapela gorrixak liberalak ziran.)

Eibartar Txaputxero  
Txapela gorria,  
Goizian goizetikan  
Kafia ta esnia.

Ermuarrek be maitasun haundixa zeskuen, antza danez:

Eibartarra tirri-tarra  
Jo buruan ta errekara.

Kontuak kontu, eibartarrak ez gara txantxetan ibilli izan geure burua goratzeko orduan, bestela erreparatu Salvador Marzanak kantau zeskunari:

El eibarres es inmortal,  
El mas feliz, el mas jovial  
Si le va bien o le va mal  
El de Eibar siempre igual.

Eibartarra beti pozik. Lana be asko egin da Eibarren, baiña alperrak be ez ziran falta:

Astegunian lanik ez  
Jai egunian gogorik ez  
Horrek guztiok hola pasauta  
Gaiñera bizi eziñik ez.

Edo beste hau:

Lunes y martes, fiesta en todas partes,  
Miercoles, no hay gana  
El jueves no me da la gana,  
Viernes, a cobrar,  
Y sábado y domingo a disfrutar.

Edo Mogelek idatzi zeban beste hau:

Aita-semeak edanda dagoz,  
Ama-alabak jokoan,  
Ostera bere egongo dira  
Soiñeko zaharrak kakuan.

Disfrutatzeko modu bat maitasuna zan. Batzuk oso erromantikuak ziran:

Itsasoko ura zu baziñake  
Agortzerañok erango neuke,  
Ene maitia,  
Agortzerañok erango neuke.

Beste batzuk pikarotxuak:

Maria Marta coge la manta  
Que yo cogeré el candil,  
En el camino luego haremos  
Txepele-txepele-txepetxe.

Baldartxuak be baziran:

Ai pitilin, pitilin  
Ai pitilin maite,  
Ez dok sartu bihar  
Ezkondu arte.

Askok jaten gozatzen zeben, baiña gerra ostian okela gutxi ta ezkutuan."Badetesia"  
koplatxo hau kantatzen zeban:

Marixa, Marixa  
Baba baltza ta zurixa  
Hor goixan dago  
Zezinia ta urdeixa.

Faustina Baskaran,"Badetesia". Bere gurasuek gerra-aurreko Donostia eta Bilbo arteko jatetxerik ezagunena zabaldu zeben: Elgetakaleko Badet jatetxia. Elena amaren lanari esker, sasoi hartako familiarik ospetsuenak, kirolari eta sukaldari famatuak, politikorik boteretsuenak, margolariak....bertan bazkalduak ziran. Piano eta gitarra pare bat be baziran ta bertan Eibarko musikari eta kantari ospetsuenek jarduten zeben. Opera, zarzuela, koruak...Amerikatik pelotariek ekarritako habanerak, tanguak, boleroak eta abar be entzuten ziran.

Gerra ostian Kalbetoira jaitsi ziran, gaur Txistu dagoan ingurura. Faustinaren eskutik gerra aurreko ospearri eutsi zetsen, horregatik La Scala deitzen jakon.

Jateko orduan ondo moldatzen ziranak be baziran:

Abadiaren lapikotxoa  
Txikia baiña gozoa,  
Ikazkiñaren lapikotia  
Haundia baiña harroa.

Beste batzuk dotore jantzi bihar gustura egoteko. Meriñakia soiñeko azpiari buelua emoteko jartzen zan alanbrezko tramankulua zan. Pena da Badetesia kantu hau osorik ez gogoratzia:

Hor goiko kalian  
Pasau da halakorik  
Meriñakia ostu diote  
Atiaren zulotik

( ...) zebiltzan  
meriñakian billa  
topatzen ez zenduten  
neskatxa politik.

Juanito Gisasolak musikiakin gozatzen zeban gehixen, bai sortzen, bai jotzen baitta koruak zuzentzen be:

Hau itxasua,  
Bildurgarria,  
Hainbeste gizon galdu  
Ta oin be hasarria.

Kantu hau bere gustora kantatzen ez bazan Juanito Gisasolak esango zeban:-Puñeteros, Errebaleko monjak dirudizue kantuan; hau kantau biajok bekokixa zimurtuta, ikubillak itxitxa, hasarratuta.

Rev Eibar,1971ko ek.-uzt. S. Arizmendi.

Eibartarrek kirola be oso gustoko dake. Kiroletan fooballa errege; baiña beti eziñ irabazi, eta amorrurik haundixena auzokuakin galtzen danian:

Eibarren diru asko,  
Jendea ugari  
Baiña ezin irabazi  
Elgoibartarreri.

1947ko iraillaren 14an Ipurua futbol-zeliaaren inauguraziñuan eibartarrek 0-2 galdu zeben Elgoibarren aurka. Kopla hau German Uriguen "Etxegiña"k kantau zeban orduan.  
S.D. Eibar 1940-1990. Eibar Kirol Elkartea.

Zorionez, gerora Eibarri football kontuak hobeto joan jakoz:

Se levantó, se levantó  
El aparato para volar,  
El Eibar FC este año  
Campeonato ha de ganar.

Errege-erregiñ izan nahi zebenak be ibili izan dira Eibarren.  
"Untzaga plazian Carlos VII.a zaldi gaiñian ikusi neban, eta jendiak kantatzen zetsan:

Viva Carlos Septimo,  
Doña Margarita  
Laister ikusiko dogu  
Tronuan jarritta.

Jakoba izeneko andra batek atzapar bixekein zaldixari ipurdixa ikutu ta muiñ egiñ eban.  
Maria Cristina erregiña urtebete zekan Alfonso XIII.a semiakin be etorri zan kuartel zaharrian antolatu zan erakusketara. Orduan honek bertsuok kantatzen ziran:

Errege ta erregiñak, alteza realak  
Donostian egondu dira aurten danak.  
Baiñan enpeñaturik gure bilbotarrak  
Baporrian ekarri dituzte hara danak.  
Bapore hau zan legez beretzat egiña  
Ondo pozik sartu zan gure erregiña.

Eibarrera trena etorri zanian hau kantau genduan:

Ongi etorria tren dontsua  
Aspaldian gaude zugaz gustatua.

Maria Martinez Olabe, "Maria Ospittal". Eibar, 61eko urria, 21.or.

Sasoi batian diputatu-gaiek herritarri botua eurori emotiarren ordaindu egiten zetsen. Ikusten danez, orduko hauteskunde kanpaiñak ez ziran gaurkoen modukuak. Ala? "Nola botarixa saltzen zan, dirurik gehixen emoten eban aberatsa izaten zan diputau" T.E.

Bat, bat, bat

Bi, bi, bi

Sanchez Toca, Sanchez Toca

Sur-haundi.

Hiru, hiru, hiru

Lau, lau, lau

Don Altube, Don Altube

Diputau.

1893-03-05eko hauteskunde orokorretan honek emaitzok izan ziran Eibarren:

Altube.....Coalición Liberal.....710 boto

Sánchez Toca.....Independiente.....310 boto

(Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Ed. Auñamendi)

Orduko alkatien soldatak be ez ziran makalak. Don Alejandro Telleria, 2. Errepublikako lehen alkate sozialistari oposiziñuak kantatzen zetsan:

Ay mama Inés, ay mama Inés,  
Don Ale cobra 500 al mes.

Elgetakaleko anarkistia, pipatzen zan bakoitzian:

Venga pronto la anarquía  
Abajo la propiedad  
Viva el hombre y la mujer  
Y viva la libertad.

Bai hauteskundietan bai eguneroko bizimoduan propaganda nagusi, produktua saldu nahi bada. Eibarren, nola ez, propaganda be kantuen bidez egitten zan. Esate baterako, kafeterak:

Cafeteras Crystal es un portento  
Preparando cafés de calidad,  
Cafeteras Crystal el gran invento  
Que al marido al hogar atraerá.

El negro Pancho ríe  
La negra Pancha también  
Y es que es un regalo de calidad  
Que acaban de recibir  
Y llenos de vanidad

Les vamos a oír decir: Cafeteras Crystal...

Josteko makiñak:

Alfa, Alfa, Alfa es la máquina  
De coser más ideal,  
Alfa que no tiene rival  
Alfa sin igual,  
No tiene rival.  
Buena mujercita...

Alfa, Alfa,  
Es la máquina española  
De coser.  
Alfa, Alfa,  
Que prefiere sin disputa  
La mujer.  
¿y cómo se llama esa máquina?  
Alfa, Alfa,  
La que no tiene rival  
Para coser y bordar

Baitta alkondarak be:

No es una señora  
Ni es una doncella,  
Pero tiene tela  
Que es de admiración.  
No podré gastarla  
Y le diré al oído,  
Más que a medida,  
Escucha y verás:  
La tela que tiene  
Es de admiración,  
Sus colores finos  
Que agrada al sol.  
La camisa Palma  
La mejor camisa  
Que hay en España.

"Arraguetako Bazar Martinara etortzen zan gizon bat antxiñako bizikleta baten gañian, aurreko errobera oso haundixa ta atzekua oso txikixa zeken haretako bat. Gizon harek kantu hau abesten zeban, ta badakizu zegaitik gogoratzen naizen haiñ ondo? Ba, laupabost urte nittuanian errobera azpian harrapatu ninduelako." Justina Orozko.

Gabardiñak:

Trinchera  
Es la prenda más cochina  
Que llevan los niños pera,  
Trinchera...

Hau ziur asko ez zan izango propaganda ofiziala, ezta hau be:

Juan Orruma  
Vende macarrones,  
Uvas verdes  
Y melocotones.  
Juan Orruma  
tiene una nariz,  
Que parece, que parece  
El secretario de Paris.

Ez dakigu Irungo alkatia iñoi Eibarren izango zan, baiña kantu hau be oso zabalduta zegoan:

Irungo alkatia,  
Señor pitxi-pitxi  
Gizon haundixa baiña,  
Errespeto gitxi.  
Alkate izan arren,  
Ez daka eskubiderik  
Iñoren andriari  
Heltzeko lepotik.

Baiña nagusien mundua laga eta umien munduan sartuko gara. Sasoi batian jolas eta kantu ederrak zegoazen gure herrikan:

Umetxua belaunetan hartuta:

Arre-arre mandako  
bihar Tolosarako  
Etzi Panplonarako  
-Handik zer ekarriko?  
- Zapata ta gerriko,  
- Harek zeiñentzako?  
- Anderrentzako!!

-Katarramixon nun izan?  
-Araban  
-Zer ekarri?  
-Zapata ta gerriko  
-Zeiñendako?  
-Gure Arratendako.

Umiari atzamartxuekin jolasak egitteko:

Txiki honek arrautzak ekarri,  
Honek sua egijñ,  
Honek arrautza prijitu,  
Honek pisxka-pixkat probau ta  
Haundi trakets honek dana jan

Hau joan zan mendira,  
Honek ekarri eban egurra,  
Honek egipen eban tortillia,  
Honek pixkat probau eban  
Da honek dana jan eban!

Gaurko kalekumiok gurdia zer dan be ixa ez dakigu, baiña antxiña ume bat gurdiaaren mutur batian eta lagunak bestian jartzen ziralarik, kulunkatuz:

- Kukurruku!
- Zer biozu?
- Nun zabiltz?
- Basuan
- Zer egiten?
- Txotxamarrik biltzen
- Zertako?
- Sua egiteko
- Sua egin-da zertako?
- Arrautzak prijitzeko
- Arrautzak prijitu-ta zertako?
- Abadiari emateko
- Abadiari eman-da zertako?
- Meza emateko
- Meza eman-da zertako?
- Zerura joateko
- Zerura joan-da zertako?
- Ederto bizi izateko.

Jolas askotan “katigu” bat bihar izaten zan, eta iñork izan nahi ez zebanez aukeraketa egin bihar:

Don, don, Beleron  
Belerongo herrixan  
zazpi gizon dantzan,  
ni mozkorra, zu mozkorra,  
nahi dabena kanpora!

Batzailia: Imanol Laspiur

Don-don kikilimon  
San Ramuke San Ramon  
pike-pike tortolike  
ban-bun zuriketako bun.

Batzailia: Imanol Laspiur

Don-don kalde, pitimoto moskate  
Popoye-popoye, ocho nueve Santander  
Arreko mozkorra, patrón de Galicia  
Patrón de Aragón txirintxintxon,  
Una pulga y un ratón comen pan y salchichón,  
Txin-txon txirintxintxon.

Andria, andria, calabacilla  
Vino un rey de Castilla  
Todas las ramas repartió  
Menos una que quedó,  
Aquella fue la más bonita  
Del portal de Belén  
Donde comen pan y miel  
La cuchara, la manteca, tiki-taka  
Han dicho que salgas tú  
Por la puerta del niño Jesús  
Que viene cargado con la cruz,  
Pater noster amén Jesús.

Mutillena:

Un aereoplano va volando por los mares,  
¿en qué pueblo parará? Mar Mediterráneo;  
En un plato de ensalada comen todos a la vez,  
jugando a las barajas, sota, caballo y rey.  
Chinita bonita nahi, nahi, nahi,  
sota de bastos nahi, nahi, nahi,  
Txifu, txifu, txifu, que sales tú. Tú katigu.

Ezusteko zerbait topatzen zanian: (T. Etxebarriaren lexikoitik)

Pillo-pillo, sangarra pillo:  
-Masusta honek!

"Lau arbola karratua osatzu, ume banarekin.Beste ume bat erdixan aurrekueri lekuak  
kendu nahixan", Dolores Tolosa:

Txingarra-mingarra  
txutxurrutxu

"Umetan harrixak hartu eta pelikula zatixak (edo kromuak....) azpixan ezkutatzen ziran.

Harixka kentzerakuan hau kantatzen zan, eta ezer ez bazeguan pelikula zatixa galtzen  
genduan. Titulua zeken pelikula zatixak ziran gehixen estimatzen genduzenak." Jose  
Sarasua.

Atxilimio sagarrumao,  
Hamen ezpadao, hamentxe dao.

Korruan kantatzekua:

-Yo soy la viudita del conde Laurel  
Que quiero casarme y no tengo con quién.  
- Si eres tan bella y no tienes con quién  
elige a tu gusto que aquí tienes quién.

Popeye ta Betty Boop komikietako pertsonaixa ezagunak ziran. Popeyetan baloi bati bote ematen jakon bitartian hanka eta esku mugimenduak koordinatuz jokatzen zan.

Popeye y la Betty Boop  
Vivían en el primero,  
Bajaron al entresuelo  
Por miedo a la aviación.

Popeyes sí, Popeyes no,  
Ora pro nobis kirieleison.

Popeye marinero  
No sabe tocar el pito,  
La Betty lo tocó  
Y por eso se desmayó.

Soka-saltuan:

Bat, bi, hiru ta lau  
Txomiñek andria falta dau  
Horma zuloan topau dau  
Zirrika-zirrika atara dau.

Txomiñek dauka dendia  
sagar ustelez betia,  
Madrillen dauka etxia  
Oillo korotzez betia.

Edo:

Artolak dauka, Artolak dauka,  
Artolak dauka dendia,  
Sagar ustelez, sagar ustelez,  
Sagar ustelez betia.

Artolak dauka, Artolak dauka,  
Artolak dauka dendia,  
Beria dabela, beria dabela,  
Bizkaiko jende guztia.

Urrapanpa Zizili  
Txaloa jo ta itzuli,  
Urrapanpa Manuela  
Txaloa jo ta gora-gora.

Batek burua lagunaren belaun tartian sartzen zeban, gaiñontzekuek bizkarrian jo ta azpikuak gaiñekuek egindako kiňua asmau bihar zeban. Berba bakoitzari kiňu bat zegokixon. Berbak ziran: sardinesto, karramarro, cuchillito ta tijeritas.

Aceitero vinagrero  
Zer daukazu kolkuán?  
Zorri haundi bat lepuan  
¿qué es esto?  
sardiníesto  
Si hubieras dicho karramarro  
No tomarias tanto mal  
¿qué es esto?  
Tijeritas  
Si hubieras dicho.....

Txiribian aritzen ziranekua:

Arimian salto  
Herria bajo  
Haizerixa  
Ni miel  
Parajian, parajian  
Nontzat, nontzat?  
Harrapatzen dabenak  
Berarentzako.

Enorrak (sabañoiak) kentzeko konjurua:

Enorra bat, enorra bi  
Enorrak daukaz hamabi.

Amama mantalgorrixia edo Matxin gonagorrixia eskuan hartu ta eguraldixa asmatzen  
saiatzen ziran:

Eurixa ta euzkixa,  
Martiko egualdixa;  
Euzkixa ta eurixa,  
Matxin gonagorixa.

Basarrittarrak ez ziran libratzen umien txantxetatik:

Baserrittarra,  
Tirri-tarra  
Zapuan zuluan\*  
Bizi-txarra.

\*Jan bedarra  
Ta bota puzkarra

Ezta mutilzarrak be:

Sutondoan dogu  
Tirri ete tarra,  
Puzkarra dariola  
Gure mutilzarra.

Bizimoduan txarrera egindakueri:

Salamanka tranka,  
Atzo errejidore  
Eta gaur kaka.

Umiek alkarri burla egitteko izenekin egindako koplak asmatzen zittuen:

Juanito bonito,  
Zer pentsatzen dozu  
Arbolara igota  
Madarixa ostu?

Andres, Andres,  
Katua negarrez,  
Ama itturixan da  
Kaka ipurdixan.

Patxi!  
Kaka ein da bertan itxi,  
Haruzkuan atia itxi,  
Ez dok ein gauza gitxi.

Gaspar, hi beti zar-zar.  
Meltxor, hi beti txor-txor.  
Baltasar, hi beti fraka zahar.

Frantziskak eitxen daben  
Jabonaduria, jabonaduria,  
Saguan frakak eta  
Katuan gonia, katuan gonia.

Antonio, Polonio,  
Paskual, Bixente,  
Antxiñako nobixian  
Aurrian presente.

J.S.M. Eibar, 97ko Gabonak.

## KANTUEN INGURUKO OHARRAK:

1. Zalantza barik, Don Poli izan da Arrateko kantutegixa gehixen jorratu dabena, bai zaharrenak bilduz bai barrixak sortuz.  
Don Polikarpo Larrañaga: 1883-01-26 (Soraluzen), 1956-08-30 (Baionan).  
Ikasketak Gasteizen egiñ ondoren lehen mezia 1901ian Soraluzen emon zeban.  
Elgoibartik pasa eta 1911n Eibarren finkatu zan. Ez zan sasoi erreza, orduko Eibar euskal kristauentzat infreñua zan, sozialista eta errepublikazale antikristauz josia. Asmau zeban jendia elkartzen eta pentsamolde guztietakundeko zabalik zeguazen "Tribuna Libre" izeneko ekitaldixak antolatu zittuan Kruzeta Aretuan.  
Solidaridad de Trabajadores Vascos en sortzaillietakua, lehen Kongreso Nazionala Eibarren egin zan bere omenez, 1929ko urriaren 3an. Eibarko umieri euskal dantzak, teatrua, gimnasia erritmikua eta berak asmatutako kantak irakatsi zetsen, Izarra football taldeko sortzaillien artian be egon zan. Urtero San Juan bezperan Bandiak Himnua jotzen zebanian, Don Polik kioskotik zuzentzen zittuan Untzaga plaza lepo betetzen zeben eskola-ume guztixak.  
Mendiko Eguna zarzuela idatzi eban, eta Amets Larria, 1923an Eibarren estrenautako opera. Arrateko Amaren kantu zaharrak topatu zittuan, baita bere himnua idatzi be.  
1926ean Arrateko Amaren koronaziñua zala ta egin zittuan hitzaldixak Euskal Esnaleak argittaratu zittuan. 1929ean Eugenio Urrozen Historial de la Virgen de Arrateren hitzaurre gisa Arrateko Amari Bederatziurrena idatzi eban, euskaraz eta gaztelaniaz.  
Bere garaiko aldizkari ixa guztietan idatzi zeban.  
Gerra garaikan Baionan jarraitu zeban jo ta ke errefuxiatuen alde. 1955eko udazkenian izan zan azkenengoz Eibarren. Bertako jendiak geratzeko esku zetsan, baiña berak errefuxiatuak zittuan goguan. Hurrengo urtian hil zan. Hilletan Elizako, Jaurlaritzako, alderdietako eta sindikatuetako ordezkari nagusixak izan ziran.  
Eibarrek oindiok ez dotsa bihar bezela eskertu herrixan alde egindako lan izugarrixa.  
Rev. Eibar, 1970eko abendua, 6.orr. Amatiño; 1976ko abuztua-iraila, 18. Orr. Andoni de Soraluze. 1977ko ekai.-uztailla 16.orr. A.S.; 1980 ek-uzt. 6.orr. Iñaki Azpiazu. 1980 abend., 9.orr. A.de S.;  
1987 ek.-uzt. 23.orr. M.A. Zulaika; 1993ko urria, 6.orr., Don Pedro Zelaia.  
11. Eugenio Urroz: Tolosa, 1883 – Etxebarri, 1937.  
1921ian parroko etorri zan Eibarrera. Eliza eta herri legietan nahiz historixan adittua. "Euskaldunai euskeraz" goiburuarekin argittaratu zittuan bere idazlanak.  
Arrateko Amaren koronaziñoa prestatu zeban, eta 1929ean gauzatu zan. Urte berian argittaratu zan bere "Historial de la Virgen de Arrate". Kantu hau koronaziñorako egindakua da.  
"Ume batekin batera zoian Bilbora trenian, mediku anera. Etxebarri inguruan zoiazela gerra abioiak bonbaketa ekin zetsen. Trena gelditu egin zan. Korrika urten ziran babes billa ta eliza bat ikusitakuan bertan sartu ziran. Don Eugenio bihotzekuak jota bertan hil zan. Haura umia J. M. Gomez zan, gero okulistia izandakua." M.A. Zulaika.  
13. Badirudi kantu hau dala gaur egun kantatzen dogun Arrateko Amaren jatorrixa.  
Hau kantuau Arraterako idatzi zeban Don Polik, baiña Soraluzeko parrokuak eskatuta Ezoziko Amari be eskeñi zetsan. Gaur kantatzen dan zatixa hau da:

Arrateko ama, gure zaindari onena, / gure herri dana hartu eta zaindu, Ama./

Zure semean eskerrak iritsi dagiguz / danok zerura juan gaitezen, Ama, egizu.

15. Felix Markiegi Olazabal, "Latsurregi". ( 1906, Deba - 1946, Bahía Blanca, Argentina).

"Eibartik pasatako abade jator bat zan. Bere eginkizun argixak, bere zerbitzua, bere Eibarren aldeko jokaeria ez da ahaztu gure herrixan. Gaixuen alde Iñazio Arrillagaren klinikian, umien alde dotriña irakasten parrokixan, tipliek eliz koruan, Eibarko Orfeoiaren alde sutsu, gaztien zuzentzaille ta lagun beti, euskararen maitale ta beste eginkizun askotan..." Ikus Rev. Eibar, Pedro Zelaia. Bertan Don Pedro Zelaia Don Felixen omenez egindako bertsuak be azaltzen dira.

Zorigaitza be ondo-ondotik ezagutu zeban Don Felixek, gerran bi anaia galdu zittualako, bata Ondarretan gorrixek afusilauta eta bestia Santoñan urdiñek afusilauta. Bera, Lapurdin egonaldi bat egiñ ondoren, Argentinara abiatu zan 38xan. Bertan, Tomquist herriko parroko zala hil zan zortzi urte geruago.

Bere literatur laneri buruz gehixago jakitteko ikus Rev. Eibar, 99ko Sanjuanak, J.S.M.,12. orr.

16. Juan San Martinek Aita Donostiaren artxiboan topatutakoa. Hari Juanito Gisasolak bidali zetsan mende hasieran. " Hator, hator.." ezagunaren aldaera da. Xabier Amurizaren ustez aldaera honek guztixok Juan Kruz de la Fuente Bolangero Durangoko plateruak sortutako gabon kanta bat dake oinarri.

Ikus X. Amuriza, Bizkaiko bertsogintza I: Izengabeak, Bilbo 1995. 313.orr.

17. Gabon astian zihar kalez kale kantatzen zan. Gaur egun be oso ezaguna.

18. Agillando erdarazko aguinaldoren aldaera da. Gabon egunian kantatzen zan. Gabonetan, Santa Agedan eta Aratostietan kantuan urtetzen zeben taldiek dirua ta janaria eskatzen zeben.

Esti Gonzálezek Alberto aittari aldaera luziagua ikasi zetsan:

...lotsia badou baiña/ eskian gatoz./ Si, si, si,no,no,no/ altzo bete solomo/ Hemen gatoz lau/ atzetik beste lau/ kanpai joten bi/ emoizu limosnia Jaungoikuagatik.

Aquí venimos cuatro/ cinco compañía/ sesi letanía/ siete avemarías/ ocho odolostias/ a la Virgen de María.

Kantu honek badaka gabonekin zerikusi handirik ez dakan aldaera bat:

Agillando, agillando / Neskazarra Durangon / Aingeruak gera, / Isasikan behera, / Goizeko ordubixetan / Opillak eitteittuez / Panaderixetan.

Barriemoillia: Asier Sarasua, betidanik familixan entzundakua.

21. "Antxiña ohitura zan Gabonzarretan txarri belarrixekin ta txarri hankekin zopa egittia. Zopa haundixa esaten jakon." Kandida Eguren. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak".

24. "Batzokixan kantu honen aldaera egin zeben:

Erregiak datozi / Pozez honera, /Eusko jolaste ederrak / Abestutzera.

Euskadi maite,/ Gure aberria / Guk nahi degula / Askatu." Lorea Lasa.

25. Margaritak andra karlisteri esaten zetsen, erregiñagatik edo. Emakumiak, berriz, abertzalieri. Bertso hauek karlistenak izango dira, erregular!

“Santa Ageda bezpera gabian, eibartar “librepensadore” taldetxo bat hasi zan kantuan parrokuaren etxe aurrian: “Kura parroko mondrongo...”. Hontan, urten da Don Eugenio Urroz leihora eta diñotse: -“mutillak, etorri kafia hartzera”

Bestiak, ez gusto-gustora eta erdi lotsatuta sartu dira parrokuaren etxian. Kafia hartu ondoren, Don Eugeniok: “-Agur, mutillak. Ia oiñ balorerik dakazuen Casa del Puebluan esateko parrokuakin kafia hartu dozuela”.Juan San Martin.

Toribio Etxebarriak diñoenez Jose Gisasola “Izarre” izango zan “kura parroko” sortu zebana.

Normalian jendiak dirua edo janarixa emoten zeban. Emoten ez zebenek honelako “perlak” entzun bihar zittuen:

-...Siku, siku, siku / Saku, saku, saku.

...Etxe hontako nagusi jauna / pelotillero galanta.

...etxe hontako nagusi jaunak / zera egingo ahal du galtzeten.

26. Ohitturazko kanta zaharrak galtzen zoiazenez, 1920 inguruan Batzokikuek Kepa Enbeita “Urretxindorra”ri bertso barrixak jartzeko eskaeria egin zetsen.

27. Joakin Olañeta, “Ertzil”. Abertzale sutsua izan zan. Bere ustez Urretxindorrak Eibarren honek bertsuok be kantau zittuan, nahiz ta gero bere liburuan agertu ez. Kontuan hartzeko iritzixa da, Ertzil izan zalako Batzokixan Santa Agedako kontu honetan Urretxindorrarekin hartuemonik estuena izan zebana.

28. Eibarko umiek Eguren Zuri egunian kantatzen zeben.

29. Imanol Ortiz de Zaratek eurok umetan kantatutakoaren zati hau gogoratzen zeban:  
Eguren zuri kantetan / Jesusen disipuluok / Hemen gatoz atetan.

30. San Juan doiñua oso zabalduta dago Euskal Herrikan zihar, nahiz eta aldaera asko izan.

31. Tomas Garbizuk 1975-08-28xan egin zeban San Andres parrokixarako ereserki hau.

32. Juanito Gisasolak Zaldibarko Eitzaga auzuan 1917xan jasotakua. Aita Donostiarri bidali zetsan. Gerora Juanito San Martinek Aita Riezurengandik jaso zeban.

33. Antxiñako kantu ezagunak moldatu, alkartu eta ume kantu bihurtzen ziran.

39. Andres Garate, “Beltxi”k bota zetsan erronka Juan Bautista Gisasolari: -Hi Juanito, neretako ez jakak meriturikan Gloriari, Creduari edo Santusari musika jartziak... Baiña ezetz Atxia-motxia musikau?

Hillabete baiño lehen agertu zan Juanito Untzagako kioskuaren zeguan Orfeon Eibarresaren tabernan, eta mostradorian zeguan Beltxiri:

- Hor daukak Atxia-motxia musika ta guzti.

39. XIX. mendeko kantua, Azkuek Markiñan jasotakua. Eibarko umiek gerraurreko katekesietan ikasittakua.

43. Aita Donostiak jasotako ume kantua.

Maritxu Bergaretxe, Zargaste bertsolarixaren alabak kantau zetsan. Honek 1914an hildako amandriari ikasi zetsan.

Bere ustez hamar animalixok eskuetako atzamarrekin bat egitten dabe.

57. Gerra aurrian umiak Arrateko udalekuetara joaten ziran, eta handik beheruzkuan abesti hau kantatzen zeben.

59. "1945-6 urtietan kantatzen genduan. Aipatzen dan besamotza Don Victor Muro zan. "

J.M. Kruzeta

65. Don Polik honek kantuok sortu zittuan 1930ian Tuberkulosuen Pabilloia eraitzeko dirulaguntza eskatzeko. Arrakasta ikusirik, herri ibilliziran kantu-kantari dirua batuz.

69. Union Deportiva Eibarresa desagertu ondoren, 1932an Eibarko koadrilla batek

Deportivo Gallo sortu zeban. Durangoko torneoko txapeldun izan ziran. 1935ian U.D.

Eibarresa berragertu zan; 1940an Gallo taldiarekin bat egiñ eta Eibar Futbol Club jaixo zan.

Errebal kalian zeken euron egoitza, Asalgianekuan gañian.

72. Randas taldia Beti Galdu soziedadekuek osatzen zeben. Footballian behintzat, errepasua emon zetsen Pantallakueri. Ez dakigu musian, atletismuan edo nesketa desafiorik egiñ ote zeben...

74. "Eibarko Pottoka irratian "En gabarra por el Ego" izeneko kirol saioa egiten genduan; Behin Ormaiztegiko gizon batek deitu zeskun Eibarko football taldiari himnua egin zetsala esanaz. Segittuan ekin zetsan kantuari soiñuan laguntzaz. Doiñu bizi ta alaia zan ta asko gustau jakun. Haura gizona Bernardo Alberro zan, ta saio haren grabaziñua Deporrian dago". Roberto Bergara.

77. Garai batian ez ziran txirrindularixak izaten lasterketak irabazten zittuezenak, bizikletak baizik. Eibarren egindakuak Orbea, GAC eta BH ziran ezagunenak, baiña gehixago be baziran: Abelux, Zeus, Fenix, Cil eta Gamma bestiak beste.

Juanjo Sebastian, Begoña Azpiri. Txirrindularitza 1910-1933 Eibar.

"Bat eta bi" formulatxo hori sarritan errepikatzen zan:

Bat eta bi / Athletixak irabazi / Hiru ta lau / Real Madrixak galdu dau.

78. Eibarko frontoiak Astelena dauka izena egun horretan partidu haundixak jokatzen ziralako. Astelehenetan edozein aitzakixa erabiltzen zan lanera ez joateko: pelota partiduak, idi demak, oillar edo ahari borrokak, edozeiñ apostu xelebre...

89. \*Kantuak aipatzen daben Franco hau Ramón ei zan, Patxiaren anaia. Abiazioko Kapitaiña eta bere anaixak baztartua anarkista-masoia ei zalako. Bere buruaz beste egiñ omen zeban. Eibarren 2. Errepublika aldarrikatu ondoren, udaletxia peregrinaziño toki bihurtu zan. Inguru guztietako jendia etortzen zan, eta eurokin honek kantuok.

90. Karlistek eta falangistek zati hau gehitu zotsen:

Quita los tirantes,/ Baja el pantalón,/ Mete por el culo/ La Constitución.

Errepublika garaiko kantu da.

Eibarren errepublika ospatu zan egunian Udalak erabaki zeban Udal Bandak "La Marellesa", "Gernikako Arbola" eta "Internazionala" jotzia.

Beste kantu antiklerikal bat be bazeguan, Himno de Riego esaten zetsena:

Si supieran los curas y frailes / La paliza que van a llevar,/ Subirán al coro cantando:  
iLibertad, libertad, libertad!

91. Eibartik armagintza lantegi eta guzti urten ziran, eta kantuak aipatzen diran herri guztietan kokatu zeben hori lantegixori, azkenian, euren buruak Avilesen preso agertzeko. Han bertan, 1937. urtiaren amaieran idatzi zittuan Pepe Bolunburu kantarixak honek bertsuok. Eibartik kanpora be ezagunak dira.

Bertsoak ezkertiar batek egiñak baziran be, karlistek eta falangistek beretzat hartu eta kantatzen zittuen, Eibarko gorriken kontura burla egitteko. Geruago honek gehigarrixok be agertu ziran:

Galagarragar Benito, berriz,/ aeroplanuan sartuta,/ Valenciara igesik joan zan /

taillar guztia salduta./ Bere andra ta umiak bebai / Bagoi zaharretan sartuta,/

Domingo ta Bollain, berriz,/ Kañak besapian hartuta.

Eibartar guztiok juan giñan / Gerriari igesi,/ Gero danok agertzen gara/  
Asturiasen parregarri./ Eibartarrak baiño azkarragorik/ Ez da munduan ikusi,  
Zaratatxo bat entzun orduko / Hor doiaz danok igesi.  
Eurok veniran,/ Eurok veniran,/ Korrida plazia eitxera.  
Asturiastik Eibarrera bueltan Langille Batailloietan sartu zittuen eta Korrida plazia  
berreraikitzen ibilli ziran.

93. Akilino Amuategiren omenez sortu zeben sozialistek Amuategi Batailloia, eta kantu  
hau zan euren himnua.

94. "Eusko Gudariak gaur kantatzen dana baiño luziagua da. Gure batailloian "goazen  
aterik ate" jarraipenarekin kantatzen genduan." Salvador Marzana.

96. Eibarko falangistak eta karlistak "Círculo Católico"an biltzen ziran.

103. El Liberal Madrilen 1879an sortu zan. 1901an Bilboko El Liberal sortu zan, ta hau da  
kantuan aipatzen dana. Sorreran liberalista dinastikua zan, gerora, ta I. Prieto zuzendari  
zala errepublikazale(20 hamarkadan) eta sozialista( 30 hamarkadan).

Kantuaren azken zatixa, ziur asko, gerora jendiak gehittutakua izango da.  
Eibarren oso kantu ezaguna.

Eibarko egunkariak "Adelante"( sozialista), "Jaiki" (abertzalia) ta "El eco de Eibar"  
(Konserbadoria) ziran. Jaikik be ba omen zekan bere kantutxua.

108. Omenaldi egunian Calbeton ta antolatzailiak Donostiatik eterri ziran trenez. Arazo  
ugari izan zeben; zati batzuk oiñez egin bihar uholdiak zirala ta. Debatik aurrera dana  
ondo. Estaziño kalian antolatzailiak zaiñ (Eskuadra Zaharrekuak), kaliak gaiñezka eta euri  
zaparradak. Kioskuan "La Marcial" bandak himnuak baiño ez zittuan jo, eguraldixa zala  
ta. Eskoletako umien laguntzaz Calbetonen himnua entzun zan, Nizeto Muguruzaren  
letria ta Ildefonso Irusta bandako direktoriaren doiñua. Ume haretako askok oraindik  
kantua gogoratzen dabe. Ondoren Himno a Eibar kantau zeben.

Bazkarixa Astelena frontoian izan zan, eta 1200 lagun bildu ziran bertan. Omenaldi  
arrakastatsua izan zan.( La voz de Guipúzcoa, 1915-04-12). Eibar, 98ko Arrateak.

109. Nizeto Muguruza Larrina: 1882-03-20 / 1920-04-04. Eibartar honek Zaragozan ikasi  
zeban medikuntza, eta Madrilen doktoratu, Tuberkulosia aztergai zebala.

1908xan ekin zetsan Eibarren mediku ibilbidiari, eta Euskal Jaixetan ospatutako  
erakusketa berak asmautako fonendoskopioa aurkeztu eban.

Euskal Herrikan bere arluan mutur-muturrian zeguan, eta Alemaniako esperientzian  
oiñarrituta, " Jardín Galería de Convalecientes" sortzeko ideia izan zeban. Urtebete  
geruago ametsa egixa bihurtu zan. Muguruzaren kurrikulua izugarrixa da: aurkikuntzak,  
sarixak, hitzaldixak, liburuak, ikerketa historiko-etnografikua...Casino Amistaden be  
lehendakari izan zan. Eta gaiñera kantuak eta olerkixak egitteko denboria ataratzan  
zeban.

"Elgoibarko San Migel auzuak izandako moto istripuan hil zan. Sidecardun Harley batian  
zoiazen Inazio Anitua, Jazinto Olabe eta txestuan Muguruza. Bidetik urten eta beste bixek  
salto egijñ ahal izan zeben, baiña gure medikua txesto barruan geratu ta arbola jota hil  
zan.38 urte zittuan. Eibarrendako galera izugarrixa izan zan." Bartolo Arriola.

Ikus Rev.Eibar1996ko Sanjuanak,10.orr.J.M.Kruzeta.

Hill ondoren Astelenan egin jakon omenaldixa Niceto Muguruzari, ta ordukua da Don Poli  
bere lagunaren bertso hau.

111. Omenaldi hau 1922xan izan zan. Don Polik ordurako bertso hauek prestatu zittuan,  
baitta poxpoliñez inguraturik Oiartzunera tren espeziala antolatu be.

112. Pedro Mari Ansola, "Che". Argentinan oso egonaldi laburra egin zeban, baiña handik  
bueltan Che gora ta Che behera ziharduanez, gatzizena jarri zetsen. Euskaraz berba  
egittian be Argentinako azentua jartzen zeban.

Eibarren oso ezaguna zan, bai lan munduan, bai kirol arluan, baitta kale giruan be.

Eibarko Club Ciclistako direktibua izan zan, Gallo taldeko atezaiña....

Eibar, 67ko ab.-irai.

113. Ereserki hau azkenengoz 1915ian jo zan, Calbetonen omenaldia zala ta. Gerora Salvador Marzanaren burugogortasunari esker lortu da partitura osua, honek Elgoibarko Txomin Mujika bultzatu zeban himnua armonizatzera.

114. Gezurra badirudi be, bakailluaren kofradixia Eibarren dago. Juan Mari Narbaizari emon zotsen bertsuak egitteko enkargua. Narbaiza gerraosteko eibartar bertsolaririk onena da.

116. Kopla honen gaiñian gehixago jakin nahi izan ezkerro, ikus Lekuona, J.M., Lopez de Luzuriaga, J.I., Narbaiza, A.: 1.685eko Kopla Zaharrak, Ego Ibarra, Eibar, 1.992. Fran Lasuenek eta Hiru Trukuk euron diskuetan sartu dabe.

117. Anbrosio Atxa "Itxaso", bertsolaria, 1890-1943. Arragueta kalian jaixo zan, baiña aurretikuak Gorosta baillarako Itxaso basarrikuak ziranez, gatxizen horixe ekan.

"Casco" ko bihargiña izan zan, baitta "filarmonika" jotzaille ta konpontzailla be. Sasoi haretan gaurko trikiti-soñuari filarmonikia esaten jakon. Garai batian bera izan zan Eibarko bertsolari bakarretakua. Berak egindako bertsuetan honek bahintzat gordetzen dira:

Hiru gizon ilustre, Arragueta kalian, Tallarrari zortzikoa, Eibarko herria, Petra ta Maria eta Markano ta konpaiñiaren Aratostietako hegazkin bidaia.

Beraz, Itxaso da Eibarko kanturik ospetsuenden egillia. Erromerixetan Bitoriano Sagastume panderojoliakin ibiltzen zan. Bertsolaritzan, berriz, Uztapiderekin be egin zeban bertsotan Urkusuko parkiaren inauguraziñuan, baiña ez zan plazagizona.

118. Suite Eibartarran ageri diran kantuak antxiña Eibarren kantatzen ziran kantuak edo zatixak dira. "Ai Anton" gaur egun be oso ezaguna da. "Bihar da urtebete"ren kantu osua aurrerabtuago dator, eta "Alperrik izango dira etxian hasarre"k badaka Markesaren Alabaren 9. Bertsuaren traza.(Alperrik izango dira/ haserre gurian/ ez naute mudatuko/ eternidadian). Eibarko Udaleko artxibategian zeguan zinta batian, kantu honen hasieran eta amaieran hau kantatzen zeban andra batek:

Narru, narru/ zeiñek bihar du/ narruak parte/ diruak eingoittu.

Juan Bautista Gisasola Iñarrairaegi ( 1885-08-29 – 1948-05-04)

Txiki-txikittatik musikari lotua, aitta ta aittita parrokixako organistak izan ziran, horregatik zan familixaren gatxizena "Organistanekuak".12 urterekin Salamankara seminarista eta 14rekin bertako koruko zuzendari. 16rekin Eibarrera itzuli zan ta Salve bat konposatu zeban, Bergarako Retana maisuarekin ikasten zegoalarik. Bere lanik garrantzitsuena "Tota pulchra" izan zan. Bere obraren barri izateko ikus "Juan Bautista Gisasola: Musika lanen bilduma", Ego Ibarra, Eibar.1993.

Juanitoren anaixa, Julio, Fidel Castroren musika irakaslea izan zan Cuban.

120. J.B. Gisasolari esker dakigu kantu hau aspaldi kantatzen zala Eibarren. Erreenteria-Oreretako Makazaga inprimategiaren "Euskal Herriko Kanta Zaharrak"en ale batian topatu dogu.

121. Hasierako formula "Eibar tiene su entrada" edo beste aldaera "Eibar esta situado..." beste herri batzuetan be emoten ei da. Guk dakigula Zumaixan be kantatzen da eta "...es un pequeño San Sebastian" esaten dabe. Eibarren batzuk be halan kantatzen dabe "...es un pequeño pueblo industrial"en ordez. Hurrengo bertsuak eibartar peto-petuak dira, halan da be "Bilbao la Vieja" Eibarren beti izan da Bilbozar.

Oxabia, Maria Ondarru ta Taldonio oso ospetsuak ziran Eibarren. Oxabiak badaka "bere" kantua, Maria Ondarru arraindun ezaguna zan ta Taldoniok familixa galanta zekan, bederatzi seme hain zuzen be. Ikustekua izaten ei zan haren balkoia laneko erropa guztixak eskegita zegoazenian...

Ez dakagu egilliareni barri.

122. Habanera hau Agustin Zuluagak konposatu zeban,( Durango, 1898-05-15 – Eibar, 1934-05-01). Gaztetatikan Eibarrera etorria. 1924tik aurrera Udal Musika Bandaren zuzendari izan zan, baitta Musika Eskolakua ta Breton orkestakua be. Oso gazte hil bazan be bandarako hamabi instrumentaziño lan sortu zittuan, Cielito ezagunena zala.

123. Garai haretako Urkusuko itturixxa gaur egungo Karmeliten eliza inguruau zegoan. Tokaioneko taberna ez zan gaur egungo Arragueta, haur Elgetakalian zeguan, parrokixatik gora. Bertan azaltzen diran pertsonaieri buruz Toribio Etxebarriak zera diño Lexikoian: Lopetxuak zittuan lau edo bost ahuntz bizar kokozpian (191 orr.)

Aulesti txikixa zan bizar gabia, euskal kantu eta ferisetako bertso guztixak ekizazena.(263 orr.). "Kantuez gain lehenengo errepublikako diskurso famosuak be goittik behera gogoratzen zittuan baitta lagunartian errezzittau be". Kandido Eguren "Oka Txiki".

Ez dogu Iriaren barririk izan.

Jose Kareagak bertso hau be entzuna daka: Lopetxua ta Aulesti / Hasarratu ziran / Lopetxuak esan zion / Barriketa gitxi / bestela emongo zion / belarrondoko bi.

Kantu honetako lehen bertsuak traza haundixa daka Oiartzun aldean kantatzen zan beste honekin: Hiru errege datozen Kale Nagusitik/ Tripak ardoz beteta ezin egon txutik:/ Beltxorrek heltzen diyo Kasparri besotik,/ez muturraz aurrera eroitzagatik. (Eusko Folklore, 1930). 24.orr.

124. Honek bertsuok donostiarri adarra jotzeko sortu ziran. Eibarren donostiarren ordez plaentxiatarra jarri zeben ta ordutik oso kanta herrikoia bihurtu da.

Behin eibartar batek Lete plaentxitarrari kantau etsan "Sekula ere..", ta honen erantzuna azken bi bertsuak izan ziran. J.S.M. Zirikadak, 94-95 orr.

125. "Eibarko mataderuko Ford zaharra. Ermere bakarrik zan haur martxan jartzeko gauza, bera gaixotzen zanian ahal zan moduan banatzen zan okelia. Bigarren bertsuan diñon moduan, ez zan giro furgonetaren albuan, halako kiratsa zerixola. Bertsuak agertu

eta gitxira ekarri zan auto barrixa; eta orduantxe be hil zan Ermere, kamioi zaharraren miñak ikutu ebala zirudixan. Bertsuak "Artamendi" izenarekin agertu ziran, badirudi Joxe Izetak egin zittuala". JSM: Eztenkadak,Kulixka sorta .121-124 orr.

Joxe Izeta Murua,"Pelukero Txikixa": 1909-07-20 (Segura) – 1964-11-23 (Eibar).

Furgonetaren kantuaz gain, Gallastegiri Kerizpen egindako omenaldi batian bertso batzuk be kantau zetsazen, bere garaian oso ezagunak izan ziranak, baiña gaur egun galdua dagoz.

126. Gerra aurreko Eibarren putetxe bi zeren zezen plazaren inguruan. Hotel del Campo eta Villa Conchita ziran honen etxion izenak, baiña jendiak Petra ta Marian etxiak deitzen zetsen. Zapatuero ta herriko jaixetan, eguerdiko ordubatian, herriko gizonak Estaziño kale ingurueta pillatzen ziran, trenian zetozentz neskak ikustera. Honek Bilbo eta Donostiatik zetozentz, ta legiaren arabera, 23 urtetik gorakuak ziran. Gabaz gizonez jositta egoten ziran etxe inguruak, sarrera mugatuta zegoalako: neska bakoitzeko bi gizon zan topia. Astelehenetan honek neskok Eibartik joaten ziran hurrengo asteburura arte.

Aurreko bertsuetan kontatzen dana zuzendu nahixan, Eibarko Udalak 1913ko urriaren 17xan Eibarko prostitutenzako garbittasun berezirako zerbitzurako araudia onartu zeban. 27 artikuloz osatutako araudi hau oso zorrotza da. Ikus Kezka aldizkaria, 4. Zka. 1993.

"Antxiña tiro-pitxoia korrida plazan egitten zan, ta herriko granuja guztixak kanpuan egoten giñan, uso bat noiz jausiko zain. Behiñ usoa Villa Conchitaneko balkoian jausi zan. Segittuan urten zan bertako neska bat narrugorrikan hegaztixa jasotzera. Haura espektakulua geuretako!!! Joakin Gorrotxategi.

"Granujarik lotsagabienak egurra, gaztaiñak edo antzeko gauzak eruaten ebezen honen etxiotara, ordaiñetan hankartia erakustiarren". Juanito San Martin.

"Emagalduri Eibarren emoten-dabena esaten jako" T.E.

Gerrarekin batera desagertu ziran honek etxiok.

127. Emilio Goin: 1907(Tolosa) - 1937(Derio).Gizon alai eta jatorra izan zan, oso ezaguna eta saltsa guztixetako perrexilla:pelotarixa,txirrindularixa, kaldereruen konparsako zuzendarixa...

Taberna euki eben Isasikan, gaur egun Gure Leku dagoan inguruan.

Kostaldian ezbeharren bat zegoanian musikari talde bat alkartu ta herriz herri joaten ziran familixendako diru-batzen, Goin buru zala.

Proba ta apustu guztixetan be bera izaten zan kronometradore, osabak Liejatik ekarriktako erlojuak segunderua zekalako.

Gerran afusilatu eben.

"Astelena frontoian berak dirulaguntzarako antolatutako ekitaldi batian entzun netsan lehenengoz kantu hau. Gerora tabernan be entzun netsan. Hau ta berak asmatutako

beste asko; Goin ta Marino Solaguren erremiak ziran kantu parregarrixak bapatian asmatzen.” Juanito Lazpita.

Asalgianeko taberna Errebalian zeguan.

130. Bigarren eta hirugarren bertsuak edo antzerakuak kantatzen dira beste herri batzuetan be, baiña hasieria ez dogu beste iñun topatu.

131. Badirudi Durangoko jendia ez zala orduko eibartarren oso gustukua, “Durango, buena jaula pero malos pájaros” be esaten ei zan; Hain zuen be, Durangoko gazterik aberatsenak be etortzen ziran Eibarrera neskatarra, hanguak danak monjak ei ziralako.

132. “Eibarko Plaza Barrikan Martzeloneko Kafia zegoan ( Casino Amistad- Musical Bretón). Bertako jibia, Martzelo Alberdi, juez izan ei zan, edo behintzat “Martzelo juez” esaten zetsen.

Esamolde bihurtu zan: norbaittek –¿Pues? galdetzen zebanian,-iMartzelo juez!, erantzuten jakon. Okamika sastria, Klaudio ferreterua, Txantoi Zaharra, Txantxiku hojalaterua ta beste batzuekin batera Eskuadra Zaharreko partaide zan Martzelo.” Dolores Tolosa.

133. Eibarren asko kantatzen zan; ziur asko jatorriz bilbotarra izango da, hango kantuetan beti agertzen dalako txakoliña. Eibarren txakolin gitxi eraten zan.

134. “Txapela gorri batela” kostaldeko trazia daka. Dana dala eibartarreri plaentziatarrek “txapela gorri” deitzen zetsen, liberalak ziralako.

135. “Mota honetako bertsuak arruntak ziran aspaldi. Mari-tranposak kalabazak emondako norbaitek egin edo enkargauko zittuan, ta gero bertso-paperak auzuan zabaldu lotsagarri lagatziarren”. J. M. Unzetabarrenetxea.

Juan Bautista Iraegi Arrateko maixuaren semia ei zan.

136. Petitek lagunekin kantatzen zeban.

1883ko uztailaren 21ian jaixo zan Bidebarrieta kalian. 16 urterekin egin zeban debuta Bilboko Euskaldunan, Eibarko Txikitoren eskutik. 1901ian Habanara joan zan, eta bere bizitzan zihar beste 13 aldiz be zeharkatu zeban “potzua”. Habanan egon zan bitartean urtero-urtero etortzen zan udako bi hillabetez oporretan, ta tarte horretan eskuzko apustuak be jokatu izan zittuan.Oso gizon umoretsua ei zan.

Rev. Eibar,1962ko Sanjuanak. Una gloria de la pelota: Ramón Petit. Antonio Urreta.26.orr.

137. Ermeregildo Urkidi, “Ermere”. Erromerixetan filarmonika jotzallia ta harakiña. Pruden aitta be harakiña zan. Untzeta jauregiaz (gaurko La Salle) arduratzen ziran bera ta Romana emaztia, horregatik bizi ziran bertan. Oso ezaguna zan mataderoko furgoneta zaharrarekin okela partitzen zebalako, ta guk dakigula, Arragueta kalian harategixa ta ondoren jaboi lantegi bat be zabaldu ei zeban.

Bertso honen jatorrixari buruzko bersiño bat baiño gehixago dagoz. Guk Juanito Lazpitarena emongo dogu: “Gallo ta Ermere hiltegi aurreko zelaixan zegoazen kontu-kontari, bide batez Ermerek ganaua zaintzen zebalarik. Halako batian Ermerek esan ei zeban: -“Hi Gallo, illuna jatok eta etxe aldera joanbiharko juagu, hi heure ganbarara ta neu palaziora”.

Kantua ikusitta argi dago Gallori ez zetsala bape graziarik egin Ermeren urteerak.

Eibarren oso bertso ezagunak dira.

Jose Gallastegi, “Gallo”. Ermereri botatako bertso honetaz gain Mateo Altzuri botatakua be beria ei da. “Gallo” Errimerikin panderojole ta kantari ibiltzen zan, eta euron erromerixetara jende asko erakartzen zeben. Gerran hill ei zan.

138. Anizeto Oiartzabal "Elgeta Korneta" zan eibartarrontzat. Oso gizon alaixa zan. Orduko eibartarrek astero-astro, bai Gasteizeruntz urtetzerakuan, bai handik bueltan, bere kanta ta korneta soiñuak entzuten ebezen. "Oeste"ko pelikuletan ikusten diran antzeko karro haundi bat zekan, hiru mando ederrekin bultzatua. Vitorixatik gauza asko ekartzen ebazen: kartutxuak, patata, txokolatia, azukria... Eruan be danetik: gauzak, diruak, mota guztiak enkarguak... Manduak eta karrrua Bidebarrixtako korta batian izaten zittuan. Gizon ausarta zan, ibilli egin bihar zan gero haren moduan, bakarrik eta askotan gabaz. Plaentxiatar batzuen erruz hillabetiak pasau zittuan Burgosko espelxian. Eskerrak epe hartan bere emazte Guadalupe Belastegik, seme gaztetxoekin batera, jarraitu eutsala Gasteizko joan-etorrixari. Emakume ausarta benetan Guadalupe! Zazpi seme-alaba izan zebezen. Guadalupe banatu ta Ingliterrara be joan zan iñude. "Elgeta" errekadistia Eibarren hil zan 76 urtekin, 1940xan.

Rev. Eibar, 84ko otsaila, 6. orr.

"Ostegunero hirira (Gasteizera) azaltzen zan "Elgeta errekadistia", Eibarkua. Bi mandok tiratzen zeben karruaz egitten zeban ibilbidia: Eibar-Gasteiz; eta adarra joaz honela iragartzen zeban bere etorreria:

Tropari tropa / Tropa batallón / La camisa rota / medio pantalón.

Karlos Elgezua. Eskultoria. Rev. Eibar, 96ko maiatza. 16-17. orr. Jose Luis Cobreros eskultoriak idatzia eta "Txillardegi" k euskaratua.

"Lotan be, iie! manduari, Elgeta errekadistiak." T. Etxebarria.

Juanito Oiartzabal mendigoizale ospetsuaren arbasua zan Anizeto.

139. Eibartar "ilustraua" zan Mateo Arizmendiarieta. Altzu basarrikan jaixotakua, horregatik esaten zetsen Mateo Altzu. Meningitis gaixoa pasatu eban gaztetan eta horregaitik bihar gogorretarako ez zan gauza.

Egun batian, ba ei zoian Mateo lagun artera eta batek diño:

-Hemen datok Altzu Buruhaundixa.

Ta Mateok:

-Ez baiña hutsik, askok moduan. Ikus Rev. Eibar, 1966ko otsaila, 12. orr.

142. Oxabia Eibarko kale garbitzaillerik ezagunena zan. Hilario izenez, eta kojua ei zan.

"Umetan erratza hartu, antiojuak jarri ta:- Hamen zer dago garbitzeko?-esanaz, Oxabia barrenderuaren imitaziñua egiten genduan". Kandido Eguren "Oka txiki".

"Behin udaletxeko langillien arteko pelota partidua antolatu zan. Laukotia, mundiala: Oxabia-Labia Orixua-Koipiaren kontra." Juanito Lazpita.

Kantu hau herrixan oso zabalduta badago be, badirudi originala "Periko txotxolo nun dek andria" zala; Izan be, "Oxabia" mutilzarra zan.

144. Jazinto Arrillaga, Kaporalari kantatzen omen zetsen kantu hau. Gizajuari azken urtiak guztiz larriak pasatzia tokau jakon. Etxe onian jaixo zan baiña txarrian amaittu. Esaten ebanez, osasun larregixak ekarri zetsan hondamendixa. Ustez, eukazen diru ta aziendak jan baiño lehenago hilko zan, baiña txarto kalkulau zeban.

Eztenkadak, JSM, 34. orr.

Kantu hau Kaporalala ta Felix Uranga "Legarre" Mototxenetik (Bitoriano Guridirenetik) ordaindu barik joan zirenakua da. Basarrirekin batera hirukote mundiala osatzen zeben, ta haren inguruan ez zan kantu ta giro alaia baizik. Adar jotzeko makiñak ziran, hala ta guzti be, harekin ez zeguan hasarratzerik.

"Eibarren ordaindu barik joatiari epetakua egittia esaten jakon, eta epetalarixa egiten zebanari" T. E.

"Errondarixen legia, azkenengo tabernan berakatz zopak eiñ goizaldera" T. E.  
145. 1911ko Euskal Errria aldizkarian ageri da. Jose Artola donostiarra zan eta bertsolarixa ezezik La Galerna eta Euskal Errria aldizkarixetan kolaboratzaille be bazan. Bertsuok izenburu honekin argitaratu zittuan: Eibarko 1911ko iñauterietako Forjarien jaitea. Beraz, aratostietako konparsa batek kantau zeban. Ez dakiguna da Eibarko konparsak Artolari

kantua enkargau zetsan ala Artolak kantua jaso ta bere siñadura jarri ote zetsan. Informaziño gehixago barik Artolarenara dala esan biharko dogu.

146. "Arioplanua ganbara batian egiñ ei zeben, ta gero ataratzeko....kontuak. Teillatua zulatu bihar izan zeben." Joakin Gorrotxategi. "Kalejiran be izan zeben arazorik. Hegazkiñak bizikleta bat zekan oiñarri, ta aldapa agertu arte ondo ibilli ziran; Isasixan, barriz, bizikletak abixadia hartu ta hegazkiña hegan hasi ei zan, lurra jo ta txikitu arte." Eugeni Ubera. 1929xan Jesus del Gran Poder hegazkiñak Sevillatik Habanarako hegaldixa egin zeban, lehenengoz Atlantikua erdialdetik zeharkatuz. Aparatu haren mantenuaz eta errekiñaz arduratu ziranen artian eibartar talde bat zegoan. Ziur asko horregatik aukeratu eben Ardurabakuek hurrengo urteko aratostietan Ameriketarako aeroplanua egittia.

Ikus Rev. Eibar, 1979ko urria. Los eibarreses y el progreso de la aviación. 15.orr. Honek bertsuok Bizkaia aldera zabaldu ziran, ta pertsonaiak aldatuta "Berriz eta Zaldibarko abiadoreen berbak" bezala be agertu izan dira. Ikus Labayru Ikastegia, Gure kantuak, 38.orr.

147. 1932ko aratostietan armeruen konparsak vals bat (Eibarko herria) eta zortziko bat (Tallar honetan) kantau zittuan, "Bertso berriak Eibarko Armeruen Konparsiari jarriak" izenpian.

Armeruen konparsen ohitura Plaentxitik ei dator.

"1932xan armagiñen taillar bat kamioi baten gañian ipiñita, eta inguruau orduko erako armagiñen tunikaz jantzitako koadrilla bat, txapel haundiz eta bigote zaharrekin, Eibar guztian zihar kalejiran kantuan ibilli ziran."

Kezka aldizk. Juan San Martin

148. Kantu eder eta polita da. Gaur egunian bitxia egiten jaku soldata astero jasotzia. "1920xan astebikuan ordez, asteka pagatzia jarri zan". T. Etxebarria. Orduko Alfako asteko jornala bederatzi hogerleko zan. Dirurik ez zegoanian, kooperatiban ordaintzeko bederatzi txapa izaten zan soldata.

Gerra ostian hasi ei zan Eibarren soldata hillabetaka ordaintzen.

Lehenengo oporrik Eibarren 1934an izan ziran, ta gañera taillar bakar batzuk hartu zittuen. Orduko oporrik astebetekuak ziran...

150. Afiladorien konparsa hau 1905eko aratostietan urten zan eta saria lortu zeban.

Sasoi hartako aratostiak halakuak ziran: Eguen Zuri umien eguna izaten zan. Domeka gabian koko dantza egoten zan Untzaga Antzokixan, Breton orkestiaren eskutik. Aurreko mende bukaeran astelehenetan zezena ibiltzen zan kalez kale, eta kanpoko konpansen eguna izaten zan. Plaentxiakuak oso zaliak ziran etortzen. Martitzenian senargaixa lehenengoz sartzen zan neskalagunaren etxian, baiña ez bakarrik, bere koadrilla osuakin baizik. 30 lagunetik gora be elkartzen ziran! Berakatz zopia ta arraultzak ziran menua, baitta aratostietako peillak eta errebanadak be. Aratoste martitzena konpansen eguna zan. Kuadrillak gurdi batian ibiltzen ziran kalez kale kantuan, ta batzen zeben dirua bazkari edo afarimerienda egiteko izaten zan; zeozer sobratu ezkerro, Ospittalerako. Gabian Astelena pelotalekuak dantzaldixa egoten zan.

Rev. Eibar, Pedro Zelaia. 89ko otsa. 9.or.

153. Pelotari haundixa eta gizon umoretsua zan Marino. Bere urtenaldixak dozenaka gogoratzen dira Eibarren. Horretako asko Don Pedro Zelaieren Umore giroan liburuan jasotzen dira. Kantuak asmatzen be erremia zan.

154. "Astelena pelotalekuko taberna geure familixaren esku zeguan. Behiñ erre egin zan, eta Goinek ekitaldi bat antolau zeban konponketarako dirua lortzeko. Kantu hau asmatu eban eta gure anaia Jose Marikin batera kantau zeban. Oso gizon jator eta eskuzabala zan." Anjel Urdanpilleta.

155. Eibarren txikiteorako afiziño haundixa dago, baiña egixa esan, ohitura hori ez da haiñ antxiñakua. Lehen kuadrillak taberna jakin batian biltzen ziran ta bertan jarduten zeben edanian. Krisiaren ondoren, 1914ko gerriakin batera etorri zan dirua Eibarrera, eta 1919xan 8 orduko laneguna jarri zanetik hasi zan Eibarren txikiteua, dirua zegualako eta aisiajdirako denbora gehixago.

159. Ondarrutarrek Bilbon estropada irabazi zebenekua da. Eibarren kantatzen diran bertsuek ez dake jatorrizkuen trazarik.

Eibarren kostaldeko kantu ugari kantatzen zan; izan be, kostaldeko herrixen eta Eibarren arteko hartuemona oso estua izan zan mende hasieran. Itsasuan ezbeharrak izaten ziranian, han urtetzen ziran Eibarko musikarixak, Goin buru zala, kalez kale eta herriz herri diru bilketan.

Eibarren, 1911ko krisialdixa latza izan zan. Taillarretan lanik ez eta Arrateko bidia egittiari ekin zotsen. Jantoki popularrak be ezarri ziran, herritar guztiek jan ahal izateko. Garai latz haretan kostaldetik arrain kamioikadak bidali zittuen eibartarreri laguntasuna emotiarren. Horretaz gaiñ eziñ ahaztu uda partian eibartarrek kostaldera jotzen zebela eta Alfak be udalekuak Ondarrun kokatu zittuala. Eibarko arraindun asko be Ondarrutarrak ziran.

160. Ondarruko Arraindunak etortzen ziran Aratostietan ta kalez kale kantatzen zeben.

Orduko Eibarko arraindun batzuk hauek ziran: Maria eta Juana Ondarru, Juana Gordia, Gedeonesia, Pajarosia, Fabiana, Ursula, Kontxa Uranga, Laureana Kukusia, Dorotea Irunesia, Pantxika... ta egunero Ondarrutik etortzen zan Buena. Eibar, 87ko azaroa. Eskerrak emon nahi detsaguz Arrate Irratiari kantuaren grabaziñua lagatziaren.

165. Oso kantu ezaguna. Eibarren askok "eragiok Santi errrotari" kantatzen dabe. Santi Errota Elgetakalian bizi zan, baiña ez zan errrotarixa, lurperatzaillia baiño. Rev. Eibar, 1978ko abendua. 17.orr.

Kantu honen bukaeria T. Etxebarriaren lexikoian azaltzen da.

166. "Felix Uranga eta Tokaiok kantatzen zeben; jarraixan aurreskua dantzatzen zeben." J. R. Orozko.

Felix Uranga Txiriokaleko oillartokiko enkargaua zan. Emaztiak, Maria Legarrek, hasarre egiten zetsan oillarrak etxian izaten zittualako. Ultimatuma be emon zetsan:

-Oillarrak ala heu. Kasurik egiñ ez eta handik aurrera Felixek noizian behin Kaporalak be ekartzen zeban etxera.

"Tokaiotarren taberna Elgetakalian zeguan. Bertan guitarra bat zeken. Behin kanpotar bat etorri ta:-¿Quién toca la guitarra?. –Toca yo, Tokaiok. Hortik jarri etsen gatxizena". Dolores Tolosa.

168. Gauza arrunta zan lelo baten inguruan kantu zati ezberdiñak batzia. Kantu honetan duan-duan (turan-turan be bai) da lelo hori.

170. Eusebio Mugerta Azpiazu, "Conde de Mendaro", "Duque de Kilimon". Eibarren "Mendaro Txirristaka" gatxizenakin zan ezaguna.

1874 (Mendaro) – 1955 (Pasaia San Pedro).

Kubako gerran izandakua. Ondoren Puerto Rico, Alemania, Frantzia, Italia, Portugal, Afrika, EEEB, Mexiko, Panama, Brasil, Uruguai, Txile, Argentina eta Patagonian ibilitakua. Euskarazko eta erdarazko bertsuak idatzi zittuan, baitta bixak nahasikan be.

Iturrixa: Xepelar Bertso-dokumentazio zentroa.

Igandero-igandero San Andres elizako atarixan egoten zan, bertsotan, meza nagusitik urtetzen zan jendia bertso paperak saltzen. Tabernaz taberna be saltzen zittuan. Basarrittarreri itsasotik hartutako kable ugartuak saltzen zetsezen, barrixak oso garestixak ziralako.

Zalantza barik, Eibarren arrakasta haundixa zeken bere bertsopaperek.

171. Kantu honen doiñu ta hasierak Iparragirreren kantu bat dakarkixe gogora, baiña jarraipenak ez daka zer ikusirik. Balitteke bi kantu nahasi izatia.

"Iparragirre Eibarren be egon ei zan. Antza danez Bilbotik oiñez etorrela, inspiraziñua etorri jakon. Eibarren sartu eta ia musikorik zegoan galdu zeban, kantu transkribatzeko. Laureano Gisasolari kantu zetsan eta honek, pianuaren laguntzaz, segiduan idatzi. Ordaiñetan Iparragirrek argazki bat dedikau zetsan". J. Kareaga.

Okerrena zera da, Eibarren "jaixotako" Iparragirreren kantu hori zein dan ez dakigula.

172. Txotis edo Tangoen eta euskal dantzen arteko konparaketa manikeo xamarra da, egixa esan.

Eibarren aurreskularirik ezagunena Satur Txirloia izan zan. 1925-26 urtietan hamazazpi saiotan aurkeztu eta dan-danetan etara eban lehenengo sarixa. Ostikolari ta pelotaria be izan zan. 1923an, egun bakar batian halako "agendia" izan zeban: Goizetik aurreskuan txapeldun gelditu, arratsaldian Bergaran fooball partidua, ta gabian, Astelenan ikusle egoala, etorri ez zan pelotari baten ordez jokatu bihar izan zeban, ta gaiñera irabazi! Eibar, 90eko ek.-uzt.

174. Sasoi batian Eibarren oillar borroka ugari antolatzen zan. Oillar prestatzailliak be asko ziran: Sumendixa, Txopatarrak, Felix Uranga...Toribio Etxebarriaren aittak be oillar borrokak antolatzen zittuan. Oillartoki ezagunenak Txirixokale inguruan zeguazen, ta Astelena pelotalekuaren be egitten ziran oillar borrokak.

Kantu hau oso ezaguna egin zan Basarri, Kaporalta Felix Urangari esker.

175. Erderazko bersiñua be badago:

Ay qué bonitas son/ las flores en el campo/, qué bonitos son/ los pájaros cantando/ Qué bonitas son / las chicas de mi pueblo/ que a la vejez/ suelen decir:- Tukilis...

177. Lorenzok Errebal kalian zekan illeapaindegixa. "Pelukiña" esaten ei zotsen. Orduan emakumiak ez ziran barberuanera joaten, baiña modia beti moda.

179. Eibar, 1957, martx.-api. 11.or. (Zati baten faltan)

Bere alabak, Maria "Txindurri" kbertsiño hau kantu zeskun:

Garia saltzen nenguanian / Eibarko Plaza Barrian / Dama gazte bat etorri zaidan /Garia zenbaten nuan,/ -"Bestientzako hamazazpian/ zuretzat hamabostian,/ hamabostian nahi ez badozu/ laztantxo baten trukian.

Kontratu hori esan baestazun/ Leku sekreto batian,/ Garia eta zeu eta neu be/ Konponduko giñian.

180. Honetan bertsuotan aspaldiko Sanjuanak zelan ospatzen ziran ederto kontatzen desku egillia. Ez dakigu ze urtekuak diran.

Sanjuan jaixen inguruan beste ohittura pare bat be baziran: bata zan etxe garbitze edo etxe zuritzia. Jaixen aurretik etxia garbi-garbi lagatzen zan. Bestia soñeko barixa jaztia zan. Eibar, 69ko ek.-uzt.

181. Gabriel Manterola :1890-1977 (Zeanuri). 1914an etorri zan Eibarrera abade jator hau, Isasiko mojen konbentura, hain zuen be. Oso gizon jakintsua zan, eta Eibarko liburutegirik onena bere etxian ei zeguan. 1919xan Euskaltzaindiarako aukeratu eben. Dotriñia irakatsi eban Isasin, Aldatzen eta Parrokian; baita euskal kantu ederrak be, umien atalian ikusi dogun moduan. Gerra etorri zanian euskal ume talde haundi baten arduradun joan zan Inglaterrara.1949xan aberriratu zan eta ordutik bere herrixan jardun zeban abade. Eibar, 1971ko otsaila eta 1977ko abuz.-irai.

Bertso hauet 1930ian egin zittuan, eta Eibar, 1963ko Sanjuanak,20.orr.an argittaratu ziran.

182. "Gure taillarian, sari gisa, erbixa emon zeskuen; honek seirok, barriz, iñori ezer esan barik, eurok jatia erabagi zeben, baiña lankidiok jakiñ orduko bertsua atara gentsen." Pedro Arrizabalaga, "Xoxua".

"Eibarren bankete edo oturuntzari fafua esaten jako". T. E.

183. Indalecio Sarasketa,1860-05-20 – 1900-04-03.

Zalantza barik, Eibarko Txikixa iñoz izan dan pelotaririk onena da. Guantez, xestoz, palaz nahiz eskuz ez zeban kontrakorik izan, munduko onenak txikittu zittuan. Sasoi hartan pelota joko guztixak bittan banatzen ziran: Blekan eta Iuzian.Blekan frontisaren kontra jotzen zan pelotia, eta Iuzian paretarik gabe jokatzen zan. Beraz, Eibarko Txikixa frontoiko pelota joko guztixetan zan nagusi.

Berau izan zan Ameriketara jokatzera joan zan lehen pelotarixa; bertako Paisandúren aurkako partidua izugarrixa izan zan:80 tantura eta tartian 450 gramoko pelotak zirala!!Txikitok 40xan laga zeban aurkarixa. Hamar urtez ez zeban aurkakorik izan.

Eretiratutakuan Buenos Aires, Bartzelona eta Bilboko frontoietako intendente izan zan.

Jaiotzez durangarra bazan be, txiki-txikittatik Aizpiri basarrixan bizi izan zan.

Eibartarrendako ez zan Eibarko Txikia, Aizpiri Txiki baiño.

40 urte baiño ez zittuala hil zan.

"Orduko mundu maillako kantaririk ospetsuenetako bat, Julian Gaiarre erronkariarra, Indalezioren laguna zan, eta behiñ Eibarrera etorri jakon bisittan. Bide batez Gisasolaneko kafian kantuan egin zeban, Segundo Maiora pianuan zala. Txirixokale osua jendez bete zan." Patxi Arana. Eibar, 1967ko abuz.-ira. 5.or.

Bertso honetaz gain Juan San Martinek be jaso zeban bat Kezka aldizkarixan, eta Panpi Ladutxek be kantu bat eskaiñi detsa.

185. Ezekiel Etxebarria: 1852 (Eibar) – 1932 (Ermua), (Honek datuok ez dira oso ziurrak). Fernando Aranberri Odriozolaren "Ermua eta Eitzako euskara"(1996) liburuari esker dogu abade honen barri. Bertan Zahartzaroaren gañeko bertso hau be azaltzen da: Murriturik burua,/ tximurra mosua,/ makur-makur lepua,/ikaraz eskua,/begietan lausua,/ narrasa pausua,/ eztula ta gorrua,/ haserre ta orrua.

Toribio Etxebarriak bere Lexikoian idatzi zeban osaba Ermuan abade zala ta bertsuak egitten zittuala, beraz, Ezekiel Etxebarria Toribioaren osaba zan.

"Ermutarrontzat Don Ezekiel "Abade txikixa" zan. Egunero Gaceta del Norte erosten zeban, eta berak irakurritakuan eske joaten nintxakon etxekuek irakurtzeko, eta halan etxerik etxe, herri guztixari heltzen jakon haurra periodikua. Oso abade jatorra zan." Maria Bengoetxea "Txindurri".

Kantuan azaltzen dan "Droget"i buruz, Ermuan esaten dabe Errepublika aldarrikatu zanian Eibarren bandera gorrixakin sartu zala. Drogeten familia jatorriz ermutarra zan baiña Isasira etorri ei ziran. Ez dakigu Droget hau bera zan, baiña badakigu urtero-urtero Sanjuan bezperan Droget bat igotzen zala San Andres elizako kanpandorrera ta bertan ezartzen zebala Eibarko banderia.

Don Jose abadia Arrateko "Don Pepe" izango da. "Arrateko eliz-ataixan abadia zan nagusi pelotan, ta puntako muslarixa be bazan" T.E.

14. bertsuan agiri dan Aizpiri, Eibarko Txikia pelotaria da.( Ikus berari eskaiñitako bertsuak)

191. Gallastegi izan zan Atano III.a menderatu zeban pelotari bakarra. Indar izugarriko pelotarixa izan zan, mende honetako onenetakua. Gaur egunian Donostian bizi da.

192. Eibarko sozialista gaztiekin siñatutako olerkixa da. "El obrero vasco"n argitaratu zan, sarrera honen ostian: "Laister 49 sozialista mota ezberdin egon behar dute Iberiako penintsulan. Madrilekoak, internazionalistak eta antiburgesak dira, Bilbokoak berriz, antieuskaldunak eta Eibarren, "Gora Euskadi" oihukatzen dute. Komeria bat da dena."

1922ko urriaren 1ian Eibarren omenaldia egin jakon Kepa Enbeita "Urretxindorra"ri. Euskal Herri osotik izugarritzko jendetza etorri zan, eta hurrengo eguzkieneko Euzkadi egunkarian sozialista gaztiekin domekan banatutako bertso paper honen barri emoten zan.

Bertan jeltzaliek onartzen ez zeben bakarra zaharkittutako ortografia zan.

193. Indaleki Ojanguren ( 1887-11-15 – 1972-02-18 )

Mendigoizale eta argazkilari ospetsua. Berari esker aspaldiko Eibarko eta Euskal Herriko gertaera, pertsonaia eta paisaia garrantzitsuenen irudiak dittugu.

La Marcial musika bandako tronboijole be izan zan.

Ikus Rev. Eibar, 98ko azaroa. Juan San Martin.

Honek bertsuok Guillermo Bengoetxea, "Txindurri"k eskaiñi zetsazen 1947ko iraillaren 28xan Ermuko Mallagarain, lagun arteko omenaldi batian.

Txindurri Ermuko mendigoizale eta bertsolari ezaguna zan, (1878 – 1966).

194. Pepe Bolunburu:1905-1979. Bertsolari bikaiña eta umoretsua izatiaz gaiñ, Eibarko kantaririk onenetakua zan. Bere anaia Pakorekin batera kantatzen zeban, baitta Trio Lazpitarekin be sasoi batian. Honetan bertsuotan frankismuaren kritika zorrotza egitten dau. Oso ausarta zala be argi dago, bertsuok 1944kuak diralako

#### LIBURUA EGITTEN LAGUNDU DESKUENAK:

- Albeniz, Aurora
- Alberdi, Maria Elena
- Alzerreka, Rosario
- Angera, Mariasun
- Arizmendi, Rosa Mari
- Arregi, Julia
- Arrieta, Juanita
- Arriola, Bartolo
- Arrizabalaga, Pedro
- Atxa, Karmen
- Atxa, Patxi
- Atxalbizuri, Frantziska

- Azurmendi, Emilio
- Balenziaga, Julia
- Baskaran, Victoria
- Bazterra, Marina
- Bengoetxea, Maria
- Bernedo, Enrike
- Betolaza, Libe
- Bilbao, Roberto.
- Bolunburu, Arnaldo
- Bolunburu, Juanita
- Eguren, Kandida
- Eguren, Kandido
- Elkoroiribe, Felix.
- Etxeberria, Antonina
- Gantxegi, Maritxu
- Garaizabal, Iñaki
- Garate, Andres
- Gisasola, Paz
- Goin, Nelli
- González, Estibalitz
- Gorosabel, Ernesto
- Gorrotxategi, Joakin
- Gorrotxategi, Laura
- Gurrutxaga, Juanita
- Hernandez, Jose Mari
- Hernando, Pilar
- Iriondo, Antonia
- Irulegi, Isabel
- Kareaga, Jose
- Kruzeta, Jose Mari
- Lapeira, Julio
- Larrañaga, Alberto
- Larrañaga, Ramiro
- Larreategi, Julia

- Larreategi, Luzia
- Lasa, Lorea
- Laspiur, Kontxa
- Lazpita, Juan
- Lejardi, Rosalio
- Lizarralde, Juventina
- Loitxate, Polonia
- Maguregi, Pakita
- Marzana, Salvador
- Mata, Fernando
- Mendiguren, Teresa
- Mendikute, Pepita
- Montero, Enrike
- Muñoa, Fernando
- Murgizu, Margarita
- Narbaiza, Antxon
- Narbaiza, Juan Mari
- Oiarzabal, Maria Angeles
- Ojanguren, Eli
- Olañeta, Dabid
- Orozko, Jose Ramon
- Orozko, Justina
- Orozko, Pilar
- Ortiz de Zarate, Imanol
- Ortiz de Zarate, Ziriako
- Perez Sarasketa, Anjel
- Perez Sarasketa, Jose Luis
- Prieto, Sergio
- Sagarna, Jesus Mari
- Salaberria, Xabier
- San Martin, Juan
- San Martin, Segunda
- Sarasketa, Piedad
- Sarasua, Gonzalo
- Sarasua, Jose
- Serrano, Juan
- Tolosa, Dolores
- Ubera, Eugeni
- Ugarteburu, Paulina
- Unztabarrenetxea, Jose Mari
- Urdanpilleta, Angel
- Yarza, Maria
- Zenarruzabeitia, Danel
- Zulaika, Maria Angeles

Eskerrik asko danori zeuon laguntzagaitik. Bateron bat ahaztu badogu, barkatu.

## BIBLIOGRAFIA:

- Amuriza, Xabier: Bizkaiko bertsogintza. I . Bilbo, 1995
- Amuriza, X., Narbaiza, J. M., Zelaia, P., Etxabe, J.: Gregorio Atxa-Orbea, "Orbe" bertsolaria. Ego Ibarra, Eibar.1992.
- Ansorena, Jose Inazio: Euskal Kantak. Erein, 1993.
- Anuario de Eusko Folklore, 1930.
- Azkue, R.M.: Cancionero Popular Vasco. Euskaltzaindia, 1990.
- Donostia, Aita: Euskal Eres-sorta. Cancionero Vasco. Unión Musical Española, Bilbao.
- Dorronsoro, Joanito: Bertsotan 1789-1936. Bilbo, 1981.
- Dorronsoro, Joanito: Bertso doinutegia. Euskal Herriko Bertsolari Elkartea. Donostia, 1995.
- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Auñamendi
- Etxebarria, Toribio: Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar. Eibarko Udala, Euskara Batzordea, 1998.
- Etxebarria, Toribio: Viaje por el país de los recuerdos
- Izagirre, E., Lizarralde, M. eta Narbaiza, A.: Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia. Eibarko Udala.Euskara Batzordea.Eibar,2000.
- Juegos infantiles en Vasconia. Euskalerriko atlas etnografikoa. Bilbo, 1993.
- Lekuona, J.M.,Lopez de Luzuriaga, J.I., Narbaiza, A.:1685eko Kopla Zaharrak. Ego Ibarra, Eibar.1992
- Lekuona'tar Manuel: Idaz-lan guztiak, 1.Aozko Literatura. Kardaberaz bilduma, 22.
- Manterola, Jose: Cancionero Basco. Sendoa,1981.
- Martiartu, A., Narbaiza, V., Garai, M. eta Zelaieta, M.1983. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak".
- Paul Arzak, J.I.: Eibarko sozialismoa, Krisellu, 1978.
- Revista Eibar.
- San Martin, Juan: Eztenkadak.Ed. Itxaropena, Kulixka sorta.Zarautz,1965.
- San Martin, Juan: Zirikadak. Ed. Itxaropena, Kulixka sorta.Zarautz, 1960.
- San Martin,Juan: Antxiñako Eibar. Ego Ibarra, Eibar. 1993
- Sebastian, Juanjo eta Azpiri, Begoña: Txirrindularitza 1910-1993, Eibar.
- Urkiza, Julen: Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia. Karmel Sorta, Markina-Xemein,1999.
- V.V.A.A.: Arrate, parroquia de San Andrés Apostol de Eibar, Editorial Centro Unesco de San Sebastián,1998.

